

LEADER ESTRATEGIA 2023-2027

**MENDINET
LANDA GARAPENAREN AURRERAPENERAKO
ELKARTEA**

Arkauti, 2024ko maiatzaren 22a

Aurkibidea

AURKIBIDEA	1
1 TOKIKO EKINTZA TALDEA	4
1.1 IZENA	4
1.2 EGOITZA. TELEFONOA. POSTA ELEKTRONIKOA	4
1.3 ERATU ZENEBKO DATA. IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA	4
1.4 MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK	4
1.5 IZAERA JURIDIKOA	5
1.6 ELKARTEAREN ARAUBIDEA	6
1.7 KAUDIMEN BERMEA	8
1.8 ESPERIENTZIA LANDA GARAPENEBKO BESTE PROGRAMA BATZUK KUDEATZEN, LANDA EREMUETAKO IKERKETAK EGITEN EDO JARDUERAK SUSTATZEN.	8
1.9 ESKUALDE EZARPENA	11
1.10 HARREMAN MOTAK ALDE INTERESDUNEKIN ETA TOKI, ERREGIO ETA NAZIO AGINTARIEKIN	14
2 TOKIKO GARAPENERAKO ESTRATEGIA	16
2.1 ESKU HARTZEKO LURRALDEA	16
2.1.1 <i>Jarduera eremu geografikoa eta eraginpeko populazioa.</i>	<i>16</i>
2.1.2 <i>Hautatutako eremu geografikoaren justifikazioa.</i>	<i>16</i>
2.1.3 <i>Mapa xehea.</i>	<i>16</i>
2.2 DEFINIZIOAK	17
2.3 ABIAPUNTUAREN DIAGNOSTIKOA	20
2.3.1 <i>EAEko landa eremuen diagnostiko orokorra</i>	<i>20</i>
2.3.2 <i>Mendineten balorazio kualitatiboa</i>	<i>34</i>
2.4 AHULEZIAK, MEHATXUAK, INDARRAK ETA AUKERAK (AMIA)	40
2.4.1 <i>Ahuleziak</i>	<i>40</i>
2.4.2 <i>Mehatxuak</i>	<i>41</i>
2.4.3 <i>Indarrak</i>	<i>42</i>
2.4.4 <i>Aukerak</i>	<i>43</i>
2.5 TOKI ENTITATEEK ETA TOKIKO EKINTZA TALDEA OSATZEN DUTEN ENTITATEEK ESTRATEGIA PRESTATZEN IZAN DUTEN PARTAIDETZA	45
2.6 HELBURUAK	49
2.6.1 <i>Helburuak</i>	<i>49</i>
2.6.2 <i>Estrategia</i>	<i>50</i>
2.6.3 <i>Estrategiak GJHein bat</i>	<i>54</i>
2.7 ILDO ESTRATEGIKOAK	56
2.7.1 <i>Ildo estrategikoak identifikatzea</i>	<i>58</i>
2.7.2 <i>Ildo estrategikoen helburuak</i>	<i>60</i>
2.7.3 <i>Jarduketa ildoak</i>	<i>62</i>
2.7.4 <i>Lehenetsitako eremuak sektoreka</i>	<i>66</i>
2.8 LAGUNTZA NEURRIAK DEFINITZEA	67
2.8.1 <i>Ekintzailatzarako eta barne ekintzailatzarako neurria</i>	<i>68</i>
2.8.2 <i>Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko neurria</i>	<i>76</i>
2.8.3 <i>Besteren kontura kontratatzekeo neurria</i>	<i>90</i>
2.8.4 <i>Guneak gaitzeko neurria</i>	<i>95</i>
2.9 PROIEKTUAK HAUTATZEKO PROZEDURA	104
<i>Deialdiaren zirriborroa idazterakoan, kontuan izango dira erregelamendu europarretan eta LEADER laguntzei aplikatu beharreko gainerako araudietan definitzen diren eskakizunak eta Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen sailburuaren 2023ko maiatzaren 9ko</i>	

Aginduan jasotako gutxieneko edukia. Aginduaren bidez, partaidetzazko toki garapeneko estrategiak eta Euskal Autonomia Erkidegoan horiek kudeatzeko ardura duten tokiko ekintza taldeak hautatzeko oinarriak onartu ziren, 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (NPBPE) esparruan.

2.10	ANIMAZIO EKINTZAK, ESTRATEGIA GARATZEN HAS DADIN	114
2.11	LANKIDETZA PROIEKTUAK	116
2.12	KOMUNIKAZIO PLANA	119
2.13	JARRAIPEN PLANA ETA EBALUAZIOA	124
2.14	FINANTZAKETA PLANA	126
2.14.1	FINANTZA TAULA LABURTUA, OROKORRA, NEURRIZ NEURRI	126
2.14.2	FINANTZA TAULA, URTEKA, NEURRIKA ETA FUNTSEKIN	126
2.14.3	FINANTZA TAULA, URTEZ URTE ETA URTE BAKOITZEKO FUNTSEKIN	127
2.15	IRUZURRAREN AURKAKO PLANA	128

Irudien aurkibidea

1.	irudia – Azterketa demografikoa	20
2.	irudia – Enpleagarritasunari buruzko datuak	22
3.	irudia - Distantziei buruzko datuak, lurraldez lurralde	24
4.	irudia – Landa eremuetako ustategien ikuspegi orokorra	25
5.	irudia – Ustategien titulartasuna eta nagusitasuna	26
6.	irudia – Nekazaritza sektorearen azterketa	26
7.	irudia – Abeltzaintza sektorearen azterketa	27
8.	irudia – Enpresak sektoreka 1. eremu kalteberan	29
9.	irudia – Enpresak sektoreka 2. eremu kalteberan	30
10.	irudia - Enpresak sektoreka 3. eremu kalteberan	30
11.	irudia - Enpresak sektoreka 4. eremu kalteberan	31
12.	irudia - Metodologia	45
13.	irudia – Prozesua faseka	45
14.	irudia - Kronograma	47
15.	irudia – Neurrien laburpena tipologiaren eta faseen arabera	67

Taulen aurkibidea

1.	taula – Arabako azterketa kualitatiboa	35
2.	taula – Azterketa kualitatiboa Bizkaian	36
3.	taula – Gipuzkoako azterketa kualitatiboa	36
4.	taula – Estrategia-GJH bat eginda	54
5.	taula – Sektoreen deskripzioa	56
6.	taula – Sektoreak eta ildo estrategikoak	58
7.	taula – Ildo estrategikoak eta helburuak	60
8.	taula – Jarduketa ildoak 1. sektorean	62
9.	taula – Jarduketa ildoak 2. sektorean	62
10.	taula – Jarduketa ildoak 3. sektorean	64
11.	taula – Jarduketa ildoak 4. sektorean	64
12.	taula – Jarduketa ildoak 5. sektorean	65
13.	taula – Jarduketa ildoak 6. sektorean	65
14.	taula – Eremu lehenetsiak sektoreka	66
15.	taula – Ekintzailtza eta barne ekintzailtza neurriaren adierazleak	73
16.	taula – Laguntzen zenbatekoa, ekintzailtza eta barne ekintzailtza neurriarena	74
17.	taula – Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza dibertsifikazioan	

inbertsioak egiten laguntzeko neurria	82
18. taula - «Nekazaritza-dibertsifikazioan» inbertsioetarako proiektuak baloratzeko irizpideak.....	83
19. taula - “Nekazaritzakoak ez diren enpresetan” inbertsioak egiteko proiektuak baloratzeko irizpideak.....	86
20. taula - «Nekazaritza dibertsifikazioan» inbertsioetarako laguntzen ehunekoen taula	88
21. taula - “Nekazaritzakoak ez diren enpresetan” egindako inbertsioetarako laguntzen ehunekoen taula	88
22. taula - Besteren kontura kontratatzeke neurriaren adierazleak.....	93
23. taula - Besteren kontura kontratatzeke laguntzen zenbatekoa	93
24. taula - Guneak gaitzeko neurriaren adierazlea	100
25. taula - Guneak gaitzeko neurria baloratzeko irizpideak.....	100
26. taula - Guneak gaitzeko neurriarentzako laguntzen ehunekoa.....	103
27. taula - Zereginak eta ardurak.....	108
28. taula - Komunikazio Planerako AMIA.....	121
29. taula - Adierazle orokorrak.....	124
30. taula - Finantza taula laburtua, orokorra, neurriz neurri	126
31. taula - Finantza taula urteka eta neurrika.....	126
32. taula - Finantza taula, urtez urte eta urte bakoitzeko funtsekin	127

1 TOKIKO EKINTZA TALDEA

1.1 IZENA

Mendinet landa garapenaren aurrerapenerako elkarte.

1.2 EGOITZA. TELEFONOA. POSTA ELEKTRONIKOA

Arkaute, z/g

01192 Arkaute (Araba)

Tel.: 945 41 03 09

Email: mendinet@mendinet.org

Web: www.Mendinet.org

1.3 ERATU ZENeko DATA. IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA

Mendinet landa garapenaren aurrerapenerako Elkarte (aurrerantzean, Mendinet) 2002ko martxoaren 20an eratu zen eta, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantz Saileko Ikerketen eta Erregimen Juridikoko zuzendariak 2002ko ekainaren 20an emandako Ebazpenaren bidez, Elkartearen Erregistroan inskribatu zen.

IFZ: G-01341718

1.4 MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Mendineten misio nagusia da Euskadiko landa eremuen garapena sustatzen eta bultzatzen lan egitea, eremu horietako jardura ekonomikoa eta enplegua indartuz eta biztanleen bizi kalitatea hobetuz.

Ikuspegiari dagokionez, Mendinetek nahi du landa eremuak espazio erakargarriak izatea bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko, jardura ekonomiko jasangarria sortuz eta lehendik dagoena zainduz, haiei behar bezalako balioa emanez. Horrez gain, erreferentziazko agente liderra izan nahi du, Euskadiko landa eremuak garatzeko lanean.

Balioei dagokienez, berriz, hauek dira Mendineten printzipioak:

- Konpromisoa eta hurbiltasuna
- Proaktibitatea
- Bottom-upb estrategia
- Lankidetzeta eta elkarlana

- Gardentasuna eta osotasuna
- Solidaritatea
- Zentzutasuna, praktikotasuna eta errealismoa

1.5 IZAERA JURIDIKOA

Eratze akta dokumentu honi erantsita doa. I. ERANSKINA

Bazkideak diren entitateen zerrenda 2023ko urtarrilaren 1ean:

- IZKI landa garapeneko elkarte.
- ARABAKO ERRIOXA landa garapeneko elkarte.
- 'MAIRUELEGORRETA' GORBEIALDEA landa garapeneko elkarte.
- AÑANA landa garapeneko elkarte.
- ZABAIA landa garapeneko elkarte.
- LAUTADA landa garapeneko elkarte.
- ENKARTERRIALDE landa garapeneko elkarte.
- JATA-ONDO landa garapeneko elkarte.
- GORBEIALDE landa garapeneko elkarte.
- URREMENDI landa garapeneko elkarte.
- LEA ARTIBAI landa garapeneko elkarte.
- URKIOLA landa garapeneko elkarte.
- GOIMEN landa garapeneko elkarte.
- URKOME landa garapeneko elkarte.
- TOLOMENDI landa garapeneko elkarte.
- DEBEMEN landa garapeneko elkarte.
- DEBA GARAIA landa garapeneko elkarte.
- BEHEMENDI landa garapeneko elkarte.
- HAZI Fundazioa.

Lehenengo hamazortziak entitate pribatuak dira eta azkenekoa sektore publikoko fundazioa.

Tokiko ekintza taldearen funtzionamenduaren ardura duten organoak, organo horietako kideak eta kideek dituzten karguak eta ordezkaritza.

Euskadiko elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak eta elkartearen Estatutuek gobernatzen dute Mendinet. Estatutuak 2021eko apirilaren 23an eguneratu ziren. Dokumentu honi erantsita doa Estatutuen kopia. II. ERANSKINA. .

Estatutuetan, entitatearen gobernu eta administrazio organoak deskribatzen dira, organo gorena Batzar Orokorra delarik, Elkartearen bazkide diren entitateek osatzen dutena. Batzar Orokorra zuzendaritza organo kolegiatu iraunkorra da.

Elkarteko bazkide diren entitate guztiek osatzen dute Batzar Orokorra eta Batzar Orokorrak aukeratzen ditu Zuzendaritza Batzordeko kideak.

Estatutuetan, bi organo erabakitzaile horien eskumenak, eskubideak eta betebeharrak agertzen dira.

Kide hauek osatzen dute Mendineteko egungo Zuzendaritza Batzordea:

PRESIDENTETZA: Urremendi LGE
IFK: G48582027

PRESIDENTEORDETZA: Deba Garaia
IFK: G20208393

IDAZKARITZA: Añana LGE
IFK: G01043546

DIRUZAINITZA: HAZI Fundazioa
IFK: G48986137

BOKALA: Lea Artibai LGE
IFK: G48440978

BOKALA: Lautada LGE
IFK: G01419597

BOKALA: Behemendi LGE
IFK: G20448049

BOKALA: HAZI Fundazioa
IFK: G48986137

1.6 ELKARTEAREN ARAUBIDEA

Mendinet elkarteak elkarten forma juridikoa dauka eta bere araubidea Estatutuetan dago deskribatua. Dokumentu honi erantsita doaz Estatutuak.

Estatutuetan gai hauek xehatzen dira, besteak beste:

Entitate elkartu izaeta lortzeko eskakizunak:

29. artikulua- “Elkarteko kide izango dira Elkarteko entitate elkartu izateko eskatzen duten pertsona juridikoek, betiere Elkarteko entitate elkartu gisa beren eskubide guztiak erabiltzeko eta lupertzeko modua duten bost entitate elkartuk proposatzen badute, elkarteak arautzen dituzten legeek xedatutakoa betetzen badute, Elkartearen xedearekin, hau da, landa garapenarekin lotutako jarduerak garatzen badituzte eta Zuzendaritza Batzordearen onespena badute”.

Entitate elkartuen eskubideak eta betebeharrak:

33. artikulua- “Entitate elkartu ororen eskubideak dira:

- 1) Boto eskubidea erabiltzea.
- 2) Elkartearen jardueretan parte hartzea.
- 3) Batzar Nagusiaren bileretara deitua izatea, haren bileretara joatea eta bileretako eztabaidetan parte hartzea.
- 4) Elkarteko gobernu eta ordezkaritza organoen osaeraren gaineko informazioa jasotzea, eta baita haien kontuen egoerari eta jardueren garapenari buruzkoa ere.
- 5) Elkarteko entitate elkartuen liburu, akta liburu eta kontu liburuetara jotzea, datuak babesteko araudiak xedatutako moduan.
- 6) Sufragio aktiboko eta pasiboko eskubideak erabiltzea Elkarteko edozein kargutarako.
- 7) Elkartea edozein unetan uztea, hartutako eta bete gabeko konpromisoak betetzekotan betiere.
- 8) Elkarreak hartutako erabakiak inpugnatzea eta horien ondoriozko erantzukizunak eskatzea.
- 9) Entzuna izatea haien aurkako zehapen neurriak hartu aurretik eta halako neurriak hartzeko bidea eman duten egintzen berri jasotzea. Zehapenik ezarritik gero, zehapen hori ezartzeko arabakiak arrazoituta izan behar du.
- 10) Elkarreei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeko 26. artikulua xedatzen dituenak.
- 11) Elkartearen enblema erabiltzea, balego.
- 12) Estatutuen eta, egonez gero, Barne Araudiaren ale bana edukitzea eta eskaerak eta kexak zuzendaritza organoei aurkeztea.
- 13) Elkartearen ekitaldi kolektiboetan parte hartzea eta entitate elkartu guztiek erabiltzekoak diren elementuak erabiltzea, Zuzendaritza Batzordeak erabakita daukan moduan.

34. artikulua- “Entitate elkartuen betebeharrak dira:

- a) Gogotsu parte hartzea Elkartearen helburuak bete daitezen.
- b) Gastuei aurre egiten laguntzea, Batzar Nagusiak finkatutako kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordainduz.
- c) Elkartearen Estatutu hauek eta organo zuzendariak balio duen eran

hartutako erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.

- d) Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileretara, asanbladetara, bileretara eta egiten diren gainerako ekitaldietara joatea, haietarako deialdia jasotzen dutenean; gogotsu hartuko dute parte erabakiak hartzerakoan.

1.7 KAUDIMEN BERMEA

Mendineten kaudimena bermatua legoke berriro tokiko ekintza talde moduan aukeratua izango balitz eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzako nahiz Europar Batasuneko funtsak jasoko balituzke.

Taldeak bere jardueretarako dituen aurrekontu baliabideak:

Estrategia hau garatzeko, Mendinetek duen aurrekontua 7119 esku-hartzeari dagokion fitxan agertzen da: 31.407.266 €.

Mendinet tokiko ekintza taldeak duen kapital eskrituratua: 5.700 euro.

Kontu zenbaki ziurtatua subentzioak jasotzeko eta kontuaren finantza entitatea:

Laboral Kutxa:

Kontu zenbakia: ES10 3035 0428 65 4280020532

1.8 ESPERIENTZIA LANDA GARAPENeko BESTE PROGRAMA BATZUK KUDEATZEN, LANDA EREMUETAKO IKERKETAK EGITEN EDO JARDUERAK SUSTATZEN.

Mendinetek dituen esperientzia, trebakuntza teknikoa eta gaitasun administratiboa frogatuta daude; izan ere, LEADER+ Ekimena (2002-2007) kudeatu zuen, eta baita LEADER programak ere 2007-2013 eta 2016-2020 denboraldietan.

Mendineten esperientzia: aurrekariak.

Mendinet tokiko ekintza taldea izan da 2022az geroztik eta, beraz, berak kudeatu ditu **LEADER bidez 2002tik (2002a barne)** finantzatuak izan diren proiektuak; pertsona onuradunak orientatu ditu haien eskaerak tramitatzerakoan eta proiektuak martxan jartzerakoan. Era berean, aurkeztutako proiektuen balorazio teknikoak egin ditu eta laguntzak emateko proposamenak aurkeztu. Laguntzak emateko erabakia Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak hartzen du.

LEADER + programaren (2000-2006) xede nagusia zen teknologia berriak eta informazioaren gizartea landa eremuetan inplementatzea eta garatzea.

LEADER + programa hura apustu arriskutsua izan zen, finantzatu zitezkeen proiektu guztiek IKTeekin zerikusia izan behar zutelako. Programaren eboluzioa positiboa izan zen, hasiera oso zaila izan bazen ere. Etapa hark aurrera egin ahala, gero eta proiektu gehiago aurkeztu ziren.

Etapa hartan, guztira, 344 proiektu aurkeztu ziren eta 286 onartu.

Ondren, 2007-2013 urteetako **LEADER programa** neurri hauetarako proiektuak laguntzera bideratu zen: nekazaritzako elikagaien informazio eta lanbide prestakuntzarako ekintzak, IKTeetan oinarrituta; nekazaritza, elikagaigintza eta basogintza sektoreetan produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko lankidetzak; mikroenpresak sortzea eta garatzea; turismo ekintzak sustatzea; landa eremuetako ekonomiarako eta biztanleentzat oinarritzko zerbitzuak; ekonomia eragileen prestakuntza eta informazioa eta lurraldeen edo nazioen arteko lankidetzak.

Denboraldi haren balantzea oso positibotzat eman daiteke, ez bakarrik laguntza jaso zuten proiektuengatik, baita Mendineteko kideek jaso zuten esperientzia eta heldutasun mailagatik ere, lurralde arteko lankidetzarekin lotutako proiektuak ere landu baitziren.

Denboraldi hartako (2007-2013) emaitza 2014ra arte luzatu zen eta ezin positiboago atera zen. Guztira, 762 proiektu onartu ziren eta dirulaguntza publikotan 28.856.082,88 euro eman ziren.

Mendineten LEADER programa 2014-2020 LEADER eremuetako jarduera ekonomikoa bultzatzera eta bizi kalitatea hobetzera bideratu zen. Hala, bost laguntza neurri prestatu ziren: ekintzailetzarako laguntza; enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsioak; besteren konturako kontratazioa; udalerrietako azpiegiturak, oinarritzko zerbitzuak eta LEADER herrien berritzea; eta etxebizitza. Labur esanda, programari esker 1.173 proiekturi lagundu zitzaion, 52.648.302,30 euro eman ziren. Aurreko denboraldian baino dezente gehiago, baina kontuan izan behar da 2022ra arte luzatu zela programa.

Lankidetzaren arloan, bi proiektu garatu ziren, bakoitza urtebeteko hiruna fasetan: *“Landa-hiria hurbilketa. Tokiko nekazaritzaren eta produktuen balioa azpimarratzea”*, lurraldeen arteko esparruan eta *“Smart Rural. Landa ingurune adimentsuak eta lehiakorak”*, nazioen arteko esparruan.

“Landa-hiria hurbilketa” proiektuaren helburu orokorra izan zen landa eremuetatik gizartearen landa eremuetako ekonomiarekiko eta kulturarekiko lotura sustatzea, gizartearen konpromisoa bultzatuz lurralde garapen jasangarriarekin, bertako produktuekin, landa eta itsasertz eremuekin, horien guztien funtzio aniztasuna azpimarratuz, pertsona ekoizleen/kontsumitzaileen arteko elkar ezagutza berreskuratzeko eta, hala, ‘hiria-landa’ lotura indartzeko.

Horretarako, lankidetza bat jarri zen martxan Mendineten eta Kataluniako landa ekimenen elkartearen (Associació d'Iniciatives Rurals, ARCA) artean.

Proiektuaren zeregin nagusia izan zen landa garapeneko elkarten sentsibilizazioa eta ahalmena laguntzea. Helburu hori erdiesteko lan tresna baliagarriak sortu ziren; aipagarriena, 'eskualdeko pertsona ekoizleen katalogoa diseinatzeko eta prestatzeko gidaliburua' izan zen.

"*Smart Rural*" proiektuaren bidez nahi zen LEADER eremuko udalerriek zituzten desfioei eta beharrei erantzutea, haien indarguneak eta aktiboak kontuan hartuz, ibilbide orri berriak sortzeko eta, hala, bakoitzak bere transformazioa egin zezan lurralde adimendun (*Smart Villages*) bihurtzeko bidean. Mendinetek, hala nahi izan zuten udalerriekin batera, lan taldeen eratzea bultzatu zuen, teknikari eta politikari ordezkarien partaidetzarekin, estrategiak parte-hartzean oinarritutako metodologiaren bidez diseinatzeko asmoz. Diseinatze prozesu hura trebakuntza ekintza batez zurkaiztu zen, udalerrri bakoitzean estrategia bat diseinatzea eta ibilbide orri bat prestatzea erraztu egin nahi baitzen, proiektua behin amaituta lanean segitzea ahalbidetuko zuten estrategia eta ibilbide orria alegia.

Nazioarteko proiektuen arloan, lankidetza bat antolatu zen Mendineten eta beste entitate hauen artean: LAG Pohjois Satakunta (Finlandia), LAG County Wicklow Partnership (Irlanda) eta Kraina Trzech Rzek (Polonia). Nazioarteko lankidetzaren emaitza aipagarri moduan esan daiteke jardunbide egokien proiektuen liburu bat prestatu zela, tokiko lau ekintza taldeek landu nahi zituzten gaiak kontuan hartuta. Gai hauek hautatu eta lehenetsi ziren: energia garbiak eta smart energien edo energia adimentsuko soluzioak, digitalizazioa zerbitzu elektronikoen bidez, berrikuntza soziala eta *hub* eta *coworking* direlakoak berrikuntzagune gisa.

Euskadi mailan, proiektuaren bidez Euskadiko LEADER eremuko sei udalerriri lagundu zitzairen (Bilar, Kanpezu, Kuartango, Beizama, Orexa, Muxika), hain zuzen ere beren garapen estrategiak SMART ikuspegi pean garatzen lagundu zitzairen, eta Enkarterriko udalerriei, berriz, eskualde estrategia bat diseinatzeko.

Bestalde, ezin dugu ahaztu Mendineteko bazkide diren entitateen parte-hartzea toki administrazioek eta administrazio autonomikoek finantzatzeko landa garapeneko programak garatzen eta inplementatzen. Beraz, esperientzia handia dute arlo honetan.

Talde teknikoa

Estrategian agertzen diren lan ildoak gauzatzeko, Mendinetek beharrezkotzat jotzen dituen teknikariak, administrariak eta koordinatzaileak izango ditu.

Mendinetek, gaur egun, bi langile ditu, administrari bat eta teknikari bat. Hori kontuan hartuta, antolaketa eredu berri bat diseinatu da, hain zuzen ere Taldea behar bezala garatzeko eta Estrategia egoki inplementatzeko behar diren hobekuntzak kontuan hartuko dituen eredua, Estrategia berrian planteatzen diren zereginei eta desfioei aurre egiteko.

Hala, Mendineten plantilla handitu egin da, koordinatzaile bat eta bi teknikari kontratatu dira.

Koordinatzailea arduratuko da Estrategia zuzen inplementatzeaz eta dauden baliabideak zuzen erabiltzeaz.

Teknikariak ere ariko dira. Horien eginkizuna izango da laguntzen deialdiak teknikoki kudeatzea eta animazio jarduerak eta lankidetzako proiektuak bultzatzea.

Azkenik, aipatu behar da Mendineten indarguneetako bat Mendinet osatzen duten entitate bazkideak direla. HAZI Fundazioak eta LGEek adituak dituzte animazio, aholkularitza eta kudeaketa administratiboaren arloetan. Horiek balioa emango diote Mendineti eta haren xedeari, sare lanaren bidez.

Ekipamendua

Mendineten egoitza Arabako Arkauteko nekazaritza eskolan jarraituko du egoten. Hala, errazagoa izango da, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako aplikazio eta plataformetara sartzea, LEADER deialdietako laguntzak kudeatzeko. Baliabide material berriak ipiniko dira, Estrategia erosoago kudeatzeko eta inplementatzeko.

Gainera, kontuan izanda Mendinet elkartearen bazkide diren entitateak esku hartuko den lurralde osoan nola dauden banatuta, interes taldeak gertu egongo dira eta hori indargune bat da.

Ekipamenduei eta baliabideei dagokienez, aurreikusita dago behar diren ekintzak gauzatzea Mendinetek behar bezala funtziona dezan Estrategia inplementatzerakoan.

1.9 ESKUALDE EZARPENA

Lehen aipatu dugun bezala, Mendinet osatzen dute Euskadiko landa garapeneko 18 elkartek eta HAZI Fundazioak eta haren indarguneetako bat entitate horietako bakoitza da. LGEek beren eskualde ikuspegia ematen dute eta HAZI Fundazioak zeharkako ikuspegi integratzailea.

Hala, ziurtatuta dago Mendineten Estrategia eskualdeetan inplementatu eta garatuko dela, entitate bakoitzak bere lurraldean dituen sareei esker.

Landa garapeneko elkarteek, HAZI Fundazioak eta Mendinet tokiko ekintza taldeak egiten duten sare lanak, 'elkartea' forma juridikotzat hartuta, abantaila ugari ekarri ditu. Alde batetik, pertsona onuradunekiko hartu-eman zuzena eta arina izatea ahalbidetu du, gertutasun fisiko handia alegia, eta, horri esker, programa hedatu egin da eta ideia berritzaileak ezagutarazi eta bideratu dira, hasieratik martxan jarri izan diren arte.

Lan eredu honen bidez, sinergia inportanteak sortzea lortu da eta sinergia horiek, ezbairik gabe, asko lagundu dute LEADER ikuspegia inplementatzen eta ikuspegi hori eskualde bakoitzeko landa garapeneko programetan txertatzen.

LANDA GARAPENeko ELKARTEAK

LGEak eskualdeetako agente sozio-ekonomiko aipagarrien ordezkari dira eta aniztasun handia dago osatzen dituzten kideei dagokienez. LGAk oro har kontuan hartuta, hauek daude ordezkaturak, besteak beste: nekazaritza eta abeltzaintza elkarteak, kooperatibak, baso elkarteak, kultura elkarteak, ingurumen elkarteak, kirol elkarteak, enpresa elkarteak eta sindikatuak, ostalarien elkarteak, nekazalturismo elkarteak, nekazaritza sindikatuak, erretirodunen elkarteak, emakume elkarteak, eskolak eta ikastetxeak, ureztatzaileen elkarteak, nekazaritza kamerak, administrazio batzarrak eta udalak.

Hauek dira LGEek erdietsi beharreko helburu nagusienak:

- Euskadiko nekazaritzaren eta landa ingurune osoaren funtzioaniztasuna eta iraunkortasuna bermatu eta sustatzea ekonomia, gizarte, ingurugiro eta kultur alderdietan, nola eta Euskadiko nekazaritzaren egoera eta ezaugarrietara egokitutako eredua diseinatzuz, landa eremuak despopolatu eta lagatzeko prozesuak eragotziz, eta landa eta hiri inguruen arteko elkarreragina diskriminazio positiboaren bitartez bultzatuz.
- Landa ingurunearen berezko ezaugarri nagusiei eustea, landa ingurunea nekazaritzako elikagaien sektoreko produkzio eta eraldakuntzaren inguruan egituratzea, hori guztia oinarri ekonomikoa dibertsifikatzearekin bateragarri eginez.
- Nekazaritzak lehiatzeko duen gaitasunaren hobekuntza sustatzea, ingurune fisikoaren ezaugarriak eta nekazariak betetzen duten funtzio sozial garrantzitsua kontutan harturik, familia ustategia oinarritzat harturik, asoziazionismo eta kooperatibismoaren bidez artikulaturik, betiere merkatuari —euskal kontsumitzaileei kalitatezko elikagaien bidez on eginez—, ingurugiroa babesteari eta nekazaritzako elikagaien kalitatea eusteari begira.
- Landa inguruetako enpresen eta ekonomia egituren lehiakortasuna areagotzea, arreta berezia jarritz nekazaritzako elikagaien enpresetan, nekazalturismokoetan, landa turismokoetan, nekazaritza ekologikokoetan eta landa ingurunean garapen endogenoko proiektuei ekiten dien beste edozein enpresatan, horiek merkatuaren eta lehiaren joeretara egokitzea bultzatuz, prozesu hori landa inguruak betetzen dituen mota guztietako funtzio eta zerbitzuekin uztartuz. Horren guztiaren helburu nagusia izango da enplegua mantendu eta sortzea landa inguruko biztanleen onerako.
- Landa ingurunearen garapenean eragina duten administrazio eta herri erakundearen arau eta jarduketak integratzea, disfuntzioak eta koordinazio falta eragozteko, eta tresnen koherentzia hobea, esku-hartzearen eraginkortasun handiagoa eta landa eta hiri inguruen arteko elkarreragina bultzatzea.

- Landa eremuen garapenaren protagonismoari eustea, bai biztanlerian, bai bertako erakundeetan; asoziazionismoa bultzatzea, eta emakumeek eta gazteek prozesu ekonomiko eta sozialetan parte hartzeko erraztasunak ematea.
- Landa inguruetako natura, historia, kultura eta hizkuntza ondarea berreskuratu, artatu, garatu eta zabaltzea.
- Lurraldearen antolamendua hobetzea, espazioaren erabilera arrazoizkoago eta orekatuagoa bultzatuz.
- Landa ingurunearen balioak aintzat hartzen dituen eta landa ingurunearen garapenerako neurri egokiak ezartzeko bidea ematen duen kultura soziala bultzatzea.

LGEen egitura funtzionala hainbat funtzionamendu organok osatzen dute. Irabazi asmorik gabeko elkarteak direnez, otsailaren 12ko 3/1988 Legeak, ekainaren 22ko 7/2007 Legearen bidez aldatua izan zenak arautzen duen egiturari eusten die: Batzar Orokorra eta Zuzendaritza Batzordea.

Hauek dira LGEek garatzen dituzten jarduera nagusienak:

- Ekonomia eta gizarte garapena eragiten duten proiektuak sustatzea, erraztea eta bultzatzea landa eremuetan; zehatzago esanda, Landa Garapenerako Eskualdeetako Programak (aurrerantzean, LGEP) prestatzen eta haiek amaitu ondorengo balorazioetan parte hartzea.
- Sektoreetako helburu zehatzak bultzatzea eta zabaltzea.
- LGEPetako jarduketa lerroak eta/edo proiektuak bultzatzea, gauzatzea edo erraztea.
- Urteko kudeaketa planen prestaketa, jarraipena eta balorazioa egitea.
- Proiektuak biltzea, betiere LGEPekin eta urteko kudeaketa planekin bat baldin badatoz, eta aholkularitza, zuzendaritza eta bitartekaritza proiektuen antolaketan eta finantzaketan.
- Pertsona eta entitate sustatzaileentzako aholkularitza, zuzendaritza eta laguntza erakundeetatik urteko kudeaketa planetako proiektuentzat eta jarduketentzat egon litezkeen laguntzen inguruan.
- Ekintzailatza sustatzea eta zuzentzea.
- Aholkularitza ematea landa garapenaren arloan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta foru aldundietako sail edo departamentuen laguntza deialdien inguruan, proiektua nola gorpuztu, laguntza lerroetan nola txertatu eta administrazio kontuak nola eramán.
 - Proiektua gorpuzten ari den fasean: landa garapenerako laguntza lerroak definitzea eta haietan txertatzea.
 - Eskatera aurkezteko fasean: eskakizunak betetzea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertzea eta prestatzea.
 - Laguntza emango balitz, haren jarraipen fasean: subentzioaren baldintzak betetzea (gauzatze epeak betetzea, egon litezkeen luzapen eskaerak egitea, proiektuari egin lekizkiokeen aldaketak jakinaraztea...).

- Ziurtatze fasean: entitate onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertzea, ziurtatu aurreko frogagiritarako.
- Biziki parte hartzea lurralde mahaian eta egon litezkeen beste topagune batzuetan, horiek landa garapeneko Legean aurreikusten diren helburuak betetzea errazten badute betiere, eta jardunaldiak, ekitaldiak eta mintegiak antolatzea, landa garapenaren inguruko gaien berri emateko.
- Genero ikuspegia bere jardueretan txertatzea.
- Beste antzeko entitateekin esperientziak trukatzea eta jarduketa lerroak elkarrekin bilatzea.

LGE guztiek beren kudeaketa tekniko-ekonomikoaz arduratzen den lantalde teknikoa dute.

HAZI FUNDAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren entitate instrumentala da. Bere eginkizuna da elikagaien balio katearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna bultzatzeko proiektu estrategikoak koordinatzea eta ahalbidetzea, eta baita Euskadiko landa eta itsasertz eremuak dinamizatzea ere.

Bere misioa da entitate instrumental baliagarria, efikaza eta gai dena izatea, bere bezero nagusiari, hau da, Eusko Jaurlaritzari balio erantsia emateko. Tresna bat da, nekazaritzako elikagaien sektorearen zerbitzura dagoena, landa eta itsasertz eremuen eboluzio jasangarrian, pertsonen profesionalizazioan eta produktuen kalitatean laguntzeko.

Bere misioa betetzeko, hainbat baliabide ditu, baliabide teknikoak eta ekonomikoak eta giza baliabideak, eta, horiei guztiei esker,

- Euskadiko landa eta itsasertz eremuen, elikagaien eta egurraren balio katea indartzeko balio erantsia eragiten dituen zerbitzuak ematen ditu.
- Lankidetzaz sortzen du zerbitzu guztietan, kolaboratzaileen eta aliantzen sare baten bidez.
- Ezagutza eta informazio sistema espezializatuak sortzen ditu katearen eta ingurunearen zerbitzura.
- Soluzio eta zerbitzu berritzaileak ematen ditu.
- LGEekin elkarlanean jarduten da, plangintza tresnak prestatzen eta martxan jartzen.
- Antena lanak egiten ditu Europako eta nazioarteko testuinguruei begira.

1.10 HARREMAN MOTAK ALDE INTERESDUNEKIN ETA TOKI, ERREGIO ETA NAZIO AGINTARIEKIN

LGEak eta HAZI Fundazioa funtsezko agenteak dira, kontuan izan beharrekoak, Euskadiko landa eremuen garapenari buruz egiten den edozein planteamenduren aurrean. Agente bakoitzak jardun maila desberdina dauka; baina, aldi berean, osagarria. Agenteen laguntza oso sinergia interesgarriak sortzen ari da, guztien helburu den Autonomia Erkidegoko landa eremuen garapeneko proiektuekin aurrera egiteko. Horregatik da egokia jarraitzea Mendineten babesean egiten den sare lanaren eskemari eutsiz.

Gainera, landa garapenari buruzko ekainaren 30eko 7/2022 Legeak xedatzen duen bezala, tokiko ekintza talde hautatua etorkizuneko Landa Garapenerako Euskal Sareko kide izango da. Sare horretan egongo dira Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, Eudel, Acoa-AKE, Koadrilak, Lurralde, LGEak, erreferentziazko lurralde eta sektoreko erakundeak eta Landa Garapenerako Eskualde Programak garatzen inplikaturik dauden agenteak.

Mendineten jarduketak bat egingo dute Landa Garapenerako Eskualde Programekin eta Lurralde Garapenerako Programekin, guztiak aipatutako 7/2022 Legean aipatzen direnak, eta jarduketa horiek ahalbidetuko dute Mendineten Estrategia hedatzea eta, hala, beste agente batzuek landa eremuetarako diseinatutako beste politika eta estrategia batzuk indartzea eta osatzea.

Gaur egun, Mendinet ELGS Espainiako Landa Garapenerako Sareko Zuzendaritza Batzordeko kide da. Sare lan handi honi esker, lankidetzazko proiektu interesgarriak abian jarri ahal izan dira Estatu osoko tokiko ekintza talde askoren partaidetzarekin. Azpimarratu behar da 2023ko apirilean ELGS Europako TETen ordezkari izendatu zuela NPBaren (EU CAP Network) Europako Sareko Zuzendaritza Batzordeak.

Sare lanari esker, gainera, Mendinetek hainbat forotan parte hartu du, hala nola Landa Sare Nazionalean, Europe sarean eta FNBE Familia Nekazaritzako Batzorde Erregionalean, eta azterlan bisitak ere egin ditu Estatuko beste TETetara eta Europar Batasuneko beste hainbat herrialdetara.

Estrategia honen babesean inplementatutako ekimenen bidez lortutako emaitzak eta ikasitakoa Mendinetek parte hartzen duen sareetan ezagutzera emango dira, landa garapenerako jardunbide egokiak ezagutu eta estrategiei buruzko ezagutza handiagoa izan dadin.

2 TOKIKO GARAPENERAKO ESTRATEGIA

2.1 ESKU HARTZEKO LURRALDEA

2.1.1 Jarduera eremu geografikoa eta eraginpeko populazioa.

Estrategia hau taldeen hautaketarako deialdian identifikatutako eta jasotako lurralde osoan implementatuko da: Euskadiren lurraldearen %89,1 hartuko du eta populazioaren %11,9ari eragingo dio (261.066 biztanle).

III. eranskina: udalerrien zerrenda

2.1.2 Hautatutako eremu geografikoaren justifikazioa.

Mendinetek hautatutako lurraldea aztertu du eta, Estrategia honen bidez, taldeen hautaketarako deialdian azaltzen diren eremu guztiak hartuko ditu.

Kontuan hartuta dokumentu honetako 1. atalean aipatu diren Mendineten ezaugarriak, Mendinetek identifikatutako lurralde osoa bere gain hartzeko behar diren baliabideak ditu, Mendineteko bazkide diren entitateekin egiten duen sare lanari esker.

Landa eremuen ezaugarriak aintzat hartu eta hainbat laguntza neurri, animazio jarduera eta lankidetzak proiektu diseinatu dira. Horiek guztiak aurreko puntuan aipatutako eranskinean agertzen diren eremuan garatuko dira.

Mendinet Estrategiaren bidez nahi da EAEko LEADER eremuan jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea eta sortzea, eremu horretako garapena jasagarria izaten eta populazioari eta zerbitzuei eusten laguntzeko.

2.1.3 Mapa xehea.

IV. eranskina: Euskadiko landa eremuen ezaugarrien mapa "jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa".

2.2 DEFINIZIOAK

- **Artisautza:** eskulana oinarri duen jarduera ekonomikoa, makineriarik eta automatizaziorik apenas edo batere erabili gabe. Output bereizgarriak ditu.
- **Kolektibo kalteberak:**
 - Luzaroko langabeak (bi urte baino gehiago), gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan (DSBEaren titularrez gain).
 - 18 urtez goiko eta 30 urtez beheko gazteak, adingabeak babesteko erakundeetatik etorritakoak.
 - Droga mendekotasun arazoak edo beste nahasmendu adikzio batzuk eduki eta errehabilitazio edo gizarteratze prozesuan dauden pertsonak.
 - Espetxeetan daudenak, betiere espetxeko egoera dela-eta lan bat eduki badezakete eta lan harremana ez bada sartzen uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuko 1. artikulua arautzen duen lan harreman bereziaren aplikazio eremuan, eta baldintzapeko askatasunean daudenak eta preso ohiak.
 - Adin gabeko pertsona barneratuak, baldin eta adin gabekoen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio eremuan sartzen badira eta beren egoera dela-eta lan bat eduki badezakete eta lan harremana ez bada sartzen aipatutako legearen Erregelamenduko, hau da, uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuko 53.4 artikulua arautzen duen lan harreman bereziaren aplikazio eremuan, eta baldintzapeko askatasunean daudenak eta barneratu ohiak.
 - Ostatu alternatiboetatik etorritako pertsonak, betiere ostatu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko agintari eskudunek baimendutakoak badira.
 - Desgaitasunak dituzten pertsonak.
 - Okupaziorik gabeko emakumeak edo gizonak buru dituzten guraso bakarreko edo guraso bakarreko etxekoen unitateetan integratutako pertsonak.
 - Genero indarkeriaren emakume biktimak.
- **Norgehiagoka:** 1/1997 Legegintzako Dekretuko 51.4 artikulua arabera, norgehiagoka prozedura bat da, aurkeztutako eskaerak alderatu eta laguntzak edo subentzioak emateko erabiltzen dena. Eskaeren zerrenda bat egiten da, prozeduraren arauetan aurrez finkatutako balorazio kriterioak kontuan hartuz, eta laguntzak edo subentzioak adjudikatzen zaizkie aipatutako kriterioak aplikatuta balorazio onena lortu duten eskaerei bakarrik.
- **Tokiko energia komunitatea:** bi figura daude, energia berriztagarriko komunitatea bata eta hiritarren energia komunitatea bestea, sektore elektrikoari buruzko Legeak (SEL) xedatzen duen moduan, ekainaren 28ko 5/2023 errege lege-dekretuak aldatu eta gero (6.j eta 6.k. art.).
- **Enpresa:** Europar Batasuneko Batzordeak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituneko 107 eta 108. artikuluen aplikazioari buruz 2013ko abenduaren 18an onartutako Erregelamenduak definitzen duen moduan (minimis laguntzak) enpresatzat hartu behar da jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen edozein entitate, edozein dela ere haren izaera juridikoa eta

finantzatzeko modua.

- **Kultura eta sormen industria:** Kultura eta sormen azpisektoreak dira arte eszenikoak, ikusmen arteak, ikus-entzunezkoen arteak, edizioa eta baliabide inprimatuak, musika, kultura ondarea, arkitektura, artisautza, eduki digitalak, diseinua, gastronomia, hizkuntzaren industriak, moda, publizitatea eta marketina, eta bideo jokoak.
- **Minimis laguntzen gehieneko muga:** Muga hori agertzen da Europar Batasuneko **Batzordearen** abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan, hain zuzen ere Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Ituneko 107 eta 108 artikulua minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien zehazten duen Erregelamenduan. Erregelamendua 2023ko abenduaren 15ean argitaratu zen.
Erregelamenduak xedatzen duenez, Estatu kide batek enpresa bakar bati eman diezaiokeen minimis laguntza, guztira, ez da 300.000 euro baino gehiago izango hiru ekitaldi fiskaletan zehar (laguntza ematen den ekitaldia eta aurreko bi ekitaldi fiskalak).
Minimis laguntzak emantzat joko dira enpresari aplika dakioken araubidearen arabera laguntza jasotzeko eskubidea duela aitortzen zaion unean, edozein dela ere enpresari minimis laguntza ordaintzeko data.
- **Enpresa ertaina:** ETEen kategorian, enpresa ertainak dira 250 pertsonako edo gutxiagoko plantilla dutenak eta urteko negozio bolumen garbian 50 milioi euro gainditzen ez dutenak.
- **Mikroenpresa:** ETEen kategorian, mikroenpresak dira 10 pertsona baino gutxiagoko plantilla dutenak eta urteko negozio bolumen garbian 900.000 euro gainditzen ez dituztenak.
- **Zerbitzu anitzekoa:** zerbitzu anitzeko enpresak dira populazioari hainbat zerbitzu ematen dizkietenak, ez jarduera jakin bakar bat.
- **Zuzenbide publikoko organismoak:** zuzenbide publikoko entitateek administrazio publikoekiko lotura edo mendekotasuna dute eta nortasun juridiko propioa dute, beren xedea administrazioari dagozkion jarduerak gauzatzea edo kudeatzea da, betiere ordenamendu juridiko pribatuaren arabera jardunez halako entitateak sortzeko onartzen diren legeen arabera.
- **Enpresa txikiak:** ETEen kategorian, enpresa txikiak dira 50 pertsona baino gutxiagoko plantilla dutenak eta urteko negozio bolumen garbian 10 milioi euro gainditzen ez dituztenak.
- **Nekazaritza produktua:** produktu primarioa, nekazaritzako jarduera batetik sortua.
- **Nekazaritza elikagaiak:** nekazaritzako produktua, beste elikagai produktu bihurtzen dena.
- **Bertako produktua:** EAEn ekoizitako eta/edo prestatutako nekazaritzako elikagaiak, betiere ekoizle txikiak badira eta/edo nagusiki EAEkoa den lehengaiak prestatutakoa bada.
- **Goi mailako sukaldaritzako jatetxeak:** negozio gastronomikoak. Halako negozioak zuzentzen dituzten pertsonak tituludunak dira, eta titulua Basque Culinary Centeren edo antzeko beste ikastetxe batzuetan lortua dute, edo

ziurtagiriak jasota dute edo lortzeko bidean daude aitorten gastronomikoa ematen duten entitateen partetik, hala nola Gastrobikain beka, Repsol gida, Michelin gida eta antzekoak.

- **Populazioarentzat ezinbestekoak diren zerbitzuak:** halako zerbitzuen jarduera izaten da behar-beharrezko elikagaiak, edariak, produktuak eta ondasunak saltzea, eta baita ere farmazia establezimenduak, osasun zerbitzuak, albaitaritza zentroak edo klinikak, optikak, produktu ortopedikoak, higiene produktuak, prentsa eta papera, ibilgailuentzako erregaia, ekipo teknologikoak eta telekomunikazioak, ile apaindegia eta edergintza, konponketa tailerrak eta eraikuntzako gremioak.
- **Lehen sektorea:** nekazaritzako jarduerak (nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza) eta, egonez gero, arrantzako jarduerak.


2.3 ABIAPUNTUAREN DIAGNOSTIKOA

2.3.1 EAEko landa eremuen diagnostiko orokorra

Jarraian, EAEko landa eremuen diagnostiko orokorra azaltzen da, kontuan hartuta **tokiko testuingurua, testuinguru sozio-ekonomikoa eta ingurumen testuingurua.**

2.3.1.1 Tokiko testuingurua (landa eremuetako populazioa)

1. Hau da esku hartuko den eremuetako 2021eko **egoera demografikoa**, Eustat-en arabera:



1. irudia – Azterketa demografikoa

Grafikoetan ikus daitekeenez, zenbat eta kalteberatasun maila handiagoa egon orduan eta **populazio dentsitate** txikiagoa daukate eremuek. Gainera, gizonezko gehiago bizi da esku hartuko den udalerrietan.

Azpimarratu behar da, baita ere, landa eremuen garapenerako euskal estrategian jasotzen denaren arabera, kalteberatasun maila txikiagoa dagoen eremuetan badira kontuan izan beharreko datu batzuk:

- Populazioa eta jaiotza tasa neurrian hazi dira: 84.369 biztanle zeuden 2001ean eta 95.116, 2018an. Urtean %0,7 hazi da (EAEn %0,3).

- Esku hartuko den udalerrietan bizi den emakume kopurua egonkor mantendu da eta EAEkoa pixka bat txikiagoa da: %48,3 eta %51,5, 2018an.

Populazioaren **zahartze tasa** desafio bat da landa eremuetako gizartearentzat. Arazoak dakartza belaunaldien arteko erreleboa egoteko eta populazio aktibo txikia enplegu beharrei erantzuteko.

1. *Taula - Populazioaren zahartze tasen analisisia*

Grado de vulnerabilidad redondeado	Promedio de Envejecimiento 2021	Promedio de Evol. decenal población 2011-2021
1	23,51 %	-0,78 %
2	21,73 %	1,28 %
3	20,85 %	2,58 %
4	20,48 %	3,93 %
Total	21,58 %	1,83 %

EAEEn, populazioaren %22ak 65 urte edo gehiago ditu eta antzeko datua-portzentajea dute esku hartuko den lurraldeko udalerriek.

EUSTATen arabera, 65 urte edo gehiago dituzten pertsonak:

- EAEko populazio osoaren %30a izango dira 2030ean.
- Euskadiko gizartea atzeranzko piramide baterantz doa: populazioa urritzen doa pixkanaka eta mendekotasuna duten pertsonen (0-15 eta 65+) portzentajea nabarmen handitzen doa. Mendekotasun tasa¹ %56,8 zen 2018an eta %66,7 izango da 2030ean.

Bestalde, 2011-2021 urteetan, aipatutako udalerrietako populazioaren eboluzioa positiboa izan da, arreta bereziko eremuetakoarena izan ezik.

Euskadiko gizartea trantsizio demografikoa bizitzen ari da. Aldatzen ari dira familia tradizionalen egiturak, etxeetako pertsona kopurua murriztu egin da (2,4 pertsona) eta egitura berriak sortzen ari dira, hala nola pertsona bakarreko etxebizitzak (%28) eta umerik gabeko familia nuklearrak (%21).


Gaur egun, indibidualizazioa gizarte modernoaren ezaugarri bat da. Batetik, pertsona bakoitzaren egoera sozialak eta ekonomikoak eta lan egoerak eta, bestalde, pertsonak izaten duen berehala ase beharrak gero eta behar handiagoak sortzen dituzte kontsumitzeko, mugitzeko eta esperientzia berriak aurkitzeko eta gero eta aldaketa gehiago egiten dira elikaduran eta bizitza osasuntsua ulertzeko eran; baina, aldi berean, gero eta ahulagoa da komunitate sentimendua. Hala eta guztiz ere, bada nitxo bat zerbitzuak eta produktuak neurrira, beste inon ez bezala, pertsonalizatuta, eskuz eginak, benetakoak... emateko.

Jarduera eta okupazio tasei dagokienez, ondorengo grafikoetan lanpostuak ikus


¹ Populazioa 14 urte bitartekoak eta 65 urtez goikoak, 15-65 urteko populazioan banatua.

daitezke lurralde historikoak eta kalteberatasun mailak kontuan hartuta.


Puestos trabajo 2020 por TERRITORIO y Grado de vulnerabilidad redondeado




Personas Empleadas 2021 por TERRITORIO y Grado de vulnerabilidad redondeado



Desglose población hombres según su situación laboral



Desglose población mujeres según su situación laboral



2. irudia – Enpleagarritasunari buruzko datuak

Ikus daitekeenez, eremuan zenbat eta kalteberatasun maila txikiagoa izan orduan eta lanpostu gehiago daude eta pertsona enplegatuen kopurua ere handiagoa da. Lan egoerari dagokionez, beste inon baino langabe tasa handiagoak daude eta nabarmentzekoa da langabetuen pertsonen kopurua txikia da.

Ezin dugu ahaztu eremu hauetan sortzen den enplegu mota ez datorrela guztiz bat eremu hauetan bizi diren pertsonen enpleguekin. Pertsona horietako asko eta asko hiriguneetara joaten dira lanera. Telelan egiteko aukerari esker, pertsonen errazago egiten zaie landa eremuetan bizitzen geratzea eta, ondorioz, populazio okupatuaren tasa igo egingo da.

- Emakumeei dagokienez**, 2020an egin zen “Emakumeak euskal landa eremuan” ikerketaren arabera, Euskadiko landa eremuetako eta, bereziki, lehen sektoreko emakumeen egoerak eta eboluzioak ezaugarri hauek ditu:

Inkesta honetarako aztergai den populazioa 15 urtez goiko emakumeek osatzen dute, landa udalerrri kalifikazioa duten udalerrietako emakumeek alegia, eta hiru ezaugarri hauek dituzte:

- populazioa (< 2.000 biztanle).
- Populazio dentsitatea (< 100 biztanle/km)
- Lehen sektorearen garrantzia (> %3ko udalerrriko BPGan).

- Landa eremuetako emakumeen ikasketa mailari dagokionez, apenas dagoen alderik EAEko tasekin alderatuta, dena den, landa eremuetan ikasketa maila handiagoak daude. Zehatzago esanda, lanbide ikasketak dituzten landa eremuetako emakumeen portzentajea EAEkoena baino handiagoa da (%15 eta %18). Gauza bera gertatzen da unibertsitate ikasketei erreparatuz gero (%28 eta %25).
- Enpleguari dagokionez, landa eremuetako emakumeen egoerak hobera egin du 2012koarekin alderatuta. Gaur egun, okupazio tasa %46koa da eta langabezia tasa %13koa. Dena den, ez dira 2008ko tasetaraino iritsi (%52ko okupazio tasa).
 - Bi tasak (okupazioarena eta langabeziarena) EAEkoen antzekoak dira (aldeak portzentaje puntu batekoa); jarduera tasa, berriz, lau puntu handiagoa da landa eremuetan.

Landa eremuetako emakumeek duten enplegu mota ohikoena besteren konturakoa da (populazio okupatuaren %75). Emakume enpresa buruek eta autonomoek nabarmen egin dute gora: 2012an %15 ziren eta 2016an %23. Eta hori gertatu da, besteak beste, ekintzailatza bultzatu izan delako.

Sektorez sektore:


- Zerbitzuen sektorean, emakume langileen %75a dabil, EAEko datua (%87) baino txikiagoa.
- Industriaren sektorean, landa eremuetako emakumeen %9 inguru ari da lanean eta, eraikuntzan, %1,3. Antzeko portzentajeak daude EAEn.
- Nekazaritza sektoreko lan nitxoan landa eremuetako emakumeen %8 baino gehiago besteren konturako lanpostuetan ari dira.

Gero eta emakume gehiago ari dira lan merkatuan sartzen eta, ondorioz, genero arrakala murrizten ari da, nahiz eta EAEko berdintasun indizea oraindik %69,3koa izan. Arlo hauetan dago berdintasuna: osasuna, dirua eta enplegua.

3. **Zerbitzuei, ekipamenduei, azpiegiturei eta bizi kalitateari** dagokienez, esku hartuko den eremuetako biztanleei oinarritzko zerbitzu publikoak falta zaizkie, zuzkidurak eta ekipamenduak hain zuzen. Horiek dira oinarritzko adierazleak bizi kalitatea eta gizarte kohesioa neurtzeko. Ezinbestekoa da lurralde antolaketa egokia izatea, zerbitzuak eta ekipamenduak ez daitezen udalerrri handietan kontzentratu, landa izaera handiagoa duten eremuen kaltetan.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, gradu bateko eta biko eremu kalteberak urrunago daude 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietatik Araban eta Bizkaian Gipuzkoan baino, Gipuzkoan distantzia horiek orekatuagoak dira.

Promedio de Distancia > 10.000 por TERRITORIO y Grado de vulnerabilidad redondeado



3. irudia - Distantziei buruzko datuak, lurraldez lurralde

Herrigune handiagoekiko distantziaren arazoari beste bat gehitu behar zaio: ez dago errotuta kirol ekipamenduak eta zerbitzuak eta ekipamendu eta zerbitzu soziokulturalak udalen artean batera kudeatzeko kulturarik. Halako kultura egongo balitz, egungo eta etorkizuneko baliabideak modu arrazionalagoan kudeatuko lirateke; gainera, herri desberdinetako pertsonen arteko hartu-eman indartuko litzateke eta dinamika berriak sortuko lirateke. Horrela, eskualdearen landa izaera indartu egingo litzateke eta aukera berriak sortuko lirateke.

Bestalde, EAEko hazkunde ekonomikoa mesede egin die landa eremuei. Ekipamendu eta zerbitzu gehiago dituzte, IKT azpiegiturak iritsi zaizkie, landa turismoa indartu egin da eta inbertsioak egin dira ekipamendu handietan eta gizarte prestazioetan. Horri guztiari esker, nabarmen hobetu da landa eremuetako gizon-emakumeen gizarte kohesioa eta bizi kalitatea.

Ez da ahaztu behar NPEPE 2027 dokumentuan hainbat tresna diseinatu direla proiektuak finantzatzen laguntzeko. Helburua, azken baten, da landa eremuetako zerbitzuak, ekipamenduak eta azpiegiturak hobetzea eta, hala, eremu horietako biztanleen bizi kalitatea ere bai. Tresna horiek dira EREIN izeneko laguntzak.

2.3.1.2 Testuinguru sozioekonomikoa

1. Sektore ekonomikoak


Euskadiko landa eremuak definitzen dituzten ezaugarrietako bat da lehen sektoreak duen nagusitasuna. Hor sartzen dira nekazaritza jarduerak (nekazaritza, abeltzaintza eta antzekoak) eta, egonez gero, arrantzako jarduerak, eta baita horiekin lotuta dauden beste jarduera hainbat ere, hala nola basozaintza eta baso aprobetxamenduak, ehiza eta kirol arrantza; ezin dira ahaztu elikagaien prestakuntza ekoizpen primarioak baliatuz. Sektorearen beharrak direla eta, sektore gehiena Estrategia honen bidez esku hartuko den eremuetan dago

kokatua.

EAEko landa eremuetako ezaugarrietako bat da, baita ere, lehen sektoreak duen pisua, erregiokoaren aldean oso handia (%11ko BEGa %1eko BEGaren aldean EAE guztian, 2016an), baina baita industria sektoreak duen pisua ere (bareziki, nekazarritzako elikagaien industriak). Ondorengo tauletan, 2020an eginiko Nekazaritza Erroldatik ustiategiei buruz ateratako oinarritzko hainbat datu erakusten dira.

EUSKADI: VISIÓN GENERAL

Análisis Censo Agrario 2020



4. irudia – Landa eremuetako ustiatagien ikuspegi orokorra

EUSKADI: TITULARIDAD Y JEFATURA DE LA EXPLOTACIÓN


Análisis Censo Agrario 2020



5. irudia – Ustiategien titulartasuna eta nagusitasuna

EUSKADI: ANÁLISIS SECTOR AGRÍCOLA


Análisis Censo Agrario 2020



6. irudia – Nekazaritza sektorearen azterketa

EUSKADI: ANÁLISIS SECTOR GANADERO

Análisis Censo Agrario 2020



7. irudia – Abeltzaintza sektorearen azterketa

Lurraldeen artean alde handiak daude.

- Araba. EAE guztiko nekazaritzako azken ekoizpenaren ia %50a dago. Nekazaritzako azken ekoizpen gehiena dago (nekazaritzako azken ekoizpenaren %70a); beste lurraldeetan, berriz, %40a da. Mahastizaintza sektorea da lurraldeko handiena, nekazaritzako azken ekoizpenaren %40a.
- Bizkaia. Nekazaritza eta abeltzaintzako azken ekoizpenek azken ekoizpen osoaren %41a sortzen dute. Aipatzekoak dira barazkiak (%27,5), behi haragia (%12,7) eta intsinis pinu egurra (%10,9).
- Gipuzkoa. Hiru lurraldeetako abeltzaintzako azken ekoizpen handiena dago Gipuzkoan: %46,3. Behi esnea eta intsinis pinu egurra dira ekoizpen aipagarrienak (azken ekoizpenaren %18a eta %14a, hurrenez hurren).

Hazkunde demografiko orokorrak nekazaritzako produktuen eskaria handiarazi egingo du eta, 2050ean, %50 handiagoa izango da. Hori desafio bat izango da nekazaritzako elikagaien balio katearentzat eta ekoizpen eredu tradizionalentzat; dudak eragiten ditu gaur egungo eredu ekonomikoa jasagarria izango ote den edo ez.

Horrez gain, klima aldaketa ere hor dago. Horrek guztiak ekoizpen eta kontsumo eredu berriak bultzatzen ditu, eredu zirkularragoak eta ez hain intentsiboak, eta eskema berriak eskatzen ditu gobernantzari, lankidetzari eta herritarren parte-hartzeari dagokienez.

Era berean, **nekazaritzako elikagaien industriak** dinamizazio lan garrantzitsua egiten du gaur egun lehen sektorean eta bi sektoreen arteko interdependentzia

maila handia da. Industriaren Balio Erantsi Gordina (BEGd) 899 milioi eurokoa izan zen, hau da, Euskadiko industriaren BEGd osoaren %6,4a. Gizarteak gero eta hobeto ikusia dauka landa eremuetako populazioa, gero eta gehiago baloratzen ditu landa eremuetan ekoiztutako elikagaiak.

Jarduerari erreparatuta, 2017an 1.492 establezimendu zeuden IABri lotuta EAEn; horietatik %35 Araban, %30 Bizkaian eta %35 Gipuzkoan. Establezimendu kopuru handieneko azpisektorea edariena da; hor sartzen dira Arabako Errioxako upeltegiak, Txakolinaren izendapena duten upeltegiak, sagardotegiak, garagardoaren ekoizpena eta destilatuak, besteak beste. Aipagarria da upeltegien kopurua, 452 guztira (horietatik %80 Araban); sagardotegiak, berriz, 78 dira. Garagardogintzaren sektorea indarra hartzen ari da eta dagoeneko 23 establezimendu daude EAEn.

Landa eremuetan kontuan eduki beharreko beste jarduera **turismoa** da. Turismo jarduera gero eta indar handiagoa hartzen ari da landa eremuen garapen sozioekonomikorako estrategia gisa EAEn.

Azken urteotan landa turismoari bultzada handia eman zaio, ikusi besterik ez dago abian jarri diren nekazalturismoak eta landa etxeak. Hala, 2011 eta 2018 bitartean gora egin dute establezimendu kopuruak eta eskaintzen diren plazak, %2,5 eta %4,2, hurrenez hurren. Sektore honen ekarpena faktore garrantzitsua da landa eremuen hazkunde ekonomikorako, sortutako enplegua kontuan hartuta. Gaur egun, 468 pertsona ari dira lanean sektoreko establezimenduetan.

Gainera, landa eremuetako hirigintza garapenaren ondorioz zerbitzuen sektorea garatu da (denda berriak, landa ostatuak, ostalaritza...) eta ekintzaile kopurua handitu egin da.

Ez da ahaztu behar **teknologia eta banda zabala** faktore garrantzitsuak direla garapenerako eta ekoizpenerako, aldaketa ekonomiko eta sozialerako motorrak alegia. Informazio, komunikazio eta ekoizpen teknologiak erraz eskuratzeko eta erabiltzeko aukera egonez gero, enpresek eta partikularrek aukera berriak izango dituzte landa eremuan bizitzen jartzeko; horrez gain, lan eredu deszentralizatuak sortuko dira, eta horiek ere bidea irekitzen die pertsonen LEADER eremuetako udalerrietara bizitzera eta/edo lanera joateko.

Izan ere, Euskadin "Euskadi Smart Country" proiektu estrategikoa garatu da, "Agenda Digital Euskadi 2020" plan estrategikoaren barruan. Proiektuaren bidez nahi da lurralde osoa lotzea azken belaunaldiko banda zabal bidezko konektibitateaz. Horretarako, Eusko Jaurlaritza plan hirukoitz bat ari da hedatzen aldi berean Euskadiren garapen digitalerako. Jarduketa hauek gauzatu nahi dira: batetik, zuntz optikoa Euskadiko 1.700 eraikin publikoetara eramatea eta, bestetik, konektibitate ultralasterra instalatzea industriagune eta enpresagune guztietan

(371 enpresagunetan) eta telekomunikazio konpainiek errentagarritasun eskasa dela-eta inbertitzen ez duten herrigune txiki guztietan. Eredu horiei “eremu zuriak” esaten zaie, guztira 471 dira eta gehienak Arabako landa eremuetan daude.

Proiektu hori dela eta, “Banda Zabal Ultralasterraren Euskal Behatokia” sortu da. Behatokiaren web orria da www.euskadibandazabala.eus eta bertan belaunaldi berriko zuntz optikoaren hedapena Euskadiko udalerri, herrigune eta enpresaguneetan nola doan kontsulta daiteke.


Digitalizazioari eman zaion laguntzari esker, SMART ikuspegia bultzatu da esku hartuko den eremuan eta sektore ekonomikoetan. Sektoreak eta balio kate tradizionalak eraldatu egin dira, bitartekoak ezabatu egin dira eta negozio eta lankidetzaren eredu berriak prestatu dira interesdunen artean.

Atal hau amaitzeko, adierazi behar da digitalizazioari esker gertatu den beste eraldaketa handi bat bioteknologian, material aurreratuetan eta robotikan gertatu dela, besteak beste. Arlo horiek aukera nitxoak dira Estrategiaren bidez esku hartuko den eremurako.

Ondorengo grafikoetan, sektoreetan dauden enpresa kopuruen arteko aldeak ikus daitezke, udalerrien kalteberatasunaren arabera. Grafikoak ordenatuta daude kalteberatasun handiena duen eremutik txikiena duen eremura.

Hala, 1. graduko kalteberatasuna duten udalerrietan, ‘01 sektorea Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza’ sektorean daude enpresa gehien, alde handiarekin gainera.


Empresas por sectores y zonas vulnerables



8. irudia – Enpresak sektoreka 1. eremu kalteberan

Kalteberatasun gradua handitzen doan ahala aipatutako 01 sektorearen pisua txikitzen doa eta '04 sektorea Merkataritza, garraioa eta ostalaritza' sektorea indartzen udalerri horietan.


Empresas por sectores y zonas vulnerables



9. irudia – Enpresak sektoreka 2. eremu kalteberan

Kontuan hartuta 2 eta 3. graduako kalteberatasunen grafikoak, gauzarik aipagarriena da 01 sektorea txikitzen doala eta industria indartzen, baina indartsuena 04 sektorea da.


Empresas por sectores y zonas vulnerables



10. irudia - Enpresak sektoreka 3. eremu kalteberan

Azkenik, argi eta garbi ikusten da 01 sektorea ia desagertu egin dela eta sektore garrantzitsuenak hauek direla: 'Merkataritza, garraioa eta ostalaritza', batetik, eta 'Eraikuntza eta jarduera profesionalak eta lagungarriak', bestetik.

Empresas por sectores y zonas vulnerables



11. irudia - Enpresak sektoreka 4. eremu kalteberan

Enplegua

Aztergai ditugun landa eremuetan, 34.655 **lanpostu** zeuden 2018an, azken 20 urteetan izan den zifra handienetik gertu, hau da, EAEko enplegu guztiaren %3,9a.

‘Landa Garapenerako Euskal Estrategia’ dokumentuan esaten den moduan, enplegua hiriguneetan kontzentratuta dago eta, landa eremuetan, EAE guztiko establezimenduen %5,2a besterik ez dago eta nekazaritzarekin lotutako %42,4, 2018ko datuen arabera. Establezimendua ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko unitatea da, eta unitate horretan jarduera ekonomiko edo sozial bat edo gehiago dago, titular edo enpresa baten ardura pean, leku batean, lokal batean edo elkarrekin lotuta dauden hainbat lokaletan, eta kokaleku topografiko jakin batean. Aipatu behar da enpresa baten pean establezimendu bat edo hainbat ustiatu daitezkeela.

Enplegua sektoreka aztertuz gero, ikusten da EAEn 9.694 lanpostu zeudela lehen sektorean 2016an, eta horietatik ia %85 nekazaritza, basozaintza eta abeltzaintza azpisektoreetan. Datuek erakusten dute asko jaitsi dela enplegua azpisektore honetan, hain zuzen ere %40a jaitsi da 10 urtean (1996-2016). Aztergai ditugun landa eremuetako udalerri kalteberenetan, biztanleen %15 inguruk lehen sektorean egiten du lan; aldiz, EAE guztian %1ek.

Gogoratu behar da landa eremuetan sortzen den enplegu mota ez datorrela guztiz bat landa eremuetan bizi diren pertsonen lanpostuekin; landa eremuetako jendea, normalean, hiriguneetara joaten da lanera. Landa eremuetako langabezia tasa ez da EAE osoko langabezia tasa bezain handia. Zehatzago esanda, landa eremuetako udalerrietan %11,5eko langabezia tasa zegoen 2016an eta lurralde osoan, berriz, %15,4koa. Hala eta guztiz ere, pertsona langabetuen profila berdintsua da bi eremuetan: gazteak eta emakumeak jarraitzen dute izaten enplegu gutxieneko kolektiboak, azken urteotan eginiko aurrerapenak aurrerapen.

Desberdintasuna

Pobrezia areagotu egin zen EAEn krisi garaian eta oraindik ez dira krisi aurreko mailak berreskuratu, nahiz eta berdintasun adierazleek azken urteotan hobera egin.

Euskadiko etxeetako errenta maila errekuaratu egin zen 2014-2016 urteetan eta, hari esker, murriztu egin zen pobrezia arriskua eta hobetu benetako ongizatea, baina hobekuntza haiek guztiek ez ziren nahikoa izan 2008-2014 urteetako atzerakada konpentsatzeko.

Lurraldeka, Arabako kasua bereziki negatiboa da bi faktorerengatik: pobrezia erreala beste inon baino askoz gehiago handitu zen 2008-2014 urteetan eta joera negatiboak iraun egin zuen 2014-2016 urteetan, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala.

Desberdintasunari dagokionez, ez daude alde handiak landa eremuen eta EAE osoaren artean, pertsonen errenta kontuan hartuta. Batean zein bestean, 20.000 euro ingurukoa zen 2016an.

Dena den, bazen desberdintasunik errentaren banaketari dagokionez emakumeen eta gizonen artean. EAE osoa hartuta, gizonak 25.000 euroko errenta baino handiagoa izan zuten eta emakumeek 15.000 euro ingurukoa.

2.3.1.3 Ingurumen testuingurua:

Nekazaritzak funtsezko zeregina betetzen Euskadiko ingurune naturala eta paisaia tradizionala zaintzerakoan; landa eremuetako populazioari eta espezieen eta barietateen aberastasun genetikoari eusten laguntzen du. Gainera, ingurune naturalean duen eragina begien bistakoa da: nekazaritza eta basozaintza sektoreek lurraldearen %85a hartzen dute (%30 nekazaritza azalera erabilgarria eta %55 baso azalera).

Nekazaritza sektoreak bi eratan eragiten du klima aldaketan. Alde batetik, N₂O, CH₄ eta CO₂ isurtzen ditu, ongarri nitrogenatuak eta nekazaritzako makineria erabiltzen dituelako eta ganadua ibiltzen duelako. Beste aldetik, ordea, klima aldaketari aurre egiteko tresnak baditu: emisioak murrizten ari da, energia berriztagarriak ekoizten ditu eta nekazaritzako lursailak karbonoaren hustubideak dira.

Aldi berean, klima aldaketaren ondorioak jasan ditzakeen sektorea da: ura gero eta gutxiago du erabiltzeko moduan, uztak gero eta azkarrago hazten dira, uztentzako azalera egoki gutxiago du eta higadura eta lehorten arriskuak handitu egin zaizkio.

Prozesu teknologikoaren eta nekazaritzak eta basozaintzak produktibitatean eta merkatuan gero eta gehiago aurrera egin izanaren ondorioz, areagotu egin dira

presioak eta eraginak ingurumenean. Nolanahi ere, azken urteotan lehen urratsak eman dira nekazaritza jasangarriago baten alde egiteko bidean, Nekazaritza Politika Erkidearen babesean.

Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenean animalia eta landare barietate handia erabiltzen da. Guztira, 16 arraza autoktono daude EAEn. Landare barietateei dagokionez, aipatzekoak dira barietate tradizionalak: Gernikako piperra, Tolosa eta Gernikako babarrunak eta Arabako babarrun nabarra. Horiez gain, tokian tokiko landare barietateak daude, bai baratzezaintzan bai frutagintzan; esaterako, sagardotarako sagarrak.

Azpimarratu behar da ekosistemek duten garrantzia (nekazaritzakoek, basoetakoek...) biodibertsitateari eusterakoan eta Natura 2000 Sarea antolatzerakoan. Sarea guztientzako esparrua da, basa fauna eta flora eta Europar Batasunaren intereseko habitatak zaintzeko garaian. Gaur egun, EAEko azaleraren %20,9a sare horretan dago, hau da, 150.880 ha.

Hainbat espazio mota daude Sarean, hala nola ibai zatiak, itsasertzak edo estuarioak eta barneko hezeguneak. Dena den, espazio mota ugarienak espazio menditarrak dira, mendilerro txikiak.

Horietan, basozaintza erabilera eta nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak dira nagusi, batez ere larreak eta sastrakadiak, horietan azienda ibiltzen delarik erregimen estentsiboan. Aldiz, Euskadiko Natura Sarean oso gutxi dira gainerako nekazaritza erabilerak, soroak edo larre lehorrak esaterako; halakoak gehiago dira penintsulako Mediterraneo aldeko eremuetako Natura 2000 Sarean.

EAEn, autonomia erkidegoko legeriak, parke naturala figuraren bidez, eta Natura 2000 Sareak babesten dituzten naturagune babestuek (NB) berberak dira. Hala, EAEko parke natural guztiak Natura 2000 Sarean daude.

Bestalde, espazio menditar asko eta asko Natura 2000 Sarearen eta 'Herri Onurako Mendiak' (HOM) figuraren bidez babestuta daude aldi berean. Herri onurako mendiak titulartasun publikoko baso sailak dira eta foru aldundietako baso zerbitzuetaoek babesten dituzte. Natura 2000 Sarearen %72,7a HOM moduan katalogatuta dago, eta halako espazioak dira nagusi Natura 2000 sareko espazio menditarretan.

Azken baten, EAEko Natura 2000 Sareko espazio gehienetan hainbat babes figura daude aldi berean eta, beraz, espazioen babesa bermatuta dago, babesa hainbat eremutatik jasotzen dute.

EAEko ingurumenari dagokionez, kontuan izan behar da Garapen Jasangarriko Euskadiko Ingurumen Estrategia 2030 (GJEIE2030) dokumentua. Dokumentu horren bidez lortu nahi diren epe laburrerako programazio denboraldietako helburuak

ingurumen programa esparruetan laburtzen dira.

GJEIE2030 dokumentuak nekazaritzako ingurumen arloko helburu eta konpromiso jakin batzuk ezartzen ditu, EAEn ingurumen arloan lortu eta bete beharreko helburuak eta konpromisoak hain zuzen. Xedea da ingurumen politika egonkorra eta iraunkorra ahalbidetzea, ekimen publikoari eta pribatuari bermea, segurtasuna eta efikazia eskainiko diena. Epe laburrera, konpromisoak ingurumen programa esparruan agertzen dira; dokumentu horrek aukera bat ematen du ekonomia eta gizarte arloetan inplementatutako zenbait politika hobetzeko, portaerazko jarraibide zenbait aldatzeko eta administrazioetatik modu koordinatuan erantzuteko, epe luzerako esparru argi bat edukita.

Baso sistemei dagokienez, EAEko azaleraren %55a basozaintzakoa da, Estatuko portzentajerik handiena eta Europako handienetakoa. Bi baso sistema bereiz daitezke EAEn: basoak berak (azalera zuhaiztuaren %47a) eta baso plantazioak (%53a). Egitura horrek hainbat onura eragiten dizkio ingurumenari; izan ere, basoek eta basoetako lurzoruek eginkizun garrantzitsua dute CO2aren hustubide moduan, karbonoaren lurreko zikloa erregulatzen dute eta baso habitat ugari dituzte, baso fauna aberats eta anitz baten bizileku.

EAEn, hezegune eta estuario dibertsitate handia dago. Horri esker, habitat barietate zabala dago eta, habitat guztietan, balio ekologiko handiko fauna eta flora, aparteko paisaiatz gain.

Azken urteotan, paisaiaren inguruko pertzepzioa aldatu egin da. Lehen, gizakion bizitzako eszenaren atzealde soil bat balitz bezala ikusten zen; gaur egun, aldiz, baliabide moduan ikusten da, ingurumen, kultura, gizarte eta historia ondare bezala, eta baita garapen ekonomikorako baliabide bezala ere. Gero eta gehiago hartzen da aintzat paisaia, gizarteak eskatzen dituen ingurumen balioetako bat bezala ikusten da.

2.3.2 Mendineten balorazio kualitatiboa

Kontuan hartuta aurreko diagnostikoa eta Estrategia prestatzen parte hartu duten agenteen ezaupideak, hiru lurraldeetako landa eremuen egoerari buruzko azterketa kualitatibo bat egin da, Euskadiko landa eremu guztiek dituzten ezaugarriak eta jarduera ekonomikoaren egoera azaltzeko.

Era berean, hiru lurraldeetan gaur egun dauden problematika nagusienak identifikatu dira, landa eremuekin oro har eta jarduera ekonomikoarekin bereziki zerikusia duten problematikak.

Hona hemen informazio hori guztia, labur-labur, ondorengo tauletan:

- **ARABA**

2. taula – Arabako azterketa kualitatiboa

ARABA			
Arabako landa eremu guztietako ezaugarriak	• Populazioa: dentsitate txikia • Herri handiekiko eta hiriburuarekiko mendekotasun handia; jendeak eta talentuak ihes egiten dute. • Lurralde Historikoak kohesio eskasa dauka: elkarteak, lankidetzak eta elkarlana falta dira.		
Agente nagusiak (eragin handiagoei)	• Udalak, administrazio batzarrak, garapen agentziak, sektoreko elkarteak (ABRA, Nekatur, UAGA...), koadrillak, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia.		
Jarduera ekonomikoaren egoera Arabako landa eremuetan (mota, kontzentrazioa...)	• Nekazaritza, gutxi dibertsifikatuta • Zailtasunak ekimenerako populazio gutxi guneetan. Salbuespena, Arabako Errioxa: mahastizaintzak jarduera ekonomiko guztia baldintzatzen du. • Komunikazioen arabera dago antolatuta jarduera ekonomikoa. • Bi errealitate: trakzioguneak (ondo komunikatuak) eta gune txikiak (ekintzaile txikiak zerbitzua ematen)		
	1. problematika	2. problematika	3. problematika
Problematika orokorrak Arabako landa eremuetan	Despopulazioa eta dentsitate txikia. Udalerrietako herriburuek bere horretan jarraitzen dute eta hazi egiten dira, baina herrigune txikiek populazioa galtzen dute.	Etxebizitza eskuratzeko: Prezioa/Lursailak erabilgarri/Eraikitzeak o lizentziak. Ondorioz, populazioa ez da gaztetzen ari.	Eskualde sentimendurik ez eta hiriarekiko mendekotasuna. Mugikortasuna eta gizartearen parte-hartzerik eza.
Jarduera ekonomikoarekin lotutako problematikak Arabako landa eremuetan	Enpresek ez dute enplegurik sortzen. Ekintzaileentzako zailtasunak herrigune txikietan.	Prestakuntza maila ez da egokia enpresek behar dutenerako.	Belaunaldien arteko erreleborik eza arlo eta sektore guztietan.

BIZKAIA

3. taula – Azterketa kualitatiboa Bizkaian

BIZKAIA			
Bizkaiko landa eremu guztietako ezaugarriak	• Bi errealitate daude: udalerri txikiak eta udalerri handiak. • Lehen sektorea ahulduta: -> paisaia aldaketa (elikagaien hornidura) eta aldaketa sozialak.		
Agente nagusiak (eragin ahalmen handiagoa)	• Udalak, mankomunitateak, lanbide heziketako ikastetxeak, ikerkuntza zentroak, sindikatuak, nekazaritza kooperatibak, gune babestuen kudeatzaileak, garapen agentziak, merkatarien eta ostalarien elkarteak.		
Jarduera ekonomikoaren egoera Bizkaiko landa eremuetan (mota, kontzentrazioa...)	• Erreleborik eza hainbat jardueratan. • Jarduera ekonomiko nagusia: industria eta zerbitzuak. Basozaintza sektorea indartsua. • Aisialdi aktiboko enpresak. • Nekazaritzako elikagaien enpresa gutxi.		
	1. problematika	2. problematika	3. problematika
Problematika orokorrak Bizkaiko landa eremuetan	Hiriguneen presioa landa eremuengan.	Kohesio eza, lurralde nortasun eza, denen arteko proiektu eza.	Konektibitate arazoak: garraioa, zerbitzuak eta digitalizazioa.
Jarduera ekonomikoarekin lotutako problematikak Bizkaiko landa eremuetan	Belaunaldien arteko erreleborik eza, ekintzailatza kulturarik eza eta talenturik eza.	Arauek eta burokrazioak jarritako mugak, jarduera berriak jartzeko oztopo.	Aukeren arrakala: enpresentzat erakargarriagoa da hiriguneetan egotea.

5. irudia – Arabako landa eremuen diagnostikoa

• GIPUZKOA

4. taula – Gipuzkoako azterketa kualitatiboa

GIPUZKOA	
Gipuzkoako landa eremu guztietako ezaugarriak	• Jarduera nagusiak: industria eta zerbitzuak. • Presio urbanistiko handia. • Bide-sare ona -> Lurralde kohesionatua. • Landa eremu zabalak: Lurraldearen %65a basoa da. • Herri txikiak eta baserriak sakabanatuta, jarduera bat izatetik bizitegitarako bakarrik erabiltzen direnak.
Agente nagusiak (eragin ahalmen handiagoa)	• Udalak, eskualdeko agentziak, mankomunitateak, sektoreetako agenteak, sindikatuak, ikastetxeak, emakumeen elkarteak, arreta soziosanitarioko entitateak.

Jarduera ekonomikoaren egoera Gipuzkoako landa eremuetan (mota, kontzentrazioa...)	- Lehen sektorea gainbehera, belaunaldien arteko errelebo faltagatik. Pisu txikia BPGn, baina estrategikoki oso garrantzitsua. - Dibertsifikazioa turismoaren, aisiaren eta ostalaritzaren eskutik. - Herri txikietan, gremioak eraikuntzaren inguruan eta toki administrazioak sortutako enplegua (funtzionarioak, lanpostu soziosanitarioak...).		
	1. problematika	2. problematika	3. problematika
Problematika orokorrak Gipuzkoako landa eremuetan	Bizi kalitatearekin lotutako zerbitzurik eza.	Elkarbizitza gatazkak: landa-hiria.	Nekazaritzako lurzorua babestu beharra.
Jarduera ekonomikoarekin lotutako problematikak Gipuzkoako landa eremuetan	Erreleborik eza lehen sektorean eta toki ekintzailetza eskasa.	Landa eremuen berezitasunak aintzat hartzen dituzten politikak, programak eta planak falta dira.	Gutxi aprobetxatzen dira landa eremuek eskaintzen dituzten aukerak.

Lurraldez lurraldeko azterketa egin eta gero, EAEko landa eremu guztien inguruko azterketa egin da.

EAEko landa eremuek berezkoak dituzten ezaugarriak

Alde handiak daude hiru lurraldeen artean landa eremuen ezaugarriei dagokienez, batik bat Araba Gipuzkoa eta Bizkaiarekin alderatzen bada.

Arabako populazioa dentsitate txikikoa da eta herrigune handiekiko mende bizi da. Horregatik, talentu eta biztanle askok herrigune txikietatik handietara alde egiten du. Halaber, kohesio eskasa dauka, Gipuzkoarekin eta Bizkaiarekin alderatuta; lankidetzarako eta elkarlanerako kultura ere askoz ahulagoa da.

Bizkaian bi errealitate oso desberdin daude: udalerri txikiak eta udalerri handiak. Gainera, nabarmena da lehen sektoreak galdu duen pisua.

Gipuzkoan, presio urbanistikoa da gauzarik aipagarrienetakoa. Jarduera nagusiak industria eta zerbitzuak dira. Lurralde kohesionatua da, komunikazio onak dituen, eta landa eremu zabalak ditu; lurraldearen azalera gehiena basoek hartzen dute (%65).

Agente nagusiak

Hauek dira Mendineten agente kolaboratzaile nagusiak: udalak, garapen agentziak, administrazio batzarrak, elkarteak eta foru aldundiak. Lurralde historiko bakoitzak bere ezaugarri propioak baditu ere (Arabak kuadrillak daude, esaterako), gehienak hiru lurraldeetan nabaritzen dira.

Jarduera ekonomikoaren egoera EAEko landa eremuetan

EAEko landa eremuetan ez dago jarduera ekonomiko jakin bat nagusi dena, lurralde historiko bakoitzak berea dauka.

Araba nekazaritza lurraldea da argi eta garbi, baina gutxi dibertsifikatuta dago. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, industria eta zerbitzuak dira nagusi. Azken urteotan, dibertsifikazioa turismoaren, aisialdiaren eta ostalaritzaren eskutik egin da, batik bat Bizkaian eta Gipuzkoan. Gipuzkoan, gainera, dibertsifikazioa herri txikietan ere eman da, eraikuntzarekin lotutako gremioen eta toki administrazioak sortutako lanpostuen eskutik. Nekazaritzako elikagaien industriari dagokionez, Araba da sektore horrek indar gehien duen lurraldea.

Lehen sektorea gainbehera doa, belaunaldien arteko erreleborik ez dagoelako. Pisu txikia dauka BPGn, baina estrategikoki oso garrantzitsua da EAErentzat.

Komunikazioak zerikusi handia dauka jarduera ekonomikoaren garapenerako. Jarduera indartsueneko lurraldeak ondo komunikatuta egoten dira.

Landa eremuetako problematika orokorrak

Identifikatu den problematika nagusia despopulazioa da. Hiriguneek presio handia eragiten dute landa eremuengan. Ondorioz, herrigune txikietako populazioa txikitu egiten da eta herrigune handietakoa handitu.

Bigarren problematika nagusia da landa eremuen ezaugarri bereziak aintzat hartzen dituzten politika, programa eta plan eza; zaila egiten da, horrela, bizi kalitateari eta jarduera ekonomikoari eustea. Beharrezkoa da nekazaritzako lursailak babestea eta agenteen arteko lankidetzak, politika efikazagoak inplementatzeko.

Zerbitzurik eza da beste problematika nagusietako bat. Beharrezkoa da zerbitzuak eskaintzea, bertako populazioaren bizi kalitatea bermatzeko, eta batik bat konektibitatearekin lotutako zerbitzuak (garraioa, digitalizazioa...).

Era berean, populazioak ez dauka bere inguruarekiko sentimendurik eta parte hartzeko joerarik. Beharrezkoa da lurralde nortasuna lantzea eta guztiena den proiektu batean parte hartzea.

Arabaren aipatzekoak dira, baita ere, dauden zailtasunak etxebizitza eskuratzeko eta, ondorioz, populazioa gaztetzeko.

Landa eremuetako jarduera ekonomikoekin zerikusia duten problematikak

EAEko landa eremuetako jarduera ekonomikoekin zerikusia duten problematikei dagokienez, bi desafio identifikatu dira: belaunaldien arteko erreleboa eta ekimen eza.

Bi desafio horiek elkarrekin lotuta daude: ekimenik ez badago eta despopulazioa gertatzen bada, ez dago belaunaldien arteko erreleborik. Ekimen eza hainbat arrazoiengatik izan daiteke. Arrazoi nagusi hauek identifikatu dira: ekimenerako

kulturarik ez dago, ekimenak hartzea zaila da herrigune txikietan eta arauak eta burokraziak mugak ipintzen dituzte eta ez dituzte gauzak errazten jarduera berrian martxan jartzeko. Aukera arrakala dago landa eremuen eta hiri eremuen artean ekintzailatzarako; hiriguneak erakargarriagoak dira ekimenerako.

Ekimenerako zailtasunak egonda, lehendik dauden negozioek nekez izango dute erreleboa. Beraz, belaunaldien arteko erreleboa landa eremuetan desafio bat da, eta ez bakarrik EAErentzat, Estatuarentzat eta gainerako herrialdeentzat ere bai. Belaunaldien arteko erreleboa arlo eta sektore guztietan behar da; dena den, lehen sektorea da zailtasun gehien dituen.

Halaber, landa eremuetako populazioaren prestakuntza maila ez da enpresek dituzten beharrei erantzuteko modukoa. Landa garapenerako euskal estrategiak eginiko analisian, esaten da landa eremuetako biztanleen prestakuntza maila hirigunetako biztanleek dutenaren oso antzekoa dela. Beraz, ez luke prestakuntza arrakalarik egon behar. Dena den, talentuak landa eremuetatik hiriguneetara ihes egiten du eta horixe da problematika horren arrazoia.

Horrenbestez, hiru lurralde historikoetako errealitatea desberdina bada ere, oso antzekoak dira problematika orokorrak eta jarduera ekonomikoekin zerikusia duten problematikak.

Ekimen ezak eta lehen sektorearen gainbeherak kalteberak bihurtzen dituzte landa eremuak. Egia da azken urteotan areagotu egin dela dibertsifikazioa jarduera ekonomikoetan, bereziki turismoaren, ostalaritzaren eta aisiaren eskutik, baina bide luzea geratzen da oraindik egiteko.

Zerbitzu faltagatik, udalerri txikiak udalerri handien mende bizi dira. Gainera, komunikazioak berebiziko garrantzia dauka jarduera ekonomikoaren garapenean; komunikazio onenak dituzten eremuetan daude jarduera ekonomiko gehien.

Hori guztia horrela izanik, ezinbestekoa da politika egokiak aktibatzea landa eremuek dituzten aukerak aprobetxatzeko. Horretan, Mendineten eta horren entitate bazkide guztien zeregina oso garrantzitsua da, jarduera ekonomikoaren garapena bultzatzeko. Lurralde kohesionatu batean lan egitea ere funtsezkoa da, aktibatzen diren politikak efikazak izan daitezen.

2.4 AHULEZIAK, MEHATXUAK, INDARRAK ETA AUKERAK (AMIA)

Jarraian, Euskadiko landa eremuen ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak xehatzen dira.

2.4.1 Ahuleziak

- Berrikuntza maila txikia lehen sektoreko ekoizte prozesuetan.
- Profesionalizazio maila txikia basozaintzan.
- Sektoreen lehiakortasunari buruzko diagnostiko osorik eza.
- Titularren batez besteko adina handia. Belaunaldien arteko errelebo gutxi eta nekazaritzarekin inoiz harremanik izan ez duten pertsona berri gutxi nekazaritzan.
- Zailtasunak nekazaritza lursailak eskuratzeko. Nekazaritza lursailen mugikortasun txikia. Nekazaritza lursailen % handia ekoizpenera apenas bideratuta dauden ustategien esku.
- Ustategien atomizazioa. Mentalitate tradizionala ("ekoiztea") eta jabetzari estu lotuta. Berrikuntza bultzatzeko asmorik ez.
- Lurraldearen zati handia bat 'mendi eremu' kalifikatuta dago. Ekoizpen kostu handiak.
- Nekazaritzarako laguntzekiko mendekotasun handia zenbait azpisektoretan.
- Basozaintza ustategien tamaina txikia eta basozaintza diru sarrera osagarri gisa.
- Eskulan askoren beharra basozaintza sektorean.
- Orografia traketsa, basozaintza sektoreko lanak mekanizatzea zailtzen edo galarazten duena.
- Ekoizten eta merkaturatzen aritzen diren nekazaritza erakundeak gehiago garatu beharra, indar handiagoa izateko bezeroekin negoziatzerakoan.
- Nekazaritzako ingurumen neurriak inplementatzen eta nekazaritza ekologiko murriztea.
- Nekazaritza jarduera bertan behera utzita geratzeko arriskua (marjinala).
- Arazoak ureztatzeko azpiegiturekin Lurraldeko leku askotan.
- Hauskortasun sozioekonomikoa hiriguneekin alderatuta.
- Dibertsifikazio eskasa eta zailtasunak LEADER eremua eremu erakargarria bihurtzeko eta, hala, eremuan espazio produktibo berriak sortzeko eta eremura inbertsioak eta jarduera ekonomiko berriak erakartzeko.
- Ekipamenduen, zerbitzuen eta bizi kalitatearekin zerikusia duten beste elementu batzuen egoera aldatu egiten da eremu batetik bestera.
- Eskasia nabarmenak komunikazioetan eta garraio publikoan.
- Problematika espezifikoa azpiegituren eta zerbitzuen mantentze-lanei eusteko.
- Enplegu eskaintza eskasa.
- Aisialdiari eta turismoari lotutako azpiegiturak gutxi garatuak, aprobetxatu gabe.
- Gertuko merkataritzarik ez dago landa eremu askotan. Tokiko produktuen

salmenta puntu egonkor gutxi.

2.4.2 Mehatxuak

- Europako araudia gero eta zorrotzagoa eta, batzuetan, koherentziarik gabekoa.
- Sektorea gero eta zaharragoa, eta kualifikazio profesional egokia duen belaunaldi berririk ez dago.
- Lurzoruak bertan behera utzita geratzeko arriskua, ekoizpenera apenas bideratuta dauden ustategien esku egoteagatik, erretiroa hartzekotan dauden nekazariak. Nekazaritza lurzoruak bertan behera utzita geratu eta nekazaritzarako galtzeko arriskua.
- Europak gero eta exigentzia handiagoak. Ekoizpen eta burokrazia kostuak handitu.
- Sektorearen araubidea konplexua eta aldakorra, ekoizleengan ziurgabetasun handia eragiten duena.
- Interes handirik ez nekazaritza jarduera ekonomikoan ("aterpea").
- Hirigintzaren eta azpiegituren presioa nekazaritza lursailengan.
- Eskulan gutxiko lan poltsak, langileak nekazaritza lanetarako soldata pean kontratatzeke.
- Prezio gorabeheratsuak eta merkatu aldakorra oso globalizatutako merkatuan. Lehia beste herrialdeekin prezioen eta lehengaien inguruan.
- Baso kudeaketa bertan behera utzita belaunaldien arteko errelebo ezagatik.
- Nekazaritzak gero eta pisu handiagoa Europako aurrekontuan. Europako laguntzak asko murriztuta.
- Eskariaren kontzentrazioa, eta negoziatzeko ahalmen handiagoa.
- Gero eta merkatu liberalizatuak eta globalizatuak.
- Gero eta arrisku natural handiagoak, mendietako egurretarako izakinak ugariagoak direlako. Sute arriskua, baso jarduera bertan behera uzteagatik.
- Azpiegituren, urbanizazioen... presioa nekazaritza lursailenean eta, ondorioz, okupazio fisikoa eta espekulazio arazoak zenbait eremutan.
- Naturako turismoa eta ingurumen araudia bateragarri egiteko arazoak.
- Nekazaritza sistema eta habitat baliagarriak aldatzeko/desagertzeko arriskua, nekazaritza jardunbide tradizionalak eta estentsiboak desagertzeagatik.
- Landa eremuei ez zaie aitortzen duten funtzio aniztasuna, eta ezta LEADER eremuari ere hark lurralde kultura eta nortasunari egiten dien ekarpena. Globalizazioak aniztasuna (kulturala, naturala...) ez baloratzera bultzatzen du.
- Azpiegiturak eta zerbitzuak landa eremuak aintzat hartu gabe ipintzea, errentagarritasun ekonomikoari begira bakarrik.
- Populazio irizpidearen pisu handiegia oinarritzko zerbitzuetarako (osasuna, hezkuntza, garraioa...) baliabideak esleitzerakoan.
- Landa eremuei bizitegitarako erabilera emateko joera (kultura nortasunaren galera).

- Udalerriz gaindiko politika orokorrak toki garapenaren kaltetan.
- Administrazioaren joera kostaldearekin, naturarekin eta kulturarekin lotutako turismoa bultzatzeko, landa eremuek oro har turismorako duten erakargarritasuna kontuan izan gabe.

2.4.3 Indarrak

- Kudeaketa eta gobernantza egiturak landa eremuetan.
- Sektoreari laguntzeko sare sendoa: prestakuntza, aholkularitza, I+G+i.
- Klusterrak elikagaien eta egurraren sektoreetan, sektore produktiboa ondo antolatuta eta kooperatiba sektore dinamikoa zenbait azpisektoreetan.
- Esperientzia positiboak asoziazionismoaren arloan, nekazaritzako makineria eskuratzerakoan eta erabiltzerakoan.
- Baso ziurtapenaren eboluzioa handia eta pixkanakakoa, eta egurraren produktibitatea erdi-go mailakoa (30-35 urteko hazkune zikloak batez beste).
- Trakzio enpresak (zerrategiak) EAEn.
- Kalitatezko produkzioa (gaztak, ardoak, barazkiak...) eta kalitate markak, kontsumitzaileek ezagutzen eta aintzat hartzen dituztenak.
- Beren transformazioaren bidez balio erantsi handia sortzen duten azpisektoreak: ardi gazta, ardoa.
- Nekazaritzaren zeregina funtsezkoa lurraldeko lurzoru, ingurumen eta kulturari eusteko. Lurraldearen %85a kudeatua (basozaintza azpisektorearekin batera).
- Basozaintza garrantzi handiko sektorea, ingurumenari dagokionez. Gero eta baso azalera handiagoa (EAEko lurraldearen %55a zuhazituta dago) eta basoen kudeaketa jasangarria funtzioan. Suteak prebenitzeko kudeaketa lan efizientea.
- Ingurumena egoera onean: ongarrien erabilera gutxiago, ureztatzeko uraren erabilera efizientea, animalia ongizatearen maila egokiak, fauna aberastasun handia.
- Bateragarriak nekazaritzako familia ustiategiak, eremu babestuak eta fauna eta floraren babesa, nekazaritza jarduerari lotutako ekosistema ugari.
- Natura baliabideak: erabilgarriak eta barietate handia. Azalera handia natura espazio moduan babestuta.
- Euskal gizartearen errespetua eta atxikimendua naturari eta paisaiari.
- Modu jasangarrian eta dibertsifikatuan aprobetxatzeko moduko baliabideak (naturalak, kulturalak), enplegua sortzeko.
- Administrazioa inplikaturik jasangarritasun politikak aplikatzerakoan.
- Nekazaritza sektoreak pisu handia du LEADER eremuan sortutako enpleguan, eta populazioa ugartu egin da azken bi hamarkadetan LEADER eremuko gune askotan.
- Landa eremua hiri eremuetatik hurbil eta haiekin inbrikatua. Ekipamenduak, zerbitzuak eta jarduerak ekonomikoak gertu.

- Paisaia eta kultura dibertsitate handia, eta balio historiko eta kultural handiko ondarea eskualde guztietan.
- EAEko LEADER eremua oso eremu erakargarria kalitatezko destino turistiko moduan (kalitate handiko natura, paisaia eta kultura).
- Asko hobetuta teknologia eta banda zabala, Eusko Jaurlaritzak azken urteotan eginiko inbertsioei esker.

2.4.4 Aukerak

- Gero eta laguntza gehiago berrikuntzarako EBren partetik, eta administrazio proaktiboa eta sektoreko problematika ezagutzen duena.
- EAE I+G sektorean gehien inbertitzen duen autonomietako bat da, eta hori aprobetxatu egin beharko litzateke landa eremuen beharrei erantzuteko eta eremu horien lehiatzeko ahalmena indartzeko.
- Covid19 eta gero, pertsona asko joan dira hirietatik LEADER eremura.
- Administrazioak hobeto koordinatuta.
- Nekazaritza sektorearen gaitasuna lehiakortasunean honbekuntza garrantzitsuak egiteko.
- Ekoizpen maila txikia Euskadin dagoen eskarirako, erosteko ahalmen handiarekin gainera.
- Kontsumo ohiturak aldatu egin dira: kalitatezko produktuak, naturalak eta osasuntsuak, trazabilitatearekin, eta onak nutrizioaren aldetik eta funtzionalki.
- Nekazaritza sektorea estrategikoa da Euskadiko Administrazioarentzat. Erakundeen babesa.
- Gazteak beste sektoreetatik landa eremuetara erakartzea.
- Ekoizpen ekologikoa eta integratua eta kalitate zigiluak lantzea.
- Egurrari eman lekizkiokeen erabilera berriak (biomasa, arkitektura...).
- Sektoreetan elkarleen sorrera bultzatzea, kudeaketa elkarrekin egitera bultzatzeko (basoak).
- Euskadiren izen ona gastronomian eta kalitatezko produktuetan. Kalitate zigiluak badaude, horiek lantzea.
- Banaketa kate laburrak. Tokiko sare komertzialak indartzeko aukera. Barne merkatu indartsua eta hurbilekoa.
- Prebentzio tresnak inplementatzeko aukera (arriskua kudeatzea, katastrofetarako funtsa, errenten aseguru).
- Komertzializazio bide berriak (internet, kontsumo taldeak...).
- Jangela publikoak (ikastetxeak, osasun zentroak, lan zentroak...) hornitzeko aukera.
- Zirkuitu komertzial berriak HORECAri, gastronomiari eta turismoari lotuak.
- Lurzoru urbanizagarriak eta lurzoru eta eraikin infraerabiliak nekazaritzarako berreskuratzea.

- Gizarteak ondo zaindutako natura eremuak eta ekoizpen jasangarria eskatzen du. Gero eta garrantzi handiago ematen zaie ingurumen kontuei.
- Nekazaritzan diharduten pertsonen lehen baina gehiago aitortzen eta laguntza zaie beren lana, espazio horiek zaintzen egiten duten lanagatik (nekazaritza sistemak, balio handiko habitatak naturaren ikuspegitik begiratuta).
- EAEko LEADER eremuak gero eta erakargarritasun handiagoa dauka turismoaren aldetik begiratuta, aberatsa delako dituen kultura, natura eta paisaiagatik.
- Merezi duten balioa ematea basoen kanpo efektuei, CO2 kredituak.
- Mendiaren erabilera soziala edo aisialdirako erabilera garatzea.
- Gazteen portzentaje handia zenbait landa eremutan.
- Gazteak landa eremuetara bueltatzea.
- Enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzea, lurraldea zaintzen, leheneratzen eta kudeatzen gauzatzen diren jarduketengatik.
- Landa eremuek turismo aldetik dituzten aukerak, duten paisaia ederragatik, landa naturagatik eta ondare historiko eta kulturalagatik, ingurumen balio handiko eremu babestuak: kultura, natura eta gastronomiarekin lotutako turismoa. Gero eta indar handiagoa esperientzietan oinarritutako turismoak.
- Enplegu nitxo berriak turismoarekin, hezkuntzarekin edota zerbitzu sozio-asistentzialekin lotuta.
- Profesional liberalak landa eremuetan bizitzen, herrigune inportanteekiko hurbiltasuna eta teknologia berrien garapena aprobetxatuz.
- IKTek eskaintzen dituzten aukerak, landa eremuetan zerbitzuak eta hiriguneetatik deslokalizatutako jarduera berriak garatzeko.

2.5 TOKI ENTITATEEK ETA TOKIKO EKINTZA TALDEA OSATZEN DUTEN ENTITATEEK ESTRATEGIA PRESTATZEN IZAN DUTEN PARTAIDETZA

Mendineten Estrategia metodologia espezifiko baten arabera prestatu da, entitate bazkide guztien partaidetzaz egin da sorkuntza lana.

Metodologiak bost fase izan ditu:



12. irudia - Metodologia

Fase bakoitzean, denen arteko lan saio presentzialak eta bazkide bakoitzak bere aldetik eginiko lanak izan dira. Entitate bazkide bakoitzak, bere zuzendaritza batzordearekin batera, jarduera jakin batzuk aurreratu izan ditu.



13. irudia – Prozesua faseka

Jarraian, prozesuko fase bakoitzaren xedea azaltzen da:

- **1. Fasea – Inspirazioa eta diagnostikoa.**

Lehen fasearen xedea da entitate bazkide guztiei inspiratzea, landa eremuetako dibertsifikazio ekonomikoarekin lotutako erreferentziazko esperientziak ezagutzeko. Lehen fase honetarako, kanpoko laguntza egon da; beste arlo batzuetan arrakasta izan duten proiektuak ezagutu dira (esaterako, start-up ekosistemak, digitalizazioko ekosistemak), eta baita beste erregio/lurraldeetako landa eremuetan ondo irten diren proiektuak ere.

Era berean, bilera bat egin da metodologiaren prozesua LGEetako zuzendaritza batzordeetako kideei azaltzeko, haiek ere parte har zezaten Estrategia prestatzeko prozesuan.

Horrez gain, diagnostikoa egin da. Entitate bazkide guztiek hartu dute parte LEADER eremuaren diagnostikoa prestatzen. Aurrena, desafioak eta problematika nagusienak identifikatu dituzte eskualdez eskualde; ondoren, diagnostiko berdina egin dute lurralde historikoz lurralde historiko eta, azkenik, Euskadi osoa hartuta.

- **2. Fasea - Ardatza**

Bigarren fase honetan, misioa, ikuspegia eta balioak definitu dira, eta baita identifikatu ere Mendinetentzat estrategikoak diren sektoreak eta jarduerak.

LGE bakoitzak, bere zuzendaritza batzordearekin batera, bere eskualdeko jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko estrategikoak diren sektoreak eta jarduerak identifikatu ditu.

Behin LGE bakoitzak lan hori amaituta, bilera bat egin da entitate bazkide guztiekin, Mendineten Estrategiaren ardatza denon artean identifikatzeko.

- **3. Fasea - Mugak**

Aurreko fasean LEADER eremuko jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko estrategikoak izan litezkeen sektoreak eta jarduerak definitu ondoren, fase honetan mugak ipini dira, esan nahi baita, sektore estrategiko bakoitzeko aukera eremuak zuindu dira, Mendineten Estrategia horietan ardazteko.

Fase honi ekiteko, lantaldeak antolatu dira. Taldeak Mendineteko entitate bazkideetako kideez osatuta daude eta talde bakoitzari sektore bat esleitu zaio. Talde bakoitzak bere sektoreko aukera eremuak landu ditu modu paraleloan; bere sektorerako lerro estrategikoak, helburuak eta ekintza lerroak definitu ditu.

Ondoren, talde bakoitzak bere lana aurkeztu du eta azken bertsioa prestatu, hor azaldu duelarik estrategia zein aukera eremutan ardaztu beharko litzatekeen.

Fase honetan, halaber, laguntza lerroak landu dira.

- **4. Fasea - Integrazioa**

Fase honen helburua da aurreko faseetan eginiko lan guztiaren koherentzia aztertzea. Fase hau bereziki garrantzitsua izan da, Mendineten Estrategiaren behin betiko bertsioa baliozkotu eta eraiki behar zelako denen artean eginiko sormen bileretan hartutako erabakiekin.

- **5. Fasea - Aktibatzea**

Azken fase honetan, Estrategia abian jartzeko plana diseinatu da.

Fase honetan, tokian tokiko agente guztiei bilera deialdia egin zaie berriro, fasearen emaitza aurkezteko eta ekarpenak egiteko.

Jarraian, kronograma bat agertzen da, Mendinet Estrategia 2023-2027 agiria prestatzerakoan izandako faseen kronograma:

FASES	16-20 de enero	23 - 27 de enero	30 - 03 febrero	6 - 10 de febrero	13 - 17 de febrero	20 - 24 de febrero	27 - 03 de marzo	06 - 10 de marzo	13 - 17 de marzo	20 - 24 de marzo	27 - 31 de marzo	03 - 07 de abril	10 - 14 de abril	17 - 21 de abril	24 - 28 de abril	01 - 05 de mayo	08 - 12 de mayo
1. INSPÍRATE/DIAGNOSTICO																	
2. FOCALIZA																	
3. DELIMITA																	
4. INTEGRA																	
5. ACTIVA																	

14 irudia - Kronograma

Hona hemen metodologia aplikatzeko antolatu diren lantaldeak eta bakoitzaren rolak:

- **Talde gidaria.** Talde honetan aritu dira lurralde historiko bakoitzeko LGEko ordezkari bat, HAZI Fundazioko bi ordezkari eta Mendineteko Idazkaritza Teknikoko ordezkari bat. Guztira, 6 pertsona.
Prozesuaren erdian, beste pertsona bat sartu zen, Gipuzkoako ordezkari bat. Izan ere, ekintzailatzaren neurria diseinatu zuen taldeko kideen artean ez zegoen talde

gidariko ordezkariarik eta, horregatik, erabaki zen talde hartako pertsona bat talde gidarian sartzea.

Talde honen rola izan da Garapen taldearen alternatibak eta planteamenduak baliozkotzea eta hautatzea. Bere zeregin nagusia erabakiak hartzea izan da.

- **Garapen taldea.** Talde honetan aritu dira Mendinet entitatea osatzen duten LGEetako ordezkari guztiak, HAZI Fundazioko bi ordezkari eta Mendineteko Idazkaritza Teknikoko bi ordezkari. Guztira, 22 pertsona.
Talde honen eginkizuna izan da estrategia batek izan behar dituen elementu guztiei erantzuteko aukerak sortzea eta Talde gidariak hartutako erabakiak onestea.
Taldearen zeregin nagusia izan da edukia sortzea eta Mendinetetik Estrategiaren bidez hartu nahi den norabidea erabakitzea.
Esan beharra dago aldi berean LGEetako ordezkariak lanean aritu direla beren zuzendaritza taldeekin, edukiak sortzen eta Garapen taldearen erabakiak lantzen.

Azpimarratu behar da erabatekoa izan dela bi taldeetako kideen lanerako gogoia eta inplikazioa. Bileretara ia denak joan dira eta prestatutako edukiak oso onak izan dira. Lan horren emaitza izan da Mendinet Estrategia 2023-2027 dokumentua.

Talde bakoitzeko kideen arteko eta taldeen arteko koordinazioa eta komunikazioa Teams plataforma bidez bideratu da batik bat.

2.6 HELBURUAK

2.6.1 Helburuak

Mendinet tokiko ekintza taldearen LEADER programaren **helburu nagusia** da Euskadiko LEADER eremuetako garapen ekonomikoa ahalbidetzea, landa eremuetako ekonomia sarea dibertsifikatuz eta landa eremuetan enplegua sortuz.

Estrategiaren bidez nahi da Euskadiko landa eremuen bi desafio nagusi hauei erantzutea: belaunaldien arteko erreleboa eta biztanleria mantentzea. Horretarako, Estrategia hau baliatuko da, ekintzailetzarako eta enplegua sortzeko aukerak sustatzeko eta baita enpresak LEADER eremuan ipini edo sendotzeko neurriak bultzatzeko. Hori guztia, kalitatezko garapen jasangarri integratua aintzat hartzen duen estrategia berritzaile baten bidez egingo da.

Hori horrela izanik, tokiko ekintza taldearen Programan helburu espezifiko hauek daude landa eremuetako ekonomia sarea dibertsifikatzeko eta landa eremuetan enplegua sortzeko:

- Kalitatezko enplegu egonkorra sustatzea eta horretan laguntzea, landa eremuetako biztanleriaren aukera berdintasuna ahalbidetzeko, arreta berezia jarritz emakume, gazte eta lana aurkitzeko zailtasunak dituzten beste taldeentzako programa espezifikoaren garapenean.
- Erakundeetatik ekintzailetzarako eta enpresen sorrerako bideratzen diren funtsak, programak eta jarduketak koordinatzea, haiek LEADER eremuan eragin dezaten eta kalitatezko enplegu egonkorra mantendu eta sortu dadin.
- Lana antolatzeke eredu berriak garatzen laguntzea. Horretarako, ekonomia soziala, solidarioa eta kolaboratiboa hartuko da oinarritzat. Hala, aprobetxatu ahal izango dira informazioaren teknologia berriek, berrikuntza teknologikoek, bioekonomiak, digitalizazioak, industria 4.0k, nekazaritza 4.0k eta abeltzaintza 4.0k ematen dituzten aukerak; posible izango da, baita ere, kalitatezko enplegua sortzea, enpresetan erreleboa izatea eta emakumeen parte-hartzea bultzatzea.
- Enpresentzako tresna eta ekipamendu erakargarriak erraztea, haiek Euskadiko landa eremuetara erakartzeko eta eremu horietan sendotzeko, oinarritzko zerbitzuak ziurtatuz, hala nola finantza zerbitzuak, aseguru zerbitzuak eta aholkularitza eta gestio zerbitzuak. Hala, testuinguru sendoa eta fidagarria bermatuko zaie enpresei.
- Landa eremuetan espazioak, fisikoak nahiz birtualak, prestatzea eta dinamizatzea, ekintzaileek beren proiektuak garatu ditzaten eta ibilbide bat egin duten pertsonen ere beren jarduerak ekonomikoa sendotu dezaten. Horretarako, lankidetzak publiko-pribatua sustatuko da eta espazio horien sustapena eta sare kudeaketa bultzatuko da.

- Ekonomiaren dibertsifikazioa bultzatzea landa eremuentzat estrategikoak diren sektoreetan: turismoa, aisia, abentura, osasuna, ongizatea, lehen sektorearentzako eta nekazaritzako elikagaien sektorearentzako lagungarriak diren zerbitzuak, bioteknologia, ekonomia zirkularra, biztanleentzako dendak eta zerbitzuak, sormen industria eta artisautza.
- Trebakuntza programak garatzea, LEADER eremuan ekintzailletza eta barne ekintzailletza bultzatzeko eta enpresa dinamismoa indartzeko.
- Lehen sektorearen dibertsifikazioa eta jarduera berrien garapena erraztea LEADER eremuan.

2.6.2 Estrategia

Estrategia honetan aurreikusten denez, aipatutako helburu horiek erdietsiko dira laguntza neurrien, ekintza propioen eta lankidetzako proiektuen bidez. Horrela lortuko da ekonomia jarduerak dibertsifikatzea, Mendinetentzat estrategikoak diren sei sektoreak lehenetsiz.

Mendinet ekintza taldea osatzen duten entitate guztiek eginiko sare lanaren bidez prestatu da Estrategia hau. Aurkeztutako strategiari SMART ikuspegia aplikatu zaio: specific (espezifikoa), measurable (neurgarria), achievable (lorgarria), realistic (errealista) eta time-bound (denboraz mugatua).

Smart ikuspegia –ikuspegi honen ardatza Smart Villages izenekoak dira eta Europako Batzordeak bere egin zuen 2023-2027 urteetan landa eremuetan lan egiteko funtsezko tresna moduan– aurreko programazioan (2015-2020) garatu zuen Mendinetek, lehen aipatutako *Smart rural* proiektuaren bidez.

Gure testuinguruan, *Smart Villages* edo “herri adimendunak” landa eremuetako tokiko komunitateak dira. Komunitate horiek konponbide berritzaileak baliatzen dituzte, leheneratzeko gaitasuna hobetzeko; horretarako, aurre egin behar zaien desafioak identifikatzen dituzte eta berezko aktiboak eta aukerak aprobetxatzen dituzte. Komunitate lokalen berrikuntza soziala, teknologiak eta ahalduntzea ezinbesteko lan tresnak dira eguneroko bizitza hobetzea ahalbidetzeko estrategiak definitzeko eta inplementatzeko, betiere landa eremuak bere osotasunean landuta eta parte-hartzea eta jasangarritasuna oinarri hartuta. Hala, landa eremuetako bizi kalitatea hobetu egingo da eta baliabideak hobeto erabiliko dira.

Kontuan izanik hori guztia eta Mendineten helburu nagusia LEADER eremuko jarduera ekonomikoa bultzatzea dela, ahalegin guztiak egingo dira Euskadiko *Smart Villages* horiek sustatzeko Garapen Jasangarriko Helburuekin bat.

LEADER eremuko ehun ekonomikoa dibertsifikatzea eremua sozio-ekonomikoki dinamizatzeko faktore garrantzitsua da; aberastasuna eta enplegua sortu eta, hala, batik bat eremuan bizi diren gazteen eta emakumeen itxaropenei erantzuteko balio du. Mikroenpresak eta enpresa txikiak eta ertainak sortu eta garatzea lagungarria da eremuko biztanle eta tokiko agenteen artean enpresarako joera sustatzeko eta gure LEADER eremuan jardura ekonomiko berriak sortzeko. Beraz, dinamizazio horri esker, aukera gehiago dago eta errazagoa da finkatuta dauden enpresak LEADER eremuan jarraitu dezaten; hori da, gainera, Mendineten beste ardatz estrategiko handietako bat.

Kasu gehienetan, hiriak eta hiriguneak aipatzen dira **berrikuntzaren** tiratzaile eta bultzatzaile bezala, landa eremuak alde batera utziz. Mendinet entitatea ahalegintzen da landa eremuek berrikuntzarako duten ahalmena baliatzen, betiere landa eremuetako ekonomiaren epe luzerako ikuspegiarekin; hala jasotzen du Europako Batzordearen planak landa eremuak epe luzera begira garatzeko. Landa eremuetako berrikuntzaz hitz egiterakoan, nobedadeak eta aldaketak sartu nahi izaten dira ekonomia, ingurumen eta gizarte arloetan etorkizuneko desfizioei zuzen aurre egiteko, eremuetako lehiakortasuna areagotzeko eta, era horretan, landa eremuak bizitzeko leku erakargarriak izateko. Mendinetek berrikuntza lantzen duenean ingurumen eta gizarte ikuspuntuetatik lantzen du eta guztiz bat dator garapen jasangarriko helbueruekin, 2.6.3 atalean ikus daitekeen moduan. Etengabeko hobekuntza eta proaktibitatea Mendineten nortasunaren parte dira, Euskadiko landa eremuetan estrategia berritzailea inplementatzea delarik bere helburua.

Mendinetek lehentasunezko aukera guneak identifikatzen ditu jardura ekonomikoa dibertsifikatzeko sei sektore estrategikoetan: turismoa, aisia, abentura, osasuna, ongizatea, lehen sektorearentzako eta nekazaritzako elikagaien sektorearentzako lagungarriak diren zerbitzuak, bioteknologia, ekonomia zirkularra, biztanleentzako dendak eta zerbitzuak, sormen industria eta artisautza.

Mendinetek, halaber, lau laguntza neurri eta hainbat proiektu diseinatu ditu, batzuk bereak eta beste batzuk lankidetzakoak, sektore estrategiko horietako jardura ekonomikoak dibertsifikatzeko. Hauek dira neurrien, ekintzen eta proiektuen helburuak:

- Pertsona fisikoei eta eratutako enpresei laguntzea eta aholkatzea, jardura ekonomikoen dibertsifikazioa eta ekintzailatza babesteko eta indartzeko.
- Enpresa berrien ekintzailatza bultzatzea.
- Lehendik dauden enpresak finkatzea, jardura ekonomikoen dibertsifikazioa eta jarraipena bultzatzea.
- Pertsonalaren kontratazioa bultzatzea.
- Guneak gaitzea jardura ekonomikoak sor daitezen.
- Toki garapenerako ekintzen alderdi berritzailea indartzea eta jarduketara arloen lehiakortasuna indartzen laguntzea, lankidetzako proiektuen bitartez.

- Gero eta erreferentziakoagoa izatea lurralde agente moduan edo landa garapeneko agente moduan eta aholkularitza oso bat eskaintzea.

Estrategiaren xedea da LEADER eremua espazio erakargarria bihurtzea bai bizitzeko bai elkarbizitzarako, jarduera ekonomiko jasangarria sortuz eta lehendik dagoenari eutsiz, balio proposamen argi baten bidez. Mendinetek Estrategia honen bidez nahi du lankidetzan oinarritutako LEADER eremu inklusibo bat lortzea, eremuan bizi direnentzat erakargarria izango dena.

Horregatik, Estrategia osoan zehar eta neurri guztiak aplikatzerakoan, oso kontutan izango dira zeharkakoak diren zenbait elementu, lehentasunezkoak diren elementuak guztiak ere, LEADER eremuaren garapena bultzatzeko eta idiosinkrasia errespetatzeko:

- Mendinetentzat **lehentasunezkoa** da gaur egun dauden enpresen erreleboa ziurtatzea, **bertako biztanleen** ekimenak sustatzea, **eskualde/herri kalteberenak** indartzea eta **enplegua sustatzea emakume, gazte eta kolektibo kalteberen artean**. Horretarako, diskriminazio positiboa aplikatuko da neurriak baloratzerakoan.
- Mendinetentzat, halaber, funtsezkoa da **jarduera nagusia nekazaritza** duten nekazariak beren jarduera ekonomikoa **dibertsifikatzea**, bereziki emakume nekazariak. Lerro espezifikoak aktibatu dira neurrietan, haiek indartzeko asmoz.
- Bestalde, LEADER eremuaren idiosinkrasia errespetatzeko, ezinbestekoa da proiektuak **eskualdearen estrategiara** moldatzea. Horregatik, proiektuak baloratzerakoan kontuan izaten da haiek zenbateraino egokitzen diren Eskualdeetako Landa Garapeneko Programetara.
- **Gizarte eta ingurumen** jasangarritasuna ere kontuan izango da. Energia iturri berriztagarriak erabiltzeagatik edo ekonomia zirkularreko printzipioetako batzuk aplikatzeagatik, ingurumen aldetik begiratuta jasangarriak diren proiektuei lagunduko zaie. Gizarte jasangarritasuna ere funtsezkoa da LEADER eremua sozialki inklusiboa den eremua izan dadin.
- Azkenik, aipatu behar da **lankidetzako** proiektuak garatzea askorako balio duela, tresna ona delako ideia eta planteamendu berriak ezagutzeko, ezaupideak zabaltzeko, jardunbide egokiak elkar trukatzeko eta berrikuntza produktuetan eta landa zerbitzuetan hedatzeko. Horregatik, Mendinetentzat **lehentasunezkoa** izango da lankidetzak, lurralde arteko eta nazioarteko proiektuak garatzea.

Denboraldi estrategiko berri honetan, beharrezkoa da Mendineten eta horren entitate bazkideen zeregina indartzea. Ikuspegian adierazi den moduan, Mendinetek erreferentziazko agente liderra izan nahi du, Euskadiko landa eremuak garatzen

laguntzeko. Horregatik, Mendinetek, neurriak diseinatzeaz eta kudeatzeaz gain, lankidetza proiektuak ere lideratu nahi ditu beste agenteekin batera; proaktiboa izango da estrategikotzat hartzen diren jardueretan.

2.6.3 Estrategiak GJHein bat

5. taula – Estrategia-GJH bat eginda

	- Pobrezia areagotu egin zen EAEn krisi garaian eta egoera oraindik ez da leheneratu, krisi aurreko tasetara bueltatu, nahiz eta azken urteotan berdintasun adierazleek hobera egin. - Mendinetek ekonomia jarduera eta enplegua eragin nahi ditu, bere laguntzen bidez; beraz, bere helburu nagusietako bat da LEADER eremuko biztanleen egoera ekonomikoa hobetzea.
	Mendinetek Osasuna eta Ongizate sektorea dauka identifikatuta landa eremuetan dibertsifikatu behar den sektore estrategiko moduan.
	Genero berdintasuna da Mendineten lehentasunezko gaitako bat. Horregatik, diskriminazio positiboa aplikatzen da emakumearentzat zeharka neurri guztietan, bereziki emakume nekazarientzat.
	Era berean, desberdintasunak murrizte aldera, diskriminazio positiboa gazteentzat eta kolektibo kalteberentzat ere aplikatzen da.
	Mendinetek energia eskuragarrien eta ez-kutsatzaileen erabilera bultzatu nahi du; begi onez ikusten ditu ingurumenaren aldetik begiratuta jasangarriak diren proiektuak.
	Mendinetek duintasuna eta berdintasuna defendatzen ditu landa eremuetan. Kontratazioko laguntza neurriaren xedea da kalitatezko enplegua bultzatzea, eta neurri guztiek jarduera ekonomikoa eragitea dute helburu.
	Mendinetek bere ekarpena egiten du LEADER eremuko enpresa ehunaren berrikuntzarako. Hala, funtsezkoak dira inbertsioen inguruan ematen dituen laguntza eta aholkularitza eta bideratzen dituen subentzioak.
	Mendinetek ekonomia zirkularreko sektorea dauka identifikatuta landa eremuetan dibertsifikatu behar den sektore estrategiko moduan; ekoizpen eta kontsumo jasangarriak lerro estrategikoetako bat osatzen dute landa eremuetan.



- Sareko lanak eta lankidetzak Mendineten funtsezko beste zutabeetako bat osatzen dute. Horregatik, proiektuetan baloratu beharreko beste irizpide bat da eta Mendinetek lankidetzak proiektu propioak aktibatzen ditu.

2.7 ILDO ESTRATEGIKOAK

Lehen adierazi den bezala, LEADER-en helburu nagusia da LEADER eremuko jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa eta enplegu sorrera sustatzea. Horregatik, plan estrategiko hau definitzeko, LEADER eremurako etorkizun gehien duten sektoreak identifikatu dira, lehenik eta behin, eta, ondoren, ildo estrategikoak eta ekintza plan espezifikoak definitu dira identifikatutako sektore bakoitzerako.

Hauek dira identifikatutako aukera sektoreak, lehenetsiko direnak:

6. taula – Sektoreen deskripzioa

SEKTOREA	DESKRIPZIOA
Turismoa, gastronomia, aisia eta abentura	Sektorean sartzen da turismo, gastronomia, aisia eta abenturarekin lotutako edozein jarduera garatzea, eremuko gaur egungo jarduera eskaintza zabaltzen duten enpresak edo ekimenak lehenetsiz, hain zuzen ere jarduera turistikoan, aisialdiko eta abenturako jardueren, tokiko produktuetan oinarritutako goi mailako sukaldaritzaren eta landa eremuetako turismo ostatuko establezimenduak arautzen dituen apirilaren 16ko 199/2013 Dekretuan zehaztutako landa ostatuaren eskaintza zabaltzen duten enpresak edo ekimenak. Jarduerak hauek garatuko dira, besteak beste: mendi ibiliak eta trail-ak, mendiko bizikleta, landa ostatua, abentura parkeak, hezkuntza programak, enoturismoa, ekoturismoa, ur turismoa, ur geza eta gaziko arrantza, bisitak baserrietara, naturako turismoa, espiritualitate turismoa eta goi mailako sukaldaritzako jatetxeak.
Nekazaritzako elikagaien industriarako eta lehen sektorerako zerbitzu osagarriak	Sektorean sartzen da lehen sektoreari eta nekazaritzako elikagaien industriako sektoreei zerbitzua ematen dien edozein jarduera garatzea. Sektorean sartzen dira, halaber, sektore horietan ekimenen bat jarri nahi duten pertsonak sentsibilizatzeko eta laguntzeko ekintzak, halako ekimenetarako dauden programen inguruan.
Ekonomia zirkularra	Sektore honetan sartzen dira sektorearekin lotutako lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzen duten negozio ereduak. Ekodiseinuarekin, lehengoratzearrekin, birmanufakturarekin, birziklatzearekin, birsalmentarekin edo erabilera partekatzeak plataformekin lotutako proiektuak.
Osasuna eta ongizatea	Sektore honetan sartzen dira biztanleria osoaren bizi kalitatea hobetzen eta ongizatea sustatzen laguntzera bideratutako jarduerak guztiak.
Bioteknologia	Sektore honetan sartzen dira prozesu biologikoei aplikatutako teknologia jarduerak. Hainbat bioteknologia mota daude. Plan

	estrategiko honetan, hauek sartzen dira: bioteknologia berdea (nekazaritza eta abeltzaintza), bioteknologia zuria (industria prozesuak), bioteknologia grisa (ingurumena), bioteknologia urdina (itsasoa) eta bioteknologia gorria (biosanitarioa).
Merkataritza, zerbitzuak, jatetxeak, artisautza eta sormen eta kultura industria	Sektore honetan sartzen dira merkataritza, zerbitzu, jatetxe, artisautza eta sormen industriarekin lotutako jarduerak. Hauek dira sektore honetan Mendinetentzat lehentasuna duten jarduerak: - K1 eta K2 eremuetako dendak edo tabernak/jatetxeak. Horiek K3 eta K4 eremuetan lehenetsiko dira, baldin eta populazio guneetan halako zerbitzurik ez badago. - Hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten dendak edo tabernak/jatetxeak. - Artisautzarekin eta kultura eta sormen industriarekin lotutako jarduera oro. - Biztanleriarentzat funtsezkoak diren zerbitzuak.

2.7.1 Ildo estrategikoak identifikatzea

Jarraian, ildo estrategikoak xehatzen dira identifikatutako sektore estrategiko bakoitzean:

7. taula – Sektoreak eta ildo estrategikoak

1. SEKTOREA: Turismoa, gastronomia eta aisia eta abentura
1. ILDO ESTRATEGIKOA: Turismo, gastronomia eta aisia eta abenturarekin lotutako enpresak sortzen, mantentzen eta erakartzen laguntzea.
2. ILDO ESTRATEGIKOA: Lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria dibertsifikatzen laguntzea; horretarako, turismo, gastronomia eta aisia eta abenturarekin lotutako jardura berriak garatuko dira landa eremuetan.
3.. ILDO ESTRATEGIKOA: Jardura ekonomikoa sortuko duten enpresak sortzen eta erakartzen laguntzea; horretarako, landa eremuetako enpresentzako zerbitzu osagarrien eskaintza egingo da.
2. SEKTOREA: Nekazaritzako elikagaien industriarako eta lehen sektorerako zerbitzu osagarriak
1. ILDO ESTRATEGIKOA: Nekazaritzako elikagaien industriari eta nekazaritza sektoreari zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkieten enpresak sortzen, mantentzen eta erakartzen laguntzea.
2. ILDO ESTRATEGIKOA: Lehen sektoreari eta nekazaritzako elikagaien industriari laguntzea sentsibilizazioan eta trebakuntzan, nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien test-guneak prestatuz.
3. SEKTOREA: Ekonomia zirkularra
1. ILDO ESTRATEGIKOA: Ekonomia zirkularraren lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzen dituzten jarduketek laguntzea. Ekodiseinuarekin, lehengoratzearekin, birmanufakturarekin, birziklatzearekin, birsalmentarekin edo erabilera partekatzeko plataformekin lotutako proiektuak.
4. SEKTOREA: Osasuna eta ongizatea
1. ILDO ESTRATEGIKOA: Osasunaren eta ongizatearen arloko zerbitzu enpresak sortzen, mantentzen eta erakartzen laguntzea.
2. ILDO ESTRATEGIKOA: Zainketetan eta ongizatean diharduten oinarri teknologikoko enpresak erakartzea.
5. SEKTOREA: Bioteknologia
1. ILDO ESTRATEGIKOA: <i>Startup</i> ak eta bioteknologiako enpresak erakartzea.
2. ILDO ESTRATEGIKOA: LEADER eremuko enpresei laguntzea bioteknologiaren sektore aldera.
6. SEKTOREA: Merkataritza, zerbitzuak, jatetxeak, artisautza eta sormen eta kultura industria
1. ILDO ESTRATEGIKOA: Merkataritza, zerbitzu, jatetxe eta sormen eta kultura industriarekin lotutako enpresak sortzen eta mantentzen laguntzea, arreta berezia ipiniz zerbitzu anitzeko zerbitzua eskaintzen duten enpresei, betiere zerbitzu sozialak eta oinarrizko beharrak asetzen dituzten zerbitzuak badira.

2.7.2 Ildo estrategikoen helburuak

Era berean, ildo estrategiko bakoitzean erdiesti nahi diren helburuak ere definitu dira:

8. taula – Ildo estrategikoak eta helburuak

1. SEKTOREA: Turismoa, gastronomia eta aisia eta abentura	HELBURU OROKORRAK
1.1 IE: Turismo, gastronomia eta aisia eta abenturarekin lotutako enpresak sortzen, mantentzen eta erakartzen laguntzea, fokoa jarduera horietan bereziki jarritz.	- Egungo jarduera eskaintza zabaltzen duten enpresak edo ekimenak sustatzea, hain zuzen ere jarduera turistikoak, aisialdiko eta abenturako jarduerak, tokiko produktuetan oinarritutako goi mailako sukaldaritza eta landa eremuetako ostatuko establezimenduak lehenetsiz. - Egungo establezimenduak mantentzea eta enpresetan erreleboa bultzatzea gazteen eta emakumeen partetik. - Ekintzailatza ahalbidetzea emakume, gazte eta kolektibo kalteberen artean.
1.2 IE: Lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria dibertsifikatzen laguntzea; horretarako, turismo, gastronomia eta aisia eta abenturarekin lotutako jarduera berriak garatuko dira landa eremuetan.	- Lehen sektorearen/nekazaritzako elikagaien sektorearen dibertsifikazioa sustatzea turismo, gastronomia eta aisia eta abentura sektoreetan. - Nekazaritza jarduera nagusia duten emakume eta gizonen nekazaritza errenta osatzea. - Balio erantsia ematea nekazaritzako/nekazaritzako elikagaiei.
1.3 IE: Jarduera ekonomikoa sortuko duten enpresak sortzen eta erakartzen laguntzea; horretarako, landa eremuetako enpresentzako zerbitzu osagarrien eskaintza egingo da.	- Turismo, gastronomia eta aisia eta abentura sektoreei zerbitzuak ematen dizkieten enpresak sortzea ahalbidetzea. - Sektoreari erantzuten dioten enpresa berritzaileak eta digitalak sortzea.
2. SEKTOREA: Nekazaritzako elikagaien industriarako eta lehen sektorerako zerbitzu osagarriak	HELBURU OROKORRAK
2.1 IE: Nekazaritzako elikagaien industriari eta nekazaritza sektoreari zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkieten enpresak sortzea, mantentzea eta erakartzea.	- Lehen sektoreari eta nekazaritza elikagaien sektoreari zerbitzuak ematen dizkieten enpresak sortzea, mantentzea eta erakartzea bultzatzea. - Lehen sektorea eta nekazaritza elikagaien sektoreak sentsibilizatzea ekintzailatza bultzatzeko.
2.2 IE: Lehen sektore eta nekazaritzako elikagaien sektorearentzako laguntza, sentsibilizazioa eta trebakuntzari laguntzea, test-guneak gaituz.	- Pertsona ekintzaileei edo erreleboa egitekotan dauden enpresei laguntzea eta haiek nekazaritzako elikagaien eta nekazaritzaren sektoreei laguntzeko programetara zuzentzea. - Lehen sektoreko eta nekazaritza elikagaien sektoreko enpresen erreleboa bultzatzea.
3. SEKTOREA: Ekonomia zirkularra	HELBURU OROKORRAK
3.1 IE: Ekonomia zirkularraren lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzen dituzten jarduketek laguntzea. Ekodiseinuarekin, lehengoratzearrekin,	Zirkularragoak diren negozio eredu berriak sortzea bultzatzea (esaterako, baliabide kontrola eta aprobetxamendua, material berriztagarriak, lehengoratzeari, birmanufaktura, berrerabilpen...).

birmanufakturarekin, birziklatzearekin, birsalmentarekin edo erabilera partekatzeako plataformekin lotutako proiektuak.	- Berrikuntza bultzatzea energia zirkularreko prozesuetan eta produktuetan (esaterako, datuen analisia, baliabide naturalak erabiltzea energia sortzeko). - Material jasangarri berriak ikertzen dituzten enpresak sortzea bultzatzea (esaterako, berrikuntza bioteknologian, bioeraikuntzan...). - Produktuen ekodiseinua bultzatzea, produktuen bizitza baliagarria luzatzeko (haien diseinutik kontsumo fasera arte eta hondakinen sorrera arte). - Hondakinen (biologikoen eta ez biologikoen) berrerabiltze, birziklatze eta berreskuratze tasak handitzea, betiere nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien sektoreetako hondakinekin eta beste hondakin batzuekin lotuta.
4.. SEKTOREA: Osasuna eta ongizatea	HELBURU OROKORRAK
4.1 IE: Osasunaren eta ongizatearen arloko zerbitzu enpresak sortzea, mantentzea eta dibertsifikatzea bultzatzea.	- Zerbitzu berrien eskaintza handitzea osasunaren eta ongizatearen arloan. - Enplegua sortzea osasunaren eta ongizatearen arloan. - Egungo enpresen dibertsifikazioa handitzea osasunaren eta ongizatearen arloan.
4.2 IE: Zainketetan eta ongizatean diharduten oinarri teknologikoko enpresak erakartzea.	- Zainketetan eta ongizatean diharduten oinarri teknologikoko enpresak sortzea eta erakartzea. - Enplegua sortzea teknologia arloan. - Ekintzailatzarako espazioak/lokalak bultzatzea.
5. SEKTOREA: Bioteknologia	HELBURU OROKORRAK
5.1 IE: <i>Startup</i> ak eta bioteknologiako enpresak erakartzea.	- Euskadiko ekintzaletza ekosistemako parte izatea. - Bioteknologia arloarekin lotutako agenteen sareko parte izatea. - Bioteknologia sektoreko <i>startup</i>ak eta enpresak LEADER eremura erakartzea. - Bioteknologiako enpresa esperientziak ezagutzea, haiei buruzko ezagutza handiagoa izateko. - Enplegua sortzea sektore honetan.
5.2 IE: LEADER eremuko enpresei laguntzea bioteknologiaren sektore aldera.	- Bioteknologia aldera dibertsifikatzen duten enpresen kopurua handitzea. - Bioteknologia arloarekin lotutako agenteen sareko parte izatea. - LEADER eremuan jarri daitezen laguntzea. - Bioteknologiako enpresa esperientziak ezagutzea, haiei buruzko ezagutza handiagoa izateko.
6. SEKTOREA: Merkataritza, zerbitzuak, jatetxeak, artisautza eta sormen eta kultura industria	HELBURU OROKORRAK
6.1 ie: Merkataritza, zerbitzu, jatetxe eta sormen eta kultura industriarekin lotutako enpresak sortzen eta mantentzen laguntzea, arreta berezia ipiniz zerbitzu anitzeko zerbitzua eskaintzen duten enpresei, betiere	- Lehendik dauden zerbitzuak mantentzea, sendotzea eta modernizatzea. - Merkataritza eta zerbitzu establezimenduen kopurua handitzea. - Biztanleriari gizarte arloko zerbitzu anitzen aldeko apustua egiten duten merkataritza eta zerbitzu establezimenduen kopurua handitzea.

zerbitzu sozialak eta oinarritzko beharrak asetzen dituzten zerbitzuak badira.	• Enplegua sortzea.
--	---

2.7.3 Jarduketa ildoak

Ildo estrategikoak definitu ondoren, jarduketa ildoak (JI) xehatuko dira lehen identifikatutako sektore bakoitzeko.

Turismoa, gastronomia eta aisia eta abentura

9. taula – Jarduketa ildoak 1. sektorean

1. SEKTOREA: Turismoa, gastronomia eta aisia eta abentura	
1.1 IE: Turismo, gastronomia eta aisia eta abenturarekin lotutako enpresak sortzen, mantentzen eta erakartzen laguntzea.	• <u>1.1.1 JI</u>: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • <u>1.1.2 JI</u>: Trebakuntza, establezimenduen erreleboa hartuko duten pertsona ekintzaileei pertsonen kudeaketaren arloan. • <u>1.1.3 JI</u>: Asoziazionismoa bultzatzea lehendik dauden edo sor litezkeen elkarten artean eta lankidetzatza sustatzea sektoreko eta entitate publiko-pribatuko agenteen artean.
L.E.1.2: Lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria dibertsifikatzen laguntzea; horretarako, turismo, gastronomia eta aisia eta abenturarekin lotutako jardura berriak garatuko dira landa eremuetan.	• <u>1.2.1 JI</u>: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • <u>1.2.2 JI</u>: Trebakuntza, establezimenduen erreleboa hartuko duten pertsona ekintzaileei pertsonen kudeaketaren arloan. • <u>1.2.3 JI</u>: Asoziazionismoa bultzatzea lehendik dauden edo sor litezkeen elkarten artean eta lankidetzatza sustatzea sektoreko eta entitate publiko-pribatuko agenteen artean.
L.E.1.3: Jardura ekonomikoa sortzen duten enpresak sortzen eta erakartzen laguntzea, landa-ingurune turismoenpresei laguntza emango dieten zerbitzuak eskainiz.	• <u>1.3.1 JI</u>: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • <u>1.3.2 JI</u>: Trebakuntza, establezimenduen erreleboa hartuko duten pertsona ekintzaileei pertsonen kudeaketaren arloan. • <u>1.3.3 JI</u>: Asoziazionismoa bultzatzea lehendik dauden edo sor litezkeen elkarten artean eta lankidetzatza sustatzea sektoreko eta entitate publiko-pribatuko agenteen artean.

Lehen sektorerako eta nekazaritzako elikagaien industriarako zerbitzu osagarriak

10. taula – Jarduketa ildoak 2. sektorean

2. SEKTOREA: Nekazaritzako elikagaien industriarako eta lehen sektorerako zerbitzu osagarriak	
2.1 IE: Nekazaritzako elikagaien industriari eta	• <u>2.1.1 JI</u>: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • <u>2.1.2 JI</u>: Dauden espazioak eta baliabideak hedatzea eta lokal bilaketa erraztea.

nekazaritza sektoreari zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkieten enpresak sortzen, mantentzen eta erakartzen laguntzea.	• <u>2.1.3 JI</u>: Informazio kanpainak, jardunaldiak eta beste hainbat jarduera gauzatzea komunitatea sortze aldera. • <u>2.1.4 JI</u>: Lankidetzak bultzatzea sektoreko agenteen eta entitate publiko-pribatuen artean.
2.2 IE: Lehen sektoreari eta nekazaritzako elikagaien industriari laguntzea sentsibilizazioan eta trebakuntzan, nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien test-guneak prestatuz.	• <u>2.2.1 JI</u>: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • <u>2.2.2 JI</u>: Espazioak prestatzea eta laguntza ematea lehen sektorean eta nekazaritzako elikagaien sektorean ekintzailetzarako dauden laguntza programen inguruan. • <u>L.A.2.2.3</u>: Pertsona ekintzaileei laguntzea lehen sektorerako eta nekazaritzako elikagaien sektorerako dauden laguntzak iristen ez dire prozesuetan.

Ekonomia zirkularra

11. taula – Jarduketa ildoak 3. sektorean

3. SEKTOREA: EKONOMIA ZIRKULARRA	
3.1 IE: Ekonomia zirkularren lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzen dituzten jarduketei laguntzea. Ekodiseinuarekin, lehengoratzearekin, birmanufakturarekin, birziklatzearekin, birsalmentarekin edo erabilera partekatzeko plataformekin lotutako proiektuak.	• 3.1.1 JI: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • 3.1.2 JI: Ekonomia zirkularreko trebakuntzan eta sentsibilizazioan laguntzea. • 3.1.3 JI: Lankidetzeta eta sareko lana sustatzea ekonomia zirkularren inguruko ekintzaitzaren ekosisteman. • 3.1.4 JI: Pertsona ekintzaileei eta ekintzaitzako ekosistema orokorrari laguntzea (unibertsitateei, ikerketa zentroei...).

Osasuna eta ongizatea

12. taula – Jarduketa ildoak 4. sektorean

4. SEKTOREA: OSASUNA ETA ONGIZATEA	
4.1 IE: Osasunaren eta ongizatearen arloko zerbitzu enpresak sortzen, mantentzen eta erakartzen laguntzea.	• 4.1.1 JI: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • 4.1.2 JI: Ekintzaitzarako trebakuntza hautatutako arloetarako. • 4.1.3 JI: LEADER eremuan egonaldi programak sustatzea sektore honekin lotutako proiektuak bultzatzen dituzten pertsonentzat, ekintzaitzarako landa espazioen sarea lehenetsiz. • 4.1.4 JI: Espazioen eskaintza eta eskaintza, publikoa nahiz pribatua, lotzea, jarduera ekonomikoa sortzeko. • 4.1.5 JI: Lankidetzeta bultzatzea sektoreko agenteen eta entitate publiko-pribatuen artean.
4.2 IE: Zainketetan eta ongizatean diharduten oinarri teknologikoko enpresak erakartzea.	• 4.2.1 JI: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • 4.2.2 JI: LEADER eremuan egonaldi programak sustatzea sektore honekin lotutako proiektuak bultzatzen dituzten pertsonentzat, ekintzaitzarako landa espazioen sarea lehenetsiz. • 4.2.3 JI: LEADER eremua eskaintzea testak egiteko gune moduan. • 4.2.4 JI: Ekosistema espezializatu bat sortzea (Start-up) era honetako proiektuentzat agente estrategikoekin. • 4.2.5 JI: Espazioen eskaintza eta eskaintza, publikoa nahiz pribatua, lotzea, jarduera ekonomikoa sortzeko.

Bioteknologia

13. taula – Jarduketa ildoak 5. sektorean

5. SEKTOREA: BIOTEKNOLOGIA	
5.1 IE: <i>Startup</i> ak eta bioteknologiako enpresak erakartzea.	• <u>5.1.1 JI</u>: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • <u>5.1.2 JI</u>: Ateak zabaltzeko egunak antolatzea ekintzaileentzat, landa eremuek eskaintzen dizkieten aukerak ezagutu ditzaten. • <u>5.1.3 JI</u>: Sareko lana bioteknologiaren arloarekin zerikusia duten agenteekin eta lotura izatea landa eremuetako agenteekin. • <u>5.1.4 JI</u>: Sareko lana LEADER eremuak ekintzailatzarako dituen baldintzen eskaintza definitzeko. • <u>5.1.5 JI</u>: Lankidetzak sustatzea tokiko agenteekin. • <u>5.1.6 JI</u>: Bisita teknikoak egitea beste lurralde batzuetara, esperientziak ezagutzeko.
5.2 IE: LEADER eremuko enpresei laguntzea bioteknologiaren sektore aldera.	• <u>5.2.1 JI</u>: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea. • <u>5.2.2 JI</u>: Bioteknologiaren inguruko informazioa ematea. • <u>5.2.3 JI</u>: Bioteknologiari buruzko jardunaldi inspiratzaileak antolatzea LEADER eremuko enpreseentzat. • <u>5.2.4 JI</u>: Bioteknologiako enpresak bisitatzea interesa duten pertsonekin. • <u>5.2.5 JI</u>: Sareko lana bioteknologiaren arloarekin zerikusia duten agenteekin eta lotura izatea dibertsifikatzera doazen agenteekin.

Merkataritza, zerbitzuak, jatetxeak, artisautza eta sormen eta kultura industria

14. taula – Jarduketa ildoak 6. sektorean

6. SEKTOREA: MERKATARITZA, ZERBITZUAK, JATETXEAK, ARTISAUTZA ETA KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIIA	
6.1 IE: Merkataritza, zerbitzu, jatetxe eta sormen eta kultura industriarekin lotutako enpresak sortzen eta mantentzen laguntzea, arreta berezia ipiniz zerbitzu anitzeko zerbitzua eskaintzen duten enpresei, betiere zerbitzu sozialak eta oinarrizko beharrak asetzen dituzten zerbitzuak badira.	• <u>6.1.1 JI</u>: Ildo estrategikorako behar diren laguntza neurriak eskaintzea, lehenetsiz zerbitzu anitzeko zerbitzua eskaintzen duten enpresak, betiere zerbitzu sozialak eta oinarrizko beharrak asetzen dituzten zerbitzuak badira. • <u>6.1.2 JI</u>: Pertsona ekintzaileei eta ekintzailatzako ekosistema orokorrari laguntzea. • <u>6.1.3 JI</u>: Lankidetzak eta sareko lana sustatzea ekintzailatzako ekosisteman. • <u>6.1.4 JI</u>: Proiektu pilotua edo lankidetzarako proiektua, izaera soziala duen zerbitzu anitzeko merkataritza/jatetxeetan jarnbide egokien eskuliburua definitzeko. • <u>6.1.5 JI</u>: Modu koordinatuan lan egitea Landaekingunesarea proiektuarekin, LEADER eremuan ipini nahi duten enpresei laguntzeko.

2.7.4 Lehenetsitako eremuak sektoreka

Illo estrategikoak, helburu espezifikoak eta jarduketa illoak definitu ondoren, atal honetan aurreko ataletan definitutako eremu lehenetsiak azalduko dira labur-labur. Lehenetsitako eremu horien arabera diseinatuko dira Mendineten laguntza neurriak eta funtzionamendua bera, proaktibitateari eta lankidetzari dagokienez.

Lehenetsitako bi arlo eremu mota daude. Alde batetik, Mendineten sektore estrategikoetako aukera eremuak eta, bestetik, kontuan izan beharreko zeharkako gai aipagarriak edozein dela ere sektorea. Zeharkako gaiak 2.6.2 Estrategian azaldu dira. Jarraian, eremu lehenetsiak xehazteen dira, sektoreka.

15. taula – Eremu lehenetsiak sektoreka

1. SEKTOREA: Turismoa, gastronomia eta aisia eta abentura
· Gaur egungo jarduera turistikoen eta aisialdiko eta abenturako jardueren eskaintza zabaltzen duten proiektuak. · Goi mailako sukaldaritzako eta tokiko produktuetako proiektu gastronomikoak. · Landa eremuetako turismo-ostatu-ostatuko establezimenduak arautzen dituen apirilaren 16ko 199/2013 Dekretuan zehaztutako landa-ostatuak.
2. SEKTOREA: Nekazaritzako elikagaien industriarako eta lehen sektorerako zerbitzu osagarriak
· Nekazaritzako elikagaien eta nekazaritzaren sektoreari zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkieten proiektuak. · Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien test-guneak.
3. SEKTOREA: Ekonomia zirkularra
· Negozio-eredu zirkularra duten proiektuak: ekodiseinua, birziklapena, birmanufaktura, berreskurapena, birsalmenta eta erabilera partekatuko plataformak.
4. SEKTOREA: Osasuna eta ongizatea
· Osasun eta ongizate zerbitzuak eskaintzen dituzten proiektuak.
5. SEKTOREA: Bioteknologia
· Bioteknologiarekin lotutako proiektuak.
6. SEKTOREA: Merkataritza, zerbitzuak, jatetxeak, artisautza eta sormen-industria

- K1 eta K2 gunetako dendak edo tabernak/jatetxeak. Horiek K3 eta K4 eremuetan lehenetsiko dira, baldin eta populazio gunetan halako zerbitzurik ez badago.
- Zerbitzu anitzeko eskaintza duten dendak edo tabernak/jatetxeak.
- Kultura- eta sormen-industriarekin lotutako proiektuak.
- Herritarrentzat funtsezkoak diren zerbitzuak eskaintzen dituzten proiektuak.

2.8 LAGUNTZA NEURRIAK DEFINITZEA

Lau neurri hauen helburua da enpresei laguntzea sortze, abian jartze eta finkatze faseetan.



15. irudia – Neurrien laburpena tipologien eta faseen arabera

Sortze eta abian jartze faseetan, enpresa onuradunek ekintzailtza, inbertsio eta kontratazio neurriak eskuratzeko aukera izan dezakete.

Bestalde, finkatze fasean, enpresa onuradunek inbertsio eta kontratazio neurriak eskuratzeko aukera izan dezakete.

Era berean, guneak gaitzeko neurri bat ere aktibatu da. Neurri horren onuradunak izango dira toki entitateak, sektore publikoa, LGEak eta irabazi asmorik gabeko entitateak.

2.8.1 Ekintzailatzarako eta barne ekintzailatzarako neurria

Neurriaren deskribapena

LEADER eremuan finkatuta dauden eta nekazaritza jarduerak ez diren enpresa eta negozio lerro berriak eta nekazaritza enpresen dibertsifikazioa sortzeko, abian jartzeko eta hasierako funtzionamendurako neurria, enpresa horien forma juridikoa dena dela.

Neurri horrek bi proiektu mota babesten ditu. Eskatzaileak aukeratu egin beharko du 1. lerroa edo 2. lerroa, kontuan izanda 1. lerroa 2. lerroan dagoela:

1. lerroa – Enpresa berria sortzeko laguntza:

Enpresa berria edo negozio-lerro berria sortzeko laguntza, oroharreko zenbateko finko batekin.

- Enpresa berria: edozein pertsona fisikok edo juridikok jarduera ekonomiko berri bat sortzea, jarduera ekonomikoetan alta berri bat ematea (ogasuneko alta eta gizarte-segurantzako alta). Kopuru finko bat ematen da jarduera ekonomiko berri bat sortzeagatik.

2. lerroa – Proiektu ekintzailea garatzeko laguntza:

Enpresa berria edo negozio-lerro berria sortzea, 1. lerroan deskribatutako irismenetik haratago, beste gastu mota batzuk dituen. Gastu horiek laguntza-ehuneko batekin finantzatu dira, oroharreko zenbatekoaz gain. Horrela, ibilbide ekintzailean lagundu nahi da proiektua martxan jartzen den bitartean. 1. lerroko kopuru finkoaz gain, portzentaje bat ematen da laguntza moduan, gastuetarako edo inbertsio txikietarako.

Nekazaritza-dibertsifikazioan, diruz laguntzeko moduko 2. lerroko gastuak bakarrik finantzatu dira, eta ez da zenbateko finkoa emango oroharreko prezioan.

Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak, ikastetxe arautuak eta energia ekoizten duten enpresak, nola eta tokiko energia komunitateak ez diren; dena den, mikroenpresak badira, laguntza izan dezakete. Gainera, ez dute dirulaguntzarik jasoko Energiaren Euskal Erakundearengandik (EEE) dirulaguntzak jaso ditzaketen kontzeptuek.

Bestalde, Partzuergoak landa eremutat hartzen direnez, eta horien ezaugarri eta berezitasunengatik, gune horietan egingo diren jarduera ekonomikoko proiektuak babestuko dira. Partzuergoek beren muga propioak dituzte eta unitate baten gisa hartuko da horietako bakoitza. Erroldatutako biztanleriarik ez dutenez, erakunde horietan ezin izan dira aplikatu adierazleak gainerako erakundeetan bezala. Horregatik, proiektu horiek aztertu ahal izateko, K2 kalteberatasun maila duten zonatzat hartuko dira.

Helburuak

Laguntza honen xedea da LEADER eremuan jarduera ekonomiko berria sortzea/mantentzea sustatzea eta hasierako laguntza ematea.

Jarduera ekonomiko berriak abian jartzeko ahalegin ekintzailea aitortze aldera, eta bereziki LEADER eremuan, laguntzak emango dira jarduera ekonomiko berriak sortzeko, ibilbide ekintzailean gauzatu beharreko ekintzentzat eta dagokion proiektua abian jartzeko.

Neurri honek jarduera ekonomikoa sustatzen eta enplegua sortzen lagundu nahi du, horiek baitira programa honen Mendinet Estrategiaren ardatz nagusiak.

Laguntzen izaera

Deialdi honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli behar ez diren horietakoak izango dira. Oroharreko prima bat emango da eta, hala badagokio, lagun daitekeen zenbatekoaren ehuneko bat.

Aurkeztu den jarduketa proiektu bakoitzari eman beharreko hasierako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, jarduketa gauzatuko den eremua eta pertsona onuradunaren ezaugarriak hartuko dira kontutan.

Pertsona onuradunak

Neurri honen pertsona onuradun izan daitezke:

- LEADER eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute.
- Mikro-enpresak eta enpresa txikiak.
- 1. Kalteberatasun maila duten inguruko enpresa ertainak.
- Beste pertsona juridiko batzuk:
 - Ondasun-erkidegoak
 - Sozietate zibilak
 - Eta abar.
- Pertsona fisikoak: banakako enpresariak.
- Eratze prozesuan dauden pertsona fisikoak eta juridikoak.

Ezingo da laguntzarik eman krisialdian dauden enpresei, krisialdian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauetan ezarritako definizioaren arabera.

Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. lerroa

Zenbateko zehatz bat emango da proiektuaren eta eskatzaile motaren arabera, eta zenbateko horrekin honako gastu hauek ordaintzen lagunduko da:

- Notario-gastuak.
- Dedikazioa: pertsona ekintzaileen lehen bi urteetako autonomoen gehieneko kuota autonomoa.
- Aholkularitza fiskala, lanekoa, kontabilitatekoa, juridikoa edo administratiboa.
- Enpresa-plana abian jarriko den lokala ohiko etxebizitza ez denean, lokaleko ohiko gastuak, hala nola alokairuak, argia eta ura.
- Enpresarien edo profesionalen elkarteetako partaidetza-kuotak eta elkargoetako gastuak.
- Finantza-gastuak.

2. lerroa

Diruz laguntzeko modukoak izango dira honako gastu eta inbertsio txiki hauek:

- Enpresarako prestakuntza eta prestakuntza espezifikoa.
- Kanpoko lanak:
 - Aholkularitza, kanpoko laguntza teknikoa, prospekzio-azterketak, dokumentazioa, merkatua eta/edo bideragarritasuna.
- Azoketara joatea.
 - Sarrera.
 - Txartelak aurkeztuz justifikatutako bidaiak.
 - Egonaldia, bi gauetakoa gehienez.
- Maketak eta prototipoak egitea.
- Komunikazioa eta publizitatea:
 - Web orrien diseinua, erregistroa eta hostinga, sare sozialen diseinua, katalogoen diseinua eta edizioa, kartelak, bisita txartelak, errotulazio gastuak, publizitate kanpainak, etab.
- Patenteak, homologazioak, erabilgarritasun-ereduak eta marka komertzialak eskatzeko, emateko eta erregistratzeko hasierako gastuak.
- Ekipamendu informatikoa (softwarea eta hardwarea). Gehienez ere 700,00 €-ko dirulaguntza emango da ordenagailu bakoitzeko, 300 €-koa tableta bakoitzeko eta 400 €-koa telefonoetarako.
- Programa informatikoak edo telefono mugikorretarako aplikazioak erostea edo garatzea.

Diruz lagun ez daitezkeen gastuak

Laguntza zehazteko orduan ez dira kontuan hartuko enpresa-planean jasota egon daitezkeen partida hauek:

- Oro har, lursailak eta etxebizitzak, eta etxerako ibilgailuak erostea edo alokatzea.
- Material suntsikorak erostea, prototipoen eraikuntzarako ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Langile-gastuak.
- Dietak.
- BEZa, Estatuko legeriaren arabera berreskuratzeko modukoa ez denean salbu.
- Zuzeneko zergak, gizarte-aurreikuspeneko edozein erregimenetarako kontribuzioak eta berreskuratu daitezkeen zeharkako zergak.
- Mota guztietako interesak, errekaratuak, isunak, zehapenak, berme-gastuak, prozedura judizialen gastuak, errentamendu-kontratuekin lotutako gastuak, gastu orokorrak eta gastu arruntak (1. lerroan deskribatutakoekin lotutakoak izan ezik) eta aseguruari lotutako gastuak.
- Aldaketek edo beste edozein arrazoik kontratistari eragindako deskontuak eta itzulketak edo ordainketak.

Pertsona onuradunak azpikontratutako kanpoko enpresak ez dira berarekin pertsonalki eta/edo profesionalki inplikaturik egongo; era berean, ez dute loturarik izango zuzenean edo zeharka, akzio edo partaidetzen bidez.

Lotura hori dagoenean, dagokion Gobernu Zuzendaritzari baimena eskatu beharko zaio zerbitzua kontratatu aurretik hori onar dezan, hala, diruz lagun daitezkeen gastutzat har dadin.

2. lerroko gastuetarako eta inbertsio txikietarako, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira gutxienez —eskaintzetako kontzeptuek elkarren artean alderatzeko modukoak izan behar dute—, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik; aurkeztutakoak (eskaintza bat edo bi) onartuko dira. Eskaerarekin batera hiru eskaintzak aurkeztu ez badira (salbuespena izan ezik), inbertsioa edo gastua ez da kontuan hartuko diruz lagun daitezkeen zenbatekoa kalkulatzeko.

Hautagarritasun baldintzak

- a) Alta eragin duen jarduera ekonomikoa zuzenean lotuta egotea aurkeztutako negozio planarekin.
- b) Enpresa moduan alta emanda egotea aurreko deialdian eskaerak aurkezteko azkeneko egunaren eta irekita dagoen deialdian eskaerak aurkezteko azkeneko egunaren artean.

Proiektu bat 2. lerroko amaitu gabe dagoela ulertuko da proiektuak fakturaren bat ordaintzeko edo ordainketaren bat egiteko duenean proiektua amaitu gabe dagoela dioen aktaren dataren ondoren.

c) Honako hauek dira lerro bakoitzaren hautagarritasun-baldintzak:

- 1. LERROA Enpresa berria sortzea: oinarrizko Canvas edo enpresa plan bat aurkeztu beharko du horretarako dagoen ereduaren arabera laguntzaren lehen lerrorako. Eredua deialdi bakoitzean egongo da.
- 2. LERROA_Proiektu ekintzailea garatzea: enpresa plan bat aurkeztu beharko du, Mendinetek definitutako ereduaren agertzen diren gutxieneko puntuak jasotzen dituen plana alegia. Eredua deialdi bakoitzean egongo da.

d) Pertsona eskatzaile izateko betekizunak:

- a) LEADER eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute.
- b) Nekazaritzakoak ez diren mikro-enpresek eta enpresa txikiek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiri-eremuan ere, betiere dibertsifikazioa LEADER eremuan egiten badute.
- c) Nekazaritzakoak ez diren enpresa ertainek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, betiere diruz lagundutako jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikoa LEADER eremuko K1 eremuan badago.
- d) Pertsona fisikoek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, betiere dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikoa LEADER eremuko K1 eremuan badago.
- e) LEADER eremuan diruz lagundutako jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikorik ez badago, pertsona fisikoek LEADER eremuan erroldatuta egon beharko dute, ustategiek eta enpresek LEADER eremuan izan beharko dute egoitza soziala, eta enpresa ertainek LEADER eremuko K1 eremuan izan beharko dute egoitza soziala.

e) Pertsona onuradun izateko betekizunak:

- a) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.
- f) Entitate eskatzaileak berak kudeatuko du jarduera ekonomikoa, laguntzen onuradun bada, neurriak dituen betebeharrak betetz.

Administrazio eta finantza kontuak eta bateraezintasunak.

Pertsona onuradunak alta emanda egon behar du enpresa gisa, baita bere jarduerak ere, etenik gabe, Gizarte Segurantzaren eta EJZn alta eman eta hurrengo bi urteetan.

Estrategia honetan definitutako laguntzek minimis laguntzen inguruan Batzordearen abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduak xedatutako arauak errespetatuko dituzte, hain zuzen ere Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Ituneko 107 eta 108 artikulua minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien zehazten duen Erregelamenduak xedatutako arauak. Erregelamendua 2023ko abenduaren 15ean argitaratu zen.

Estrategia honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu nazional edo nazioarteko batzuek helburu berberarako eman ditzaketen beste laguntzekin, betiere laguntzek gainditzen ez badute minimis Erregelamenduak edo, hala badagokio, kategorien salbuespenei buruzko Erregelamenduak entitate bakoitzeko ezartzen duen gehieneko zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoak ezingo du izan, inolaz ere, helburu berberarako bakarka edo beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu nazional edo nazioarteko batzuen laguntza batzuekin batera, diruz lagun daitezkeen jarduketan kostua baino handiagoa.

Europar Parlamentuaren eta Europar Batzordearen abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduak xedatutakoaren arabera, ezingo dira finantzatu NBEF Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren edo LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez Europar Batasuneko beste funts edo tresna batzuen bidez finantzatutako gastuak.

Eragiketak LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez finantzatu ahal izango dira, nahiz eta Europar Batasuneko beste funts edo tresna batzuetatik finantzazioa lortu, betiere funts guztietatik jasotako laguntza osoa esku-hartze bakoitzean ezarritako laguntzaren gehieneko intentsitatea edo zenbatekoa baino handiagoa ez bada. Hala gertatzen bada, ezingo dira finantzatu LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez beste funts batzuetatik laguntza jaso duten eragiketak. Dena den, faktura bat proportzionalki hainbat gastutan zatitu daiteke, finantzazioa hainbat funtsetatik jasotzeko.

Laguntza hauek bateraezinak dira Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren beste laguntza agindu batzuetan sartzen diren kontzeptuekin.

Hasieran aurreikusitako baliabideak eta haien haztapena gauzatu beharreko ekintza guztiekiko

Hasieran aurreikusitako baliabideak: 2.912.500,00 €

Haztapena gauzatu beharreko ekintza guztiekiko: %10,30

Espero diren emaitzak/adierazleak

16. taula – Ekintzailtza eta barne ekintzailtza neurriaren adierazleak

ADIERAZLE/	HELBURUA
Sortutako enpresa kopurua	200
Dibertifikatutako enpresa kopurua (EJZ berria)	50
Sortutako lanpostu kopuru gordina	230

Dirulaguntzen intentsitatea eta zenbatekoa

1. LERROA: Laguntzaren zenbatekoa finkoa izango da, eskatzailearen profilaren eta proiektuaren kokapenaren arabera.

17. taula – Laguntzen zenbatekoa, ekintzailatza eta barne ekintzailatza neurriarena

	Gizona	Emakumea	gizon gaztea <30 urte / kolektibo kaltebera	emakume gaztea <30 urte / kolektibo kaltebera
K1	8.050,00	8.855,00	9.257,50	10.183,25
K2	7.490,00	8.239,00	8.613,50	9.474,85
K3	7.210,00	7.931,00	8.291,50	9.120,65
K4	7.000,00	7.700,00	8.050,00	8.855,00

Zenbateko hori kalkulatzeko, eskatzaileak deialdiaren urtean zenbat urte betetzen dituen hartuko da kontuan.

Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, gazteen kategorian sartzeko, gutxienez bazkideen % 50 gazteak direla eta gutxienez kapital sozialaren % 50 bazkide gazteen esku dagoela justifikatu beharko da.

Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, kolektibo kalteberaren kategorian sartzeko, gutxienez bazkideen % 50 kalteberak direla eta gutxienez kapital sozialaren % 50 bazkide kalteberen esku dagoela justifikatu beharko da.

Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, emakumeen kategorian sartzeko, gutxienez bazkideen % 50 emakumezkoak direla eta gutxienez kapital sozialaren % 50 bazkide emakumezkoen esku dagoela justifikatu beharko da.

2. LERROA:

Laguntza kalkulatzeko, gastuen eta inbertsio txikien zenbatekoa hartuko da kontuan, eta %75ekoa izango da.

Gehienez 50.000 € emango dira 1. lerroaren eta 2. lerroaren artean.

1- Eskatzailea jarduera nagusia nekazaritza duen pertsona bat bada, % 10eko zenbatekoa gehituko zaio laguntzaren zenbatekoari.

2- Eskatzailea jarduera nagusia nekazaritza duen ustiategi baten emakume titularra edo titularkidea bada, edo emakumeen esku dauden ehuneko eta partaidetza sozialak gutxienez % 50 diren pertsona juridikoa bada (elkargokideak bi badira), edo gainerako kasuetan gutxienez orekatua bada, % 25eko igoera emango zaio ezarritako laguntzaren zenbatekoarekiko.

Lehentasun irizpide hauen arabera emango da laguntza:

- 1 Kalteberatasun-maila: mailaka lehenetsiko da, lehentasun gehien duenetik (K1) gutxien duenera (K4).
- 2 Eskatzaile mota: jarduera nagusia nekazaritza duten emakumeek sustatutako proiektuak lehenetsiko dira (jarduera nagusia nekazaritza duten gizonezkoen aurretik), gero emakume gazteak edo kolektibo kalteberetakoak (egoera berean dauden gizonen aurretik), eta, azkenik, emakumeak (gizonen aurretik).
- 3 Laguntza-lerroa: 2. lerroko proiektuak lehenetsiko dira (1. lerroko proiektuen aurrean) eta, lehenengoaren barruan, diruz lagun daitekeen gastuaren arabera; zenbat eta gastu handiagoa, orduan eta lehentasun handiagoa izango dute.

Ordaintzea

Dirulaguntza emateko orduan, bi lerroetan emandako dirulaguntzaren % 50 ordainduko da.

Gainerako % 50a egindako gastuak justifikatzean ordainduko da. Justifikazio hori hilabete bateko epean aurkeztu beharko da, jarduera ekonomikoari alta eman eta urtebetara, justifikazio-agiriak aurkeztuta.

2.8.2 Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko neurria

Neurriaren deskribapena

Nekazaritzakoak ez diren jarduerak sortzeko eta garatzeko inbertsioak egiten laguntzeko neurria, bi lerro hauen bidez:

- LEADER eremu osoan mikroenpresak eta enpresa txikiak sortzen eta garatzen laguntzeko lerroa, eta K1 eremuan enpresa ertainak.
- Nekazaritzakoak ez diren jardueretan inbertsioak egiten dituzten ustategien dibertsifikazioan laguntzeko lerroa, nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaiak ustiatetik kanpo merkaturatzea barne (LEADER eremuan).

Neurri honek jarduera ekonomikoa sustatzen eta enplegua sortzen lagundu nahi du, horiek baitira programa honen Mendinet Estrategiaren ardatz nagusiak.

Garapen gisa hartuko dira enpresa bati bere jarraitutasuna eta lehiakortasuna bermatzeko behar dituen ekintza guztiak, mantentzeko berritze lanez haratago.

Negozioak berritzearekin lotutako inbertsioei dagokienez, honako bi kasu hauetan bakarrik hartuko dira kontuan.

- Herritarrei zerbitzua zuzenean ematen dieten negozio finkatuetan (**>5 urte**): diruz laguntzeko modukoak izango dira eremua nabarmen zaharberritzeko inbertsioak, berritzeko inbertsioak (makinak, altzariak...) edo araudietara egokitzeko inbertsioak (irisgarritasuna, osasun publikoa...), eta behin bakarrik izango da onuradun aldi osoan zehar. Herritarrentzako zuzeneko zerbitzutzat hartuko dira EAEko LEADER eremuko biztanleak bezero dituzten zerbitzu-enpresak.
- Arreta bereziko eremutzat jotzen diren eremuetan kokatutako enpresa finkatuak (**>5 urte**) eskatu ahal izango dute, horiek eskaintzen duten zerbitzu mota dena dela, eta behin bakarrik izango dira onuradun aldi osoan zehar.

Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak, ikastetxe arautuak eta energia ekoizten duten enpresak, nola eta tokiko energia komunitateak ez diren; dena den, mikroenpresak badira, laguntza izan dezakete. Gainera, ez dute dirulaguntzarik jasoko Energiaren Euskal Erakundearengandik (EEE) dirulaguntzak jaso ditzaketen kontzeptuek.

Bestalde, Partzuergoak landa eremutzat hartzen direnez, eta horien ezaugarri eta berezitasunengatik, gune horietan egingo diren jarduera ekonomikoko proiektuak babestuko dira. Partzuergoek beren muga propioak dituzte eta unitate baten gisa hartuko da horietako bakoitza. Erroldatutako biztanleriarik ez dutenez, erakunde

horietan ezin izan dira aplikatu adierazleak gainerako erakundeetan bezala. Horregatik, proiektu horiek aztertu ahal izateko, K2 kalteberatasun maila duten zonatzat hartuko dira.

Helburuak

Hauek dira neurri honen helburuak:

- Jarduera ekonomikoak dibertsifikatzeko enpresa proiektuak sustatzea, lehen definitutako ildo estrategikoen arabera, ustategien garapen ekonomikoa eta enpleguaren mantentzea edo haztea ahalbidetzeko.
- Enpresak sortzea sustatzea.
- Lanpostu berriak sortzea eta, hala, landa eremuetako biztanleriaren mantentzea edo ugartzea ahalbidetzeko.
- Enpresa joera eta biztanleriaren trebakuntza indartzea.
- Biztanleriari zerbitzu zuzena emanez lehendik diharduten enpresek jarrai dezaten laguntzea.
- Enpresen jasagarritasunera eta ekonomia zirkularraren irizpideak aplikatzera bideratutako ekintzak indartzea.
- Enpresen erreleboa, jarduera nagusia nekazaritza duten emakume eta gizon nekazarien dibertsifikazioa eta gazteen, emakumeen eta kolektibo kalteberen ekimenak sustatzea.

Laguntzen izaera

Deialdi honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli behar ez diren horietakoak izango dira.

Deialdi honetan araututako laguntza-lerro bakoitza norgehiagoka esleituko da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.1 artikuluan ezartzen denez.

Aurkeztu den jarduketa proiektu bakoitzari eman beharreko hasierako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurkeztutako proiektuak konparatu eta, konparaketa egiterakoan, finkatutako irizpideak eta balorazioa hartuko dira kontutan.

Pertsona onuradunak

Neurri honen pertsona onuradun izan daitezke:

- LEADER eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute.
- Mikro-enpresak eta enpresa txikiak.
- 1. Kalteberatasun maila duten inguruko enpresa ertainak.
- Beste pertsona juridiko batzuk:

- Ondasun-erkidegoak
 - Sozietate zibilak
 - Eta abar.
- Pertsona fisikoak: banakako enpresariak.
 - Eratze prozesuan dauden pertsona fisikoak eta juridikoak.

Ezingo da laguntzarik eman krisialdian dauden enpresei, krisialdian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu laguntzei buruzko zuzentarauean ezarritako definizioaren arabera.

Diruz lagun daitezkeen gastuak

Diruz lagundu ahal izango dira egindako inbertsio materialak edo ez-materialak:

- Higiezinak:
 - Eraikinak erostea.
- Obra:
 - Eremuak eta lotutako beste azpiegitura batzuk urbanizatzea, eraikitzea eta birgaitzea.
 - Arkitektoen eta ingeniarien ordainsariak: obran diruz lagun daitezkeen kostuaren % 15 gehienez.
- Makinak eta ekipoak:
 - Erostea edo erosteko aukera duen errentamendua, produktuak merkatuan duen baliora arte.
 - Jarduera berriari lotutako bigarren eskuko erosketa, aurreko 5 urteetan beste laguntzarik jaso ez badute.
 - Ekipamendu informatikoa (softwarea eta hardwarea). Gehienez ere 700,00 €-ko dirulaguntza ordenagailu bakoitzeko eta 300 €-koa tableta bakoitzerako.
- Ibilgailuak:
 - Erostea, jarduera ekonomikoa pertsonak edo salgaiak garraiatzea denean.
 - Erostea, diruz lagundutako jarduera bertan egiten bada eta egokitzapen handia egin behar izan bada.
 - Diruz lagunduko den jarduera garatzeko egokitzapena.
- Altzariak eta tresnak.
- Komunikazioa:
 - Web-orriak garatzea, sare sozialak diseinatzea eta abian jartzeko publizitatea.

- Ibilgailuetako eta eraikinetako errotulazio-gastuak.
- Lotutako azterlanak:
 - Proiektuari lotutakoak: diruz lagun daitekeen kostuaren % 10 gehienez.
- Inbertsio ukiezinak:
 - Programa informatikoak edo telefono mugikorretarako aplikazioak erostea edo garatzea.
 - Patenteak, lizentziak, egile-eskubideak eta/edo erregistratutako markak eskuratzea.

Diruz lagun daitekeen gutxieneko inbertsioa 5.000 €-koa izango da, BEZik gabe.

Diruz lagun ez daitekeen gastua

- Oro har, lursailak eta etxebizitzak, eta etxerako ibilgailuak erostea edo alokatzea.
- Telefono terminalak erostea.
- Komunikazio eta publizitate gastuak, aurreko puntuan jasotakoa salbu.
- Elementuak eta makinak lekuz aldatzea, eta/edo makinak edo ekipamenduak aldatzea edo ordeztzea, aurreko puntuan jasotzen den kasuetan salbu.
- Negozio-intsuldatzeak.
- BEZa, Estatuko legeriaren arabera berreskuratzeko modukoa ez denean salbu.
- Zuzeneko zergak, gizarte-aurreikuspeneko edozein erregimenetarako kontribuzioak eta berreskuratu daitezkeen zeharkako zergak.
- Mota guztietako interesak, errekaruak, isunak, zehapenak, finantza-gastuak eta berme-gastuak, prozedura judizialen gastuak, errentamendu-kontratuekin lotutako gastuak, gastu orokorrak eta gastu arruntak, eta aseguruiei lotutako gastuak.
- Aldaketek edo beste edozein arrazoik kontratistari eragindako deskontuak eta itzulketak edo ordainketak.

Ekintzailetzari eta barne-ekintzailetzari laguntzeko neurriaren laguntza kalkulatzeko barematu den gastua ez da gastu hautagarritzat hartuko nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan egiten diren inbertsioei laguntzeko neurrian.

Pertsona onuradunak azpikontratutako kanpoko enpresak ez dira berarekin pertsonalki eta/edo profesionalki inplikaturik egongo; era berean, ez dute loturarik izango zuzenean edo zeharka, akzio edo partaidetzen bidez.

Lotura hori dagoenean, dagokion Gobernu Zuzendaritzari baimena eskatu beharko zaio zerbitzua kontratatu aurretik hori onar dezan, hala, diruz lagun daitekeen gastutzat har dadin.

Hornitzaile desberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko dira gutxienez (haien kontzeptuek elkarren artean alderatzeko modukoak izan behar dute), obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik; aurkeztutako eskaintzak onartuko dira (eskaintza bat edo bi). Eskaerarekin batera hiru eskaintzak aurkezten ez badira (salbuespena kenduta), inbertsioa edo gastua ez da kontuan hartuko diruz lagun daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko.

Hautagarritasun baldintzak

- Enpresa-plan osoa, Mendinetek zehaztutako funtsezko puntu guztiekin.
- Nekazaritza-dibertsifikazioaren kasuan, onuradunak nekazaritza izan behar du lanbide nagusi.
- Proiektua 2023ko urtarrilaren 1aren ondoren hasia (NPBPE Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren esparrua) eta laguntza-eskaera aurkezterakoan amaituta ez egotea (ez amaitu izanaren akta).
- Entitate eskatzaileak berak kudeatuko du jarduera ekonomikoa, laguntzen onuradun bada, neurriak dituen betebeharrak betetz.

Proiektu bat amaitu gabe dagoela ulertuko da proiektuak fakturaren bat ordaintzeko edo ordainketaren bat egiteko duenean proiektua amaitu gabe dagoela dioen aktaren dataren ondoren.

- Pertsona eskatzaile izateko betekizunak:
 - 1) Dibertsifikatzen duten ustiatzeko edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiri-eremuan ere, betiere dibertsifikazioa LEADER eremuan egiten badute.
 - 2) Nekazaritzakoak ez diren mikro-enpresek eta enpresa txiki eta ertainek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiri-eremuan ere, betiere dibertsifikazioa LEADER eremuan egiten badute.
 - 3) Pertsona fisikoek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, betiere dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisiko LEADER eremuko K1 eremuan badago.
 - 4) LEADER eremuan diruz lagundutako jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikorik ez badago, pertsona fisikoek LEADER eremuan errolatuta egon beharko dute, eta ustiatzeko eta enpresek LEADER eremuan izan beharko dute egoitza soziala.
- Pertsona onuradun izateko eskakizunak:

Indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.

Administrazio eta finantza kontuak eta bateraezintasunak.

Pertsona onuradunak ondasuna erosten denetik gutxienez 5 urtez mantendu beharko ditu diruz lagundutako inbertsioak. Ondasun higigarriak, ondasun higiezinak eta obra zibila ezin izango dira besterendu edo epe horretan diruz lagundu ziren helburuetarako erabili.

Estrategia honetan definitutako laguntzek minimis laguntzen inguruan Batzordearen abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduak xedatutako arauak errespetatuko dituzte, hain zuzen ere Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Ituneko 107 eta 108 artikulua minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien zehazten duen Erregelamenduak xedatutako arauak. Erregelamendua 2023ko abenduaren 15ean argitaratu zen.

Europar Batasunak ezarrita dauka estatu kide batek enpresa bakar bati eman diezaiokeen minimis laguntza, guztira, ez da 300.000 euro baino gehiago izango hiru ekitaldi fiskaletan zehar.

Estrategia honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu nazional edo nazioarteko batzuek helburu berberarako eman ditzaketen beste laguntzekin, betiere laguntzek gainditzen ez badute minimis Erregelamenduak edo, hala badagokio, kategorien salbuespenei buruzko Erregelamenduak entitate bakoitzeko ezartzen duen gehieneko zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoak ezingo du izan, inolaz ere, helburu berberarako bakarka edo beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu nazional edo nazioarteko batzuen laguntza batzuekin batera, diruz lagun daitezkeen jarduketan kostua baino handiagoa.

Laguntzen zenbatekoak ezingo du izan, inolaz ere, helburu berberarako bakarka edo beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu nazional edo nazioarteko batzuen laguntza batzuekin batera, diruz lagun daitezkeen jarduketan kostua baino handiagoa.

Europar Parlamentuaren eta Europar Batzordearen abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduak xedatutakoaren arabera, ezingo dira finantzatu NBEF Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren edo LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez Europar Batasuneko beste funts edo tresna batzuen bidez finantzatutako gastuak.

Eragiketak LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez finantzatu ahal izango dira, nahiz eta Europar Batasuneko beste funts edo tresna batzuetatik finantzazioa lortu, betiere funts guztietatik jasotako laguntza osoa esku-hartze bakoitzean ezarritako laguntzaren gehieneko intentsitatea edo zenbatekoa baino handiagoa ez bada. Hala gertatzen bada, ezingo dira finantzatu LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez beste funts batzuetatik laguntza jaso duten eragiketak. Dena den, faktura bat proportzionalki hainbat gastutan zatitu daiteke, finantzazioa hainbat funtsetatik jasotzeko.

Laguntza hauek bateraezinak dira Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren beste laguntza agindu batzuetan sartzen diren kontzeptuekin.

Hasieran aurreikusitako baliabideak eta haien haztapena gauzatu beharreko ekintza guztiekiko

Hasieran aurreikusitako baliabideak: 20.911.602,66 €

Haztapena gauzatu beharreko ekintza guztiekiko: 73,94%

Espero diren emaitzak/adierazleak

18. taula – Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko neurria

ADIERAZLEA	HELBURUA
Sortutako lanpostu kopuru gordina	230
Hobetutako enpresa kopurua	130
Nekazaritza dibertsifikazioaz hobetutako enpresa kopurua	20
Sortutako enpresa kopurua	200

Balorazio irizpideak/lehentasunak

Puntuazioa finkatzeko, aurrez zehaztutako irizpide batzuk baloratuko dira aurkeztutako dokumentazio guztia kontuan hartuta.

Irizpide horietako bakoitzari puntuazio bat emango zaio, eta, beraz, eskaera bakoitzak bere puntuazioa izango du, irizpide bakoitzari emandako puntuen batuketa egin ondoren.

Nekazaritzako dibertsifikazioa sustatze aldera –hori da Mendineten Estrategiaren ardatz nagusietako bat–, neurri hori bitan banatzen da: nekazaritza-dibertsifikaziorako inbertsioak eta jarduera nagusia nekazaritza ez duten onuradunentzako inbertsioak.

«Nekazaritza-dibertsifikazioan» inbertsioak egiteko azpineurriaren irizpideak.

19. taula - «Nekazaritza-dibertsifikazioan» inbertsioetarako proiektuak baloratzeko irizpideak

BALORAZIO-IRIZPIDEA	PUNTUAK (100 puntu)	
MENDINETEN ESTRATEGIARA EGOKITZEA	20	<u>ESTRATEGIAN LEHENETSITAKO AUKERA- EREMUAK SEKTOREKA:</u> Lerroren batekin bat badator: 10 puntu Bat ez badator: 0 puntu <u>ZEHARKAKO ARDATZAK:</u> - Asoziazionismoa eta sareko lana proposatutako proiektuetan. - Belaunaldien arteko erreleboa. - Gainerako intsuldaketak. - Emakumeen, gazteen eta kolektibo kalteberen enplegua sustatzea. - Jasangarritasuna. - Enpresa hornitzaileak/Tokiko produktua. - Mota horretako enpresa bakarra udalerrian. - Babestutako eremu naturalean dagoen enpresa. • 4 ardatz betetzen baditu: 10 puntu • 3 ardatz betetzen baditu: 8 puntu • 2 ardatz betetzen baditu: 5 puntu • Ardatz 1 betetzen bada: 2 puntu • Ardatzik betetzen ez bada: 0 puntu *Belaunaldien arteko erreleboaren ardatzak puntuazio bikoitza izango du, hau da, betekizun hori betetzen bada, 2 puntuazio-ardatz hartuko dira kontuan.
KALTEBERATASUN MAILA	20	JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIO-EREMURAKO EGINDAKO LEADER EREMUAREN KARAKTERIZAZIOAREN ARABERA • k1: 20 puntu • k2: 12 puntu • k3: 8 puntu • k4: 5 puntu
ESKUALDEKO ESTRATEGIARA EGOKITZEA	15	Proiektuak aztertuko dira, puntu hori baloratzeko balioko duen gidoi normalizatu bat oinarritzat hartuta.
PROIEKTUA	10	
Tutoretza-ziurtagiria	5	Egiaztagiria aurkeztuta • Tutoretza du: 5 puntu • Ez du tutoretzarik: 0 puntu

Enplegua sortzea	5	SORTUTAKO LANPOSTU KOPURUAREN ARABERA • 2 lanpostu edo gehiago: 4 puntu • Lanpostu 1: 3 puntu • Ez du lanposturik sortzen: 0 puntu (*Lortutako puntuazioari puntu 1 gehituko zaio sortutako lanpostu hori emakumea bada edo, 2 lanposturen edo gehiagoren kasuan, erdia gutxienez emakumeak badira)
TALDE SUSTATZAILEA	35	
Lurraldearekiko lotura	6	ERAKUNDE ESKATZAILEAREN KOKAPENAREN ARABERA: egoitza soziala LEADER eremuan (pertsona fisikoen kasuan, kontuan hartuko dira autonomo gisa duten antzinasuna eta erroldatze data) • Euskadiko LEADER eremuan > 5 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 6 puntu • Euskadiko LEADER eremuan > 3 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 3 puntu • Euskadiko LEADER eremuan > 1 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 2 puntu • Gainerako eremuetan < 1 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala izatea: 0 puntu
Prestakuntza eta esperientzia	8	BETI ZIURTAGIRI EDO FROGAGIRIEKIN • Prestakuntza > 500 ordu: 4 puntu • Esperientzia > 2 urte: 4 puntu • Prestakuntza > 200 ordu: 2 puntu • Esperientzia > 1 urte: 2 puntu • Prestakuntza > 100 ordu: 1 puntu • Prestakuntza egiaztatu gabe: 0 puntu • Esperientzia egiaztatu gabe: 0 puntu
Enpresaren tamaina	6	• Mikroenpresa: 6 puntu • Enpresa txikia: 4 puntu • Enpresa ertaina: 2 puntu
Pertsona sustatzailea	15	• Jarduera nagusia nekazaritza duen emakumea: 15 puntu

		*8/2015 Legea, urriaren 15koa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa. Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, 15 puntu lortzeko, gutxienez bazkideen % 50 emakumezkoak direla eta gutxienez kapital sozialaren % 50 bazkide emakumezkoen esku dagoela justifikatu beharko da.
--	--	--

“Nekazaritzakoak ez diren enpreetan” inbertsioak egiteko azpineurriaren irizpideak.

10. taula – “Nekazaritzakoak ez diren enpreetan” inbertsioak egiteko proiektuak baloratzeko irizpideak.

BALORAZIO-IRIZPIDEA	PUNTUAK (100 puntu)	
MENDINETEN ESTRATEGIARA EGOKITZEA	20	<u>ESTRATEGIAN LEHENETSITAKO AUKERA- EREMUAK SEKTOREKA:</u> Lerroren batekin bat badator: 10 puntu Bat ez badator: 0 puntu <u>ZEHARKAKO ARDATZAK:</u> - Asoziazionismoa eta sareko lana proposatutako proiektuetan. - Belaunaldien arteko erreleboa. - Gainerako intsuldaketak. - Emakumeen, gazteen eta kolektibo kalteberen enplegua sustatzea. - Jasangarritasuna. - Enpresa hornitzaileak/Tokiko produktua. - Mota horretako enpresa bakarra udalerrian. - Babestutako eremu naturalean dagoen enpresa. • 4 ardatz betetzen baditu: 10 puntu • 3 ardatz betetzen baditu: 8 puntu • 2 ardatz betetzen baditu: 5 puntu • Ardatz 1 betetzen bada: 2 puntu • Ardatzik betetzen ez bada: 0 puntu *Belaunaldien arteko erreleboaren ardatzak puntuazio bikoitza izango du, hau da, betekizun hori betetzen bada, 2 puntuazio-ardatz hartuko dira kontuan.
KALTEBERATASUN MAILA	20	JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIO-EREMURAKO EGINDAKO LEADER EREMUAREN KARAKTERIZAZIOAREN ARABERA • k1: 20 puntu • k2: 12 puntu • k3: 8 puntu • k4: 5 puntu
ESKUALDEKO ESTRATEGIARA EGOKITZEA	15	Proiektuak aztertuko dira, puntu hori baloratzeko balioko duen gidoi normalizatu bat oinarritzat hartuta.
PROIEKTUA	15	
Tutoretza-ziurtagiria	5	Egiaztagiria aurkeztuta • Tutoretza du: 5 puntu • Ez du tutoretzarik: 0 puntu
Enplegua sortzea	10	SORTUTAKO LANPOSTU KOPURUAREN

		ARABERA • 2 lanpostu edo gehiago: 8 puntu • Lanpostu 1: 5 puntu • Ez du lanposturik sortu: 0 puntu (*Lortutako puntuazioari 2 puntu gehituko zaizkio sortutako lanpostu hori emakumezkoa bada edo, 2 lanpostu edo gehiagoren kasuan, erdiak gutxienez emakumeak badira)
TALDE SUSTATZAILEA	30	
Lurraldearekiko lotura	9	ERAKUNDE ESKATZAILEAREN KOKAPENAREN ARABERA: egoitza soziala LEADER eremuan (pertsona fisikoen kasuan, kontuan hartuko dira autonomo gisa duten antzinasuna eta erroldatze data) • Euskadiko LEADER eremuan > 5 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 9 puntu • Euskadiko LEADER eremuan > 3 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 6 puntu • Euskadiko LEADER eremuan > 1 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 3 puntu • Gainerako eremuetan < 1 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala izatea: 0 puntu
Prestakuntza eta esperientzia	10	BETI ZIURTAGIRI EDO FROGAGIRIEKIN • Prestakuntza > 500 ordu: 5 puntu • Esperientzia > 2 urte: 5 puntu • Prestakuntza > 200 ordu: 3 puntu • Esperientzia > 1 urte: 3 puntu • Prestakuntza > 100 ordu: 1 puntu • Prestakuntza egiaztatu gabe: 0 puntu • Esperientzia egiaztatu gabe: 0 puntu
Enpresaren tamaina	6	• Mikroenpresa: 6 puntu • Enpresa txikia: 4 puntu • Enpresa ertaina: 2 puntu
Pertsona sustatzailea	5	• Emakumea: 5 puntu Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, 5 puntu lortzeko, gutxienez bazkideen % 50 emakumezkoak direla eta gutxienez kapital sozialaren % 50 bazkide emakumezkoen esku dagoela justifikatu beharko da.

«Nekazaritza dibertsifikazioa» inbertsioen azpineurrian jasotako inbertsioen kasuan, % 25ekoa izango da gutxienekoa eta % 70ekoa gehienekoa.

«Nekazaritza dibertsifikazioan» egindako inbertsioen neurrian laguntza lortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa: 30 puntu.

«Nekazaritzakoak ez diren enpresak» inbertsioen azpineurriari dagokionez, diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 25 izango da gutxienekoa, eta diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 50 gehienez.

«Nekazaritzakoak ez diren enpresetan» egindako inbertsioen neurrian laguntza lortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa: 50 puntu.

Bi azpineurrietan, laguntzak muga bat izango du: 200.000 euro emango dira gehienez proiektuko deialdi bakoitzean.

Lortutako puntuazioaren arabera, honela gauzatuko da proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntzaren ehunekoa:

1. lerroa: Nekazaritza dibertsifikazioan egindako inbertsioak:

11. taula – «Nekazaritza dibertsifikazioan» inbertsioetarako laguntzen ehunekoen taula

PUNTUAK	LAGUNTZEN %	PUNTUAK	LAGUNTZEN %	PUNTUAK	LAGUNTZEN %	PUNTUAK	LAGUNTZEN %
100	70	82	59	64	47	46	36
99	69	81	58	63	47	45	35
98	69	80	57	62	46	44	35
97	68	79	57	61	45	43	34
96	67	78	56	60	45	42	33
95	67	77	55	59	44	41	33
94	66	76	55	58	43	40	32
93	66	75	54	57	43	39	31
92	65	74	54	56	42	38	31
91	64	73	53	55	41	37	30
90	64	72	52	54	41	36	29
89	63	71	52	53	40	35	29
88	62	70	51	52	40	34	28
87	62	69	50	51	39	33	28
86	61	68	50	50	38	32	27
85	60	67	49	49	38	31	26
84	60	66	48	48	37	30	25
83	59	65	48	47	36		

2. lerroa: «Nekazaritzakoak ez diren enpresetan» egindako inbertsioak:

12. taula – «Nekazaritzakoak ez diren enpresetan» egindako inbertsioetarako laguntzen ehunekoen taula

PUNTUAK	LAGUNTZEN %	PUNTUAK	LAGUNTZEN %	PUNTUAK	LAGUNTZEN %	PUNTUAK	LAGUNTZEN %
100	50	87	43	74	37	61	30
99	49	86	43	73	36	60	30
98	49	85	42	72	36	59	29
97	48	84	42	71	35	58	29
96	48	83	41	70	35	57	28
95	47	82	41	69	34	56	28
94	47	81	40	68	34	55	27
93	46	80	40	67	33	54	27
92	46	79	39	66	33	53	26
91	45	78	39	65	32	52	26
90	45	77	38	64	32	51	25
89	44	76	38	63	31	50	25
88	44	75	37	62	31		

Ordaintzea

Neurri honi dagokion ordainketa inbertsioa egin ondoren egingo da, justifikazio-agiriak aurkeztuta eta Mendineteko teknikariek ziurtagiria egin ondoren.

Neurri honetan bi zati ordaindu ahal izango dira interesdunak hala eskatuta ekitaldi bakoitzeko, proiektuaren zati bat gauzatu dela egiaztatzeko agiriak aurkeztu ondoren.

Laguntza emateko unean, pertsona onuradunaren izaera bereganatzen duen erakundeari dagokion erregistroan eraketa eta inskripzioa oraindik egin gabe badaude, ez da ordainketa partzialik egingo hura eratu arte.

2.8.3 Besteren kontura kontratatzeako neurria

Laguntzaren deskribapena

Laguntza honen bidez, mikro-enpresetako eta enpresa txikietako besteren konturako langileak kontratatzen lagundu nahi da (enpresa ertainak ere sartuko dira, 1. eremu kalteberetan), baita pertsona bat kontratatzen duten enpresarien kasuan ere, landa-eremuetako biztanleria kopurua mantentzen edo areagotzen lagunduko duten lanpostu berriak sortzeko helburuarekin.

«Lanpostuak sortzea» honela ulertuko da: establezimenduko lanpostu kopuru garbia handitzea aurreko urteko batez besteko kopuruaren aldean. Hortaz, kontuan hartutako epealdian sortutako ustezko lanpostu kopuruari epealdi horretan bertan deuseztatutakoak kendu beharko zaizkio.

Lanpostu kopuruaren handitze garbia kalkulatzeko, ez dira kontatuko praktikaldiko lan kontratuak, nola eta behar bezala justifikatzen ez diren dagokion entitatearekin sinatutako lankidetzak hitzarmenarekin batera.

Neurri honek jarduera ekonomikoa sustatzen eta enplegua sortzen lagundu nahi du, horiek baitira programa honen Mendinet Estrategiaren ardatz nagusiak.

Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak, ikastetxe arautuak eta energia ekoizten duten enpresak, nola eta tokiko energia komunitateak ez diren; dena den, mikroenpresak badira, laguntza izan dezakete. Gainera, ez dute dirulaguntzarik jasoko Energiaren Euskal Erakundearengandik (EEE) dirulaguntzak jaso ditzaketen kontzeptuek.

Bestalde, Partzuergoak landa-eremutzat hartzen direnez, eta horien ezaugarri eta berezitasunengatik, gune horietan egingo diren jarduera ekonomikoko proiektuak babestuko dira. Partzuergoek beren muga propioak dituzte eta unitate baten gisa hartuko da horietako bakoitza. Erroldatutako biztanleriarik ez dutenez, erakunde horietan ezin izan dira aplikatu adierazleak gainerako erakundeetan bezala. Horregatik, proiektu horiek aztertu ahal izateko, K2 kalteberatasun-maila duten zonatzat hartuko dira.

Helburuak

1. Jarduera ekonomikoak dibertsifikatzeko enpresa proiektuak sustatzea, ustiatzearen mantentzea eta enpleguaren haztea ahalbidetzeko.
2. Enpresak sortzea sustatzea.
3. Lanpostu berriak sortzea eta, hala, landa eremuetako biztanleriaren mantentzea edo ugartzea ahalbidetzeko, gazteengan arreta berezia ipiniz.
4. Biztanleriaren enpresa joera indartzea.

Laguntzen izaera

Deialdi honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli behar ez diren horietakoak izango dira. Oroharreko prima bat aplikatuz emango dira.

Aurkeztu den jarduketa proiektu bakoitzari eman beharreko hasierako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurkeztutako proiektua aztertuko da, kontuan hartuz jarduketa gauzatuko den eremua, pertsona onuradunaren ezaugarriak, pertsona kontratatua eta kontratu mota.

Pertsona onuradunak

Neurri hauen pertsona onuradun izan daitezke:

- LEADER eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute.
- Mikro-enpresak eta enpresa txikiak.
- 1. kalteberatasun-maila duten inguruko enpresa ertainak.
- Beste pertsona juridiko batzuk:
 - Ondasun-erkidegoak
 - Sozietate zibilak
 - Eta abar.
- Pertsona fisikoak: banakako enpresariak.
- Eratze prozesuan dauden pertsona fisikoak eta juridikoak.

Ezingo da laguntzarik eman krisialdian dauden enpresei, krisialdian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu laguntzei buruzko zuzentarauetan ezarritako definizioaren arabera.

Diruz lagun daitezkeen gastuak

Besteren konturako langileak kontratatzea laguntzen da. Nolanahi ere, enpleguak izan beharko du kasu bakoitzean aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak xedatutako orduen %50 gutxienez.

Hautagarritasun baldintzak

- Sortutako enplegua LEADER eremuan garatu behar da.
- Kontratazioa egina izatea aurreko deialdian eskaerak aurkezteko azkeneko egunaren eta irekita dagoen deialdian eskaerak aurkezteko azkeneko egunaren artean.
- Pertsona eskatzaile izateko betekizunak:
 - a. Dibertsifikatzen duten ustategiek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiri-eremuan ere, betiere dibertsifikazioa LEADER eremuan egiten badute.
 - b. Nekazaritzakoak ez diren mikro-enpresek eta enpresa txiki eta ertainek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiri eremuan ere, betiere

- dibertsifikazioa LEADER eremuan egiten badute.
- c. Pertsona fisikoek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, betiere dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikoa LEADER eremuan badago.
 - d. LEADER eremuan diruz lagundutako jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikorik ez badago, pertsona fisikoek LEADER eremuan errolatuta egon beharko dute, eta ustategiek eta enpresek LEADER eremuan izan beharko dute egoitza soziala.
- Pertsona onuradun izateko betekizunak:
 - a Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.

Administrazio eta finantza kontuak eta bateraezintasunak.

Sortutako enplegua eta horretarako ezarritako baldintzak eta betekizunak gutxienez 3 urtez mantendu beharko dira, kontratua sinatzen den unetik kontatzen hasita.

Estrategia honetan definitutako laguntzek minimis laguntzen inguruan Batzordearen abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduak xedatutako arauak errespetatuko dituzte, hain zuzen ere Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Ituneko 107 eta 108 artikulua minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien zehazten duen Erregelamenduak xedatutako arauak. Erregelamendua 2023ko abenduaren 15ean argitaratu zen.

Europar Batasunak ezarrita dauka estatu kide batek enpresa bakar bati eman diezaiokeen minimis laguntza, guztira, ez da 300.000 euro baino gehiago izango hiru ekitaldi fiskaletan zehar

Estrategia honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu nazional edo nazioarteko batzuek helburu berbererako eman ditzaketen beste laguntzekin, betiere laguntzek gainditzen ez badute minimis Erregelamenduak edo, hala badagokio, kategorien salbuespenei buruzko Erregelamenduak entitate bakoitzeko ezartzen duen gehieneko zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoak ezingo du izan, inolaz ere, helburu berbererako bakarka edo beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu nazional edo nazioarteko batzuen laguntza batzuekin batera, diruz lagun daitezkeen jarduketan kostua baino handiagoa.

Europar Parlamentuaren eta Europar Batzordearen abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduak xedatutakoaren arabera, ezingo dira finantzatu NBEF Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren edo LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez Europar Batasuneko beste funts edo tresna batzuen bidez finantzatutako gastuak.

Eragiketak LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez finantzatu ahal izango dira, nahiz eta Europar Batasuneko beste funts edo tresna

batzuetatik finantzazioa lortu, betiere funts guztietatik jasotako laguntza osoa esku-hartze bakoitzean ezarritako laguntzaren gehieneko intentsitatea edo zenbatekoa baino handiagoa ez bada. Hala gertatzen bada, ezingo dira finantzatu LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez beste funts batzuetatik laguntza jaso duten eragiketak. Dena den, faktura bat proportzionalki hainbat gastutan zatitu daiteke, finantzazioa hainbat funtsetatik jasotzeko.

Laguntza hauek bateraezinak dira Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren beste laguntza agindu batzuetan sartzen diren kontzeptuekin.

Hasieran aurreikusitako baliabideak eta haien haztapena gauzatu beharreko ekintza guztiekiko

Hasieran aurreikusitako baliabideak: 557.613,64 €

Haztapena gauzatu beharreko ekintza guztiekiko: %1,97

Espero diren emaitzak/adierazleak

13. taula – Besteren kontura kontratatzeke neurriaren adierazleak

ADIERAZLEA	HELBURUA
Sortutako lanpostu kopuru gordinak	85
Lagundu zaien enpresa kopurua	70

Dirulaguntzen intentsitatea eta zenbatekoa

Laguntza horiek ezin izango dute gairitu kontratatutako pertsonari dagokion bi urteko soldata gordinaren % 35a, zergak eta nahitaezko gizarte-kotizazioak aplikatu aurretik.

Laguntzaren zenbatekoa sortutako lanpostu bakoitzeko emango den kopuru finko bat izango da, betiere kontratatutako lanaldiaren arabera, hau da, zenbatekoa diruz lagunduko den lanpostuan pasatako denboraren arabera izango da.

Laguntza taula honen arabera emango da (% 100eko lanaldirako oinarria):

14. taula – Besteren kontura kontratatzeke laguntzen zenbatekoa

Kalteberatasuna	Gizona	Emakumea	Kolektibo kaltebera bateko gizona	Kolektibo kaltebera bateko emakumea
K1	6.500	7.000	7.000	7.500
K2	6.000	6.500	6.500	7.000
K3	5.500	6.000	6.000	6.500
K4	5.000	5.500	5.500	6.000

1. Eskatzailea jardura nagusia nekazaritza duen pertsona bat bada, ezarritako laguntzaren zenbatekoa baino % 10 gehiago emango da.

2. Eskatzailea jardura nagusia nekazaritza duen ustategi baten emakume titularra edo titularkidea bada, edo emakumeen esku dauden ehuneko eta partaidetza sozialak

gutxienez % 50 diren pertsona juridikoa bada (elkartekideak bi badira), edo gainerako kasuetan gutxienez orekatua bada, % 25eko igoera emango zaio ezarritako laguntzaren zenbatekoarekiko.

Lehentasun-irizpide hauen arabera emango da laguntza:

- 1 Kalteberatasun-maila: mailaka lehenetsiko da, lehentasun gehien duenetik (K1) gutxien duenera (K4).
- 2 Eskatzaile mota: jarduera nagusia nekazaritza duten emakumeek sustatutako proiektuak lehenetsiko dira (jarduera nagusia nekazaritza duten gizonezkoen aurretik), eta, gero, emakumeak (gizonen aurretik).
- 3 Enpresaren tamaina: mikroenpresak lehenetsiko dira, enpresa txikien aurretik, eta enpresa txikiak enpresa ertainen aurretik.
- 4 Kontratutako pertsona mota: talde kalteberetako emakumeak kontratatzen dituzten proiektuak lehenetsiko dira (baldintza berberetan dauden gizonen aurretik), eta, azkenik, emakumeak (gizonen aurretik).
- 5 Lanaldi mota: proiektuak lanaldi motaren arabera lehenetsiko dira, mailaz maila, % 100etik % 50era.

Ordaintzea

Laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, kontratazioa behar bezala egin dela eta laguntza emateko eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdi honetan ezartzen denarekin bat etorriz. Diruz lagundutako aldia (3 urte) bukatu ondoren, eta hala eskatzen zaiolarik, dirulaguntzaren xedea bete dela justifikatu beharko du enpresa edo entitateak, ematean finkatutako moduan.

2.8.4 Guneak gaitzeko neurria

Laguntzaren deskribapena

Neurri honek hirugarren pertsonentzako ekonomia-jarduerarako guneak sortzea edo egokitzea du helburu.

Guneek/lokalek hainbat erabilera izan ditzakete (coworkinga, bulegoak, ostalaritza...). Eremuak sustatzen laguntzea Euskadiko landa-ingurunean ekintzailatza eta jarduera ekonomikoa sustatzea da, eta ardatz horretan oinarritzen da, hain zuzen ere, Mendineten Estrategia.

Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien test-proiektuak 2.11 Lankidetzako proiektuak puntuan deskribatutako lankidetzako proiektuaren arabera izango dira.

Nekazaritzako elikagaien inguruko proiektuak garatzeko espazioak prestatzeko laguntzak emango dira, betiere biztanleei zerbitzu bat ematen badie eta erabilera partekatukoak badira.

Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak, ikastetxe arautuak eta energia ekoizten duten enpresak, nola eta tokiko energia komunitateak ez diren; dena den, mikroenpresak badira, laguntza izan dezakete. Gainera, ez dute dirulaguntzarik jasoko Energiaren Euskal Erakundearengandik (EEE) dirulaguntzak jaso ditzaketen kontzeptuek.

Bestalde, Partzuergoak landa eremutzat hartzen direnez, eta horien ezaugarri eta berezitasunengatik, gune horietan egingo diren jarduera ekonomikoko proiektuak babestuko dira. Partzuergoek beren muga propioak dituzte eta unitate baten gisa hartuko da horietako bakoitza. Erroldatutako biztanleriarik ez dutenez, erakunde horietan ezin izan dira aplikatu adierazleak gainerako erakundeetan bezala. Horregatik, proiektu horiek aztertu ahal izateko, K2 kalteberatasun maila duten zonatzat hartuko dira.

Helburuak

Neurri honek jarduera ekonomikoa sustatzen eta enplegua sortzen lagundu nahi du, horiek baitira programa honen Mendinet Estrategiaren ardatz nagusiak.

Orokorrak:

- Jarduera ekonomikoa sortzeko prozesuak bultzatzen eta ahalbidetzen dituzten agenteei laguntzea, halako jardueretarako espazioak sustatu ditzaten.
- Pertsona eta/edo enpresa ekintzaileei espazioak ahalbidetzea, horietan beren enpresa proiektuak garatu ditzaten.
- Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien test guneak bultzatzea eta beren negozio ideien errentagarritasuna eta pertsona ekintzaile gisa duten gaitasuna

ezagutu nahi duten pertsonen laguntzea.

- Espazioak, fisikoak nahiz birtualak, prestatzea eta dinamizatzea, ekintzaileek beren proiektuak garatu ditzaten eta ibilbide bat egina duten pertsonen ere beren jardura ekonomikoa sendotu dezaten. Horretarako, lankidetzak publiko-pribatua sustatuko da eta espazio horien sustapena eta sare kudeaketa bultzatuko da.

Espezifikak:

- Jendea lehen sektorean hastea sustatzea, sektoreari eusteko eta nekazaritzako elikagaien enpresetan errelebo aldaketa errazteko eta, hala, enpresa horiei ere eusteko, eta nekazaritzako elikagaien enpresak, nekazaritza enpresak eta zerbitzu osagarrien enpresak sortzea eta erakartzea.
- Merkataritzarekin, biztanleriarentzako zerbitzuekin, jatetxeekin eta gastronomiarekin lotutako jarduerak sortzen, finkatzen eta mantentzen laguntzea.
- Osasun eta ongizate sektorera bideratutako enpresak sortzea eta finkatzea ahalbidetzea.
- Landa eremuetan ekintzaileek turismo jasagarri, aisia eta abenturako beren proiektuak garatzeko moduko espazioak, fisikoak nahiz birtualak, prestatzea eta dinamizatzea, lankidetzak publiko-pribatua sustatuz eta espazio horien sustapena eta sare kudeaketa bultzatuz

Laguntzen izaera

Deialdi honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli behar ez diren horietakoak izango dira.

Deialdi honetan araututako laguntza-lerro bakoitza norgehiagoka esleituko da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.1 artikuluan ezartzen denez.

Aurkeztu den jarduketa proiektu bakoitzari eman beharreko hasierako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurkeztutako proiektuak konparatu eta, konparaketa egiterakoan, finkatutako irizpideak eta balorazioa hartuko dira kontutan.

Entitate onuradunak

Neurri honen entitate onuradun izan daitezke:

- Toki entitateak, Euskadiko toki erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak xedatzen duenaren arabera:
 - Udalerria.

- Kontzejuak eta lurralde mailako beste edozein toki erakunde, betiere udalerriez beheko eremukoak badira, lurralde bakoitzeko foru araudien eta toki araubidearen oinarriari buruzko legeriak xedatutakoaren arabera.
 - Udalerrietako mankomunitateak.
 - Araba Lurralde Historikoko kuadrillak.
 - Toki entitate bat baino gehiago elkartzen dituzten beste edozein entitate, dagokion izendapen espezifikoarekin, lege honek eta aplikatu beharreko gainerako araudiak xedatutakoaren arabera.
- Tokiko erakunde sektore publikoa (tokiko organismo autonomoak, tokiko erakunde publiko enpresariala eta titulartasun publikoko tokiko merkataritza sozietateak).
 - Landa garapeneko elkarteak.
 - Irabazi asmorik gabeko entitateak (fundazioak, elkarteak...).

Diruz lagun daitezkeen gastuak

Diruz lagundu ahal izango dira partida hauek:

- Higiezinak:
 - Eraikinak erostea.
 - Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien testak etengabe egiteko lursailak erostea.
- Obra:
 - Eremuak eta lotutako beste azpiegitura batzuk urbanizatzea, eraikitzea eta birgaitzea.
 - Arkitektoen eta ingeniarien ordainsariak: obran diruz lagun daitezkeen kostuaren % 15 gehienez.
- Makinak, altzariak, erremintak eta ekipo informatikoak (softwarea eta hardwarea).
- Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien test guneekin lotutako ekoizte baliabideak.
- Web orriak diseinatze, neurria dibulгатzeko eta sustatzeko.
- Birjarpen- eta mantentze-inbertsioak, betiere proiektuak 5 urte baino gehiago baldin badaramatza azkeneko egokitzapenetik.
- Proiektuari lotutakoak: diruz lagun daitezkeen kostuaren % 10 gehienez.

Diruz lagun ez daitezkeen gastua

- Oro har, lursailak eta etxebizitzak, eta etxerako ibilgailuak erostea edo alokatzea, aurreko paragrafoan adierazitakoa salbu.
- Birjarpen- eta mantentze-gastuak (proiektuak azken egokitzapenetik 5 urte baino

gutxiago dituenen) eta beste edozein funtzionamendu-gastu, langile propioen gastuak barne..

- BEZa, Estatuko legeriaren arabera berreskuratzeko modukoa ez denean salbu.
- Zuzeneko zergak, gizarte-aurreikuspeneko edozein erregimenetarako kontribuzioak eta berreskuratu daitezkeen zeharkako zergak.
- Mota guztietako interesak, errekaratuak, isunak, zehapenak, finantza-gastuak eta berme-gastuak, prozedura judizialen gastuak, errentamendu-kontratuekin lotutako gastuak, gastu orokorrak eta gastu arruntak, eta aseguruari lotutako gastuak.
- Aldaketek edo beste edozein arrazoik kontratatari eragindako deskontuak eta itzulketak edo ordainketak.

Erakunde eskatzailea erakunde pribatua bada, eskatzaileak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez (haien kontzeptuek elkarren artean alderatzeko modukoak izan behar dute), obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoiak.

Erakunde onuradunak azpikontratututako kanpoko enpresak ez dira haren betearazpenean sartuta egongo. Era berean, ez dute lotutarik izango, akzio edo partaidetzen bidez, zuzenean edo zeharka, laguntza eskatu duen erakundearekin.

Eskatzailea erakunde publikoa bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko da. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Hala ere, kontratu txikien kasuan, kontratazio-organismoak gutxienez hiru eskaintza eskatuko ditu, eta horiek espedientearen sartuko dira, hautatutako eskaintzaren justifikazioarekin batera, hori ez bada proposamen ekonomiko onuragarriena.

Bi kasuetan, eskaerarekin batera hiru eskaintzak aurkezten ez badira, inbertsioa edo gastua ez da kontuan hartuko diruz lagun daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko.

Hautagarritasun baldintzak

- Inbertsioa LEADER eremu batean egin behar da.
- Birjartze eta mantentze lanak egiteko inbertsioetarako proiektuek (5 urte baino gehiago igaro behar dute izan aurreko egokitzapen lanetatik) muga bat dute: pertsona onuraduna behin izango da denboraldi osoan.
- Proiektua 2023ko urtarrilaren 1aren ondoren hastea (NPBPE Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren esparrua) eta laguntza-eskaera

- aurkezterakoan amaituta ez egotea (ez amaitu izanaren akta).
- Memoria, Mendinetek duen ereduaren arabera prestatua. Memorian, egingo den obraren edo jarduketaren alderdi nagusienak deskribatuko dira eta neurriaren helburuak betetzen direla egiaztatuko da.
 - Eremuaren jabea izatea edo kudeaketa lagatzeko edo enkargatzeko dokumentu bat aurkeztea, gutxienez kudeaketa-planeari adierazitako denbora-tarte bererako.
 - Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien test-eremuen kasuan, proiektuaren hautagarritasunerako lankidetzaren proiektuaren esparruan landutako nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien test-eremuak kudeatzeko ereduak bete beharko da (ikus Mendineten Estrategiaren 2.11 puntua).
 - Entitate onuradun izateko betekizunak:
 - a. Indarrean dauden xedapenak ezartzen dituzten zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.

Administrazio eta finantza kontuak eta bateraezintasunak.

Inbertsio guztiek aktibo egon beharko dute martxan jartzen direnetik 5 urtez gutxienez. Betebehar hori betetzen ez bada, erakunde onuradunak dirulaguntza itzuli beharko du.

Estrategia honetan definitutako laguntzek minimis laguntzen inguruan Batzordearen abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduak xedatutako arauak errespetatuko dituzte, hain zuzen ere Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Ituneko 107 eta 108 artikuluko minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien zehazten duen Erregelamenduak xedatutako arauak. Erregelamendua 2023ko abenduaren 15ean argitaratu zen.

Europar Batasunak ezarrita dauka estatu kide batek enpresa bakar bati eman diezaiokeen minimis laguntza, guztira, ez da 300.000 euro baino gehiago izango hiru ekitaldi fiskaletan zehar.

Estrategia honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu nazional edo nazioarteko batzuek helburu berberarako eman ditzaketen beste laguntzekin, betiere laguntzek gainditzen ez badute minimis Erregelamenduak edo, hala badagokio, kategorien salbuespenei buruzko Erregelamenduak entitate bakoitzeko ezartzen duen gehieneko zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoak ezingo du izan, inolaz ere, helburu berberarako bakarka edo beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu nazional edo nazioarteko batzuen laguntza batzuekin batera, diruz lagun daitezkeen jarduketan kostua baino handiagoa.

Europar Parlamentuaren eta Europar Batzordearen abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduak xedatutakoaren arabera, ezingo dira finantzatu NBEF Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren edo LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez Europar Batasuneko beste funts edo tresna batzuen bidez finantzatutako gastuak.

Eragiketak LGNF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez finantzatu ahal izango dira, nahiz eta Europar Batasuneko beste funts edo tresna batzuetatik finantzazioa lortu, betiere funts guztietatik jasotako laguntza osoa esku-hartze bakoitzean ezarritako laguntzaren gehieneko intentsitatea edo zenbatekoa baino handiagoa ez bada. Hala gertatzen bada, ezingo dira finantzatu LGNF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez beste funts batzuetatik laguntza jaso duten eragiketak. Dena den, faktura bat proportzionalki hainbat gastutan zatitu daiteke, finantzazioa hainbat funtsetatik jasotzeko.

Laguntza hauek bateraezinak dira Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren beste laguntza agindu batzuetan sartzen diren kontzeptuekin.

Hasieran aurreikusitako baliabideak eta haien haztapena gauzatu beharreko ekintza guztiekiko

Hasieran aurreikusitako baliabideak: 3.900.000,00 €

Haztapena gauzatu beharreko ekintza guztiekiko: %13,79

Espero diren emaitzak/adierazleak

15. taula – Guneak gaitzeko neurriaren adierazlea

ADIERAZLEA	HELBURUA
Guneak gaitzea sustatzen duten ekimenen kop.	39

Balorazio irizpideak/lehentasunak

16. taula – Guneak gaitzeko neurria baloratzeko irizpideak

BALORAZIO IRIZPIDEAK	PUNTUAK (100 puntu)	
MENDINETEN ESTRATEGIARA EGOKITZEA	20	ESTRATEGIAN LEHENETSITAKO AUKERA EREMUAK SEKTOREKA: - Lerroren batekin bat badator: 10 puntu - Ez badator bat: 0 puntu - Coworking eremuak, zehaztu gabeko erabilera duen proiektua eta beste batzuk: 0 puntu ZEHARKAKO ARDATZAK: - Asoziazionismoa eta sareko lana. - Jasangarritasuna. - Udalaz gaindikoa izatea. Puntuazioa: 2 ardatz edo gehiago betetzen baditu: 10 puntu - Ardatz 1 betetzen badu: 5 puntu - Ardatzik betetzen ez badu: 0 puntu

KALTEBERATASUN MAILA	20	JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIO EREMURAKO EGINDAKO LEADER EREMUAREN KARAKTERIZAZIOAREN ARABERA • k1: 20 puntu • k2: 12 puntu • k3: 8 puntu • k4: 5 puntu
PROIEKTUA	35	
Beharren justifikazio txostena	15	EGOKIA ETA/EDO BEHARREZKOA Eskualdean ez dago jarduera edo zerbitzu honetarako beste espaziorik: 10 puntu Udalerrian ez dago jarduera ekonomiko edo zerbitzu hori eskaintzen duen beste espaziorik: 7 puntu Udalerrian badaude beste espazio batzuk, baina behar hori dagoen ebidentziak badaude: 5 puntu Udalerrian badaude beste espazio batzuk, naina EZ dago behar hori dagoen ebidentziarik: 0 puntu PROIEKTUAN INTERESATUTA DAUDEN ENPRESAK BADITUZTE Enpresa interesatuak dauden ebidentziak badaude: 5 puntu Enpresa interesatuak dauden ebidentziarik ez dago: 0 puntu
Eremuan egongo diren negozio unitateen kopurua	10	EREMUAN EGON DAITEZKEEN NEGOTZIO-UNITATEEN KOPURUA KONTUAN HARTUTA: • 3 edo gehiago egon badaitezke: 10 puntu • 2 edo 4 egon badaitezke: 8 puntu • 1 egon badaiteke: 5 puntu *Coworking eremuak negozio-unitate bakar baten gisa hartuko dira.
Inbertsio bolumena	10	PROIEKTUAREN INBERTSIO BOLUMENA: ○ > 300.000 €: 10 puntu ○ 100.000 € ≤ VI ≤ 300.000 €: 6 puntu ○ < 100.000 €: 3 puntu
TALDE SUSTATZAILEA	25	
Finantza-gaitasuna	10	FUNTS KONPROMETITUAK (proiektuaren guztizkoaren % kontuan hartuta) • Finantzaketa >% 75: 10 puntu • % 60 < Finantzaketa ≤ % 75: 8 puntu • % 30 < Finantzaketa ≤ % 60: 5 puntu • % 15 < Finantzaketa ≤ % 30: 3 puntu Atal hau zenbatzeko, egiaztatu egin beharko da aurrekontuko partida edo antzeko beste agiriren

		bat aurkeztuta (gerakinak, beste laguntza batzuk, bermeak...).
Parte-hartze publiko-pribatua	10	ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK PARTE HARTZEN DUTEN PROIEKTUA ○ Inplikatzek esan nahi du alde guztiek baliabideak jartzeko konpromisoak hartzen dituztela: 10 puntu ○ Ez dago lankidetzarik beste entitateekin: 0 puntu
Gehieneko laguntza eskatua (GLE)	5	• GEHIENeko LAGUNTZA ESKATUA ○ <75.000 €: 5 puntu ○ 75.000 € ≤ AMS ≤ 150.000 €: 3 puntu ○ >150.000 €: 0 puntu

Dirulaguntzen intentsitatea eta zenbatekoa

Laguntza horiek diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 80ra irits daitezke gehienez.

Era berean, proiektu bakoitzeko gehienez 200.000 €-ko laguntza ezarri da deialdi bakoitzeko.

Laguntza lortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa: 50 puntu.

100 puntu: % 80

50 puntu: % 40

Lortutako puntuazioaren arabera, honela gauzatuko da proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntzaren ehunekoa:

17. taula – Guneak gaitzeko neurriarentzako laguntzen ehunekoa

PUNTUAK	LAGUNTZEN %	PUNTUAK	LAGUNTZEN %	PUNTUAK	LAGUNTZEN %	PUNTUAK	LAGUNTZEN %
100	80	87	70	74	59	61	49
99	79	86	69	73	58	60	48
98	78	85	68	72	58	59	47
97	78	84	67	71	57	58	46
96	77	83	66	70	56	57	46
95	76	82	66	69	55	56	45
94	75	81	65	68	54	55	44
93	74	80	64	67	54	54	43
92	74	79	63	66	53	53	42
91	73	78	62	65	52	52	42
90	72	77	62	64	51	51	41
89	71	76	61	63	50	50	40
88	70	75	60	62	50		

Ordaintzea

Neurri honi dagokion ordainketa inbertsioa egin ondoren egingo da, justifikazio-agiriak aurkeztuta eta Mendineteko teknikariek ziurtagiria egin ondoren.

Neurri honetan bi zati ordaindu ahal izango dira erakunde interesdunak hala eskatuta ekitaldi bakoitzeko, proiektuaren zati bat gauzatu dela egiaztatzeko agiriak aurkeztu ondoren.

Laguntza emateko unean, erakunde onuradunaren izaera bereganatzen duen erakundeari dagokion erregistroan eraketa eta inskripzioa oraindik egin gabe badaude, ez da ordainketa partzialik emango hura eratu arte.

2.9 PROIEKTUAK HAUTATZEKO PROZEDURA

LEADER deialdiko proiektuak hautatzeko, Mendinetek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak xedatutako betebeharrak konplituko ditu, faseak egokituz hala behar izanez gero. Hona hemen faseak:

1. F. LAGUNTZEN DEIALDIA PRESTATZEA
2. F. AHOLKATZEA LAGUNTZA ESKAERA AURKEZTU AURRETIK
3. F. DEIALDIA ARGITARATZEA
4. F. ESKAINTZAK AURKEZTEA
5. F. PROIEKTUAK AZTERTZEA
 - a. Agiriak zuzentzea
 - b. Hautagarritasuna
 - c. Balorazioa
6. F. EBAZPENA PROPOSATZEA
7. F. EBAZTEA
8. F. JUSTIFIKAZIOA
9. F. ZIURTATZEA
10. F. ORDAINTZEA
11. F. ERREKURTSOAK
12. F. ESPEDIENTEEN JARRAIPENA EGITEA
13. BESTE BATZUK
 - a. PROIEKTUAK ALDATZEA
 - b. KONTROLAK ETA AUDITORIAK
 - c. LAGUNTZAK ARGITARATZEA
 - d. AGIRIEN BARNE KUDEAKETA

PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN AGENTEAK

- Mendinet landa garapenaren aurrerapenerako elkartea.
 - Mendineteko entitate bazkideak: landa garapeneko 18 bazkide (aurrerantzean, LGE) eta Hazi Fundazioa.
 - Mendineteko Idazkaritza Teknikoa (aurrerantzean, IT), Mendineteko teknikariek osatua (Mendinetek zuzenean kontratatutako teknikariak). Mendineteko ITk bere espazioa eta pertsonala izango ditu bere eginkizunak betetzeko. Espazioa hemen izango du: Granja Modelo, Arkaute (Araba).
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza (aurrerantzean, LIGEPZ).

Ondoren xehatuko den prozedura betetzen dela ziurtatzeko, Mendinetek hitzarmenak

sinatuko ditu prozesuan parte hartzen duten agenteeekin.

1. F. LAGUNTZEN DEIALDIA PRESTATZEA

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060/EB Erregelamenduko 33.3 artikulua arabera, tokiko ekintza taldeek bakarrik egingo dituzte laguntzen deialdiak; gure kasuan, Mendinetek.

Laguntzen deialdian, hainbat laguntza neurri agertuko dira, guztiak ere 2023-2027 Estrategian jasotzen direnak, eta Estrategia hori Mendineteko Batzar Orokorraren ezohiko bileran onartuko da. Hona hemen laguntza neurriak:

- Ekintzailatza eta barne ekintzailatza neurria.
- Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko neurria.
- Besteren kontura kontratatzeko neurria.
- Guneak gaitzeko neurria.

Mendineteko ITk deialdiaren zirriborroa egingo du. Zirriborroa entitate bazkideen eskura ipiniko da, aldaketa proposamenak aurkez ditzaten. Hasierako zirriborroa eta entitate bazkideen proposamen aldaketa guztiak Zuzendaritza Batzordeari bidaliko zaizkio, onar ditzan. Onartzeko, nahikoa izango da bertaratuen gehiengo soila, Mendineteko Estatutuetako 22. artikulua arabera.

Deialdiaren zirriborroa idazterakoan, kontuan izango dira erregelamendu europarretan eta LEADER laguntzei aplikatu beharreko gainerako araudietan definitzen diren eskakizunak eta Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen sailburuaren 2023ko maiatzaren 9ko Aginduan jasotako gutxieneko edukia. Aginduaren bidez, partaidetzazko toki garapeneko estrategiak eta Euskal Autonomia Erkidegoan horiek kudeatzeko ardura duten tokiko ekintza taldeak hautatzeko oinarriak onartu ziren, 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (NPBPE) esparruan.

Tramitaziorako barne prozeduran aurreikusi gabeko puntuetan, administrazio prozedurari buruzko 39/2015 Legea aplikatuko da.

2. F. AHOLKATZEA LAGUNTZA ESKAERA AURKEZTU AURRETIK

Laguntzak aurkeztu aurretik, landa garapeneko elkarteek, Mendineteko entitate bazkide diren neurrian, aholkularitza lanak egingo dituzten beren eskualdeetan, LEADER deialdiko laguntzetarako eskaerak aurkeztu eta tramitatzeko.

LGEek izango dute, Mendineten ordezkari moduan, harreman zuzena pertsona eskatzaileekin, haiek direlako eskatzaileengandik fisikoki gertuen daudenak eta

eskatzaileen lurraldea ondoen ezagutzen dutenak. LGEEK zeregin garrantzitsua izango dute; izan ere, LEADER programara aurkeztu diren proiektuen pertsona arduradunen aholkulari, orientatzaile eta laguntzaile izango dira, eskaerak ahalik eta ondoen bidera daitezen.

Behin deialdia irekita, LGEEK pertsona eskatzaileak hartuko dituzten beren eskualdeako bulegoetan eta aholkatu egingo diete, beren zeregina izango da laguntzen inguruko oinarritzko gaiei buruz informatzea: helburuak, pertsona onuradun izateko eskakizun orokorrak, eskaerak aurkezteko dokumentazioa eta epea, laguntzen kudeaketa, zenbatekoak, ebazpena, pertsona onuradunen betebeharrak, proiektua gauzatzeko gehieneko epeak, laguntzen justifikazioa, dirulaguntzen ziurtapena eta ordainketa, atzera eta uko egiteak eta ez-betetzeak.

Proiektuaren arduradun den pertsona bat bere eskualdeko LGEEKin harremanetan jarri eta aholkularitza hori ematen zaionean, LGEEK proiektuaren Aholkularitza Fitxa irekiko du. Fitxa horretan, fase horretako informazio aipagarriena jasoko da; fasea denboran luza daiteke.

Proiektuei ematen zaien aholkularitza funtsezko lana da, horren baitan egongo baita hein handi batean proiektuaren arrakasta edo porrota. Fase honetan pertsona sustatzaile batek LGEEKin harremanetan jarri eta bere proiektu idea azaltzen dioenean, inportantea da Elkarrekin erantzun bat ematea ahal den azkarren, esanez proiektuak hautatua izateko itxura daukan ala ez. Era horretan, pertsona sustatzaileak erabakiko du bere eskaerarekin bidea egiten jarraitzea ala ez jarraitzea. Lan hori LGEEKin ardura izango da. LGEEK proiektu jakin baten inguruan dudak baldin baditu, ITri kontsultatu ahal izango dio.

LGEEK ematen duten informazioa koherentea eta analogoa izan dadin, Mendinetek Erabilera Eskuliburua (maiz egiten diren galderak) prestatuko du urtero eta LGEEKi bidaliko die, tramitazioari buruz izan ditzaketan dudak argitzeko.

Pertsona sustatzaileak LGEEKengana ez joatea erabakiko balu, puntu hau kendu egingo litzateke aholkularitza fasetik. Nolanahi ere, informazioaren trazabilitatea mantenduko litzateke fitxen bidez, esan nahi baita, zer proiektu LGEEKin bidez bideratu diren eta zein proiektu ez jakin ahal izango da; azken baten, informazioaren erregistroa eraman ahal izango da, horrela.

Aholkularitza fase honetan, LGEEK ITri eskualdeak bisitatzea joateko eskatu ahal izango diote, *in situ* ezagutu ditzan LEADER deialdira aurkeztuko diren proiektuak. Bisita tekniko horiek LGEEK eskatuta egingo dira beti eta informazio bisitak izango dira bakarrik.

3. F. DEIALDIA ARGITARATZEA

Eskualde garapenko Europako funtsari buruz guztientzako xedapenak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/24/EB

Erregelamenduko 33.3 c) artikulua xedatzen duen moduan —lehen fasean aipatua—, deialdia tokiko ekintza taldeak soilik argitaratuko du; gure kasuan, Mendinetek.

Deialdia Mendineten web orrian argitaratuko da; dena den, tokiko ekintza taldearen beste kanal batzuk ere baliatuko dira deialdia zabaltzeko. Ahal den gehien zabalduko da deialdia, ahalik eta jende gehienengana iritsi dadin, eta, deialdia zabaltzeko eta hedatzeko ahalegin horretan, Mendineteko kide guztiek lagunduko dute.

Deialdia Euskadiko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da eta, era berean, nekazaritzaren arloan eskumenak dituzten administrazio publiko guztiei laguntza eskatuko zaie, deialdia ahalik eta gehien zabaltzeko.

4. F. ESKAERAK AURKEZTEA

Behin eskaerak aurkezteko epea irekita, pertsona eskatzaileak eskabidea bete eta elektronikoki bidaliko du.

LEADER laguntzak Tramitagune plataformaren bidez tramitatuko dira. Plataforman, eskaerekin batera aurkezten diren agiri guztiak jasoko dira, eta baita eskatzailearekin izango diren hartu-eman guztiak ere (errekerimenduak, jakinarazpenak...). Plataformak Segurtasunaren Eskema Nazionalak administrazio elektronikoaren arloan eskatzen dituen segurtasun neurriak ditu.

Baldin eta pertsona eskatzaileak eskaera egin eta eskaera hori “Ekintzailletza 2. Lerroa”, “Inbertsioak” eta “Guneak gaitu” neurrientzat bakarrik badira, dagokion LGEk bisita bat egingo du in situ, ziurtatzeko proiektua amaitu gabe dagoela, eta “amaitu gabe” akta idatziko du. Akta inprimaki hori bera erabiliko da halako akta egitea eskatzen duten neurri guztientzat.

Eskabidea

Eskabidea egiteko, kanal telematikoa erabiliko da, Tramitagune plataforman; identifikazio elektronikoko bitartekoa bat beharko da.

LEADER laguntzetarako eskaera Tramitagune plataforman aurkezten denean, Mendinetek jakinarazpen bat jasoko du posta elektronikoan (mendinet@mendinet.org helbidean). Behin jakinarazpena jasota, Mendinetek proiektuari dagokion espedienteko dokumentazioa eskuratu ahal izango du.

‘Amaitu gabe’ akta (“Ekintzailletza 2. Lerroa”, “Inbertsioak” eta “Guneak gaitu” neurrientzat bakarrik). Inbertsioirik/gasturik eskatzen ez duten kontratazio eta ekintzailletza neurrien kasuan, ez da kontrol aktarik idatziko.

ITk, eskaeraren sarreraren jakinarazpena jasotzen duen unean, dagokion LGEn emango

dio eskabidearen berri, hark in situ egiazta dezan laguntzaren xede diren inbertsioak ez direla amaitu, hori baita LEADER laguntzen baldintzetako bat.

Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, LGEk kontrol akta bat idatziko du, eta akta hori LGEk berak eta pertsona eskatzaileak sinatuko dute. Hain zuzen ere, LGEko teknikaria proiektua gauzatuko den lekura joango da eta kontrol aktaren bidez ziurtatuko du proiektua ez dela amaitu. LGEk aktaren kopia bat berak gordeko du eta beste bat pertsona eskatzaileari entregatuko dio. LGEk aktaren berri ITri emango dio Mendineten Dokumentu Kudeaketa plataformaren bidez (aurrerantzean, Mendinet Plataforma), ITk Tramitagune plataformara igo dezan eta, hala, eskaera tramitatzen hasi dadin.

Ekintza hori egiterakoan LGEk segurtasun osoz ikusten badu proiektuak ez dituela aukeragarritasun baldintzak betetzen, eskatzaileari eta ITri jakinaraziko dio.

5. F. PROIEKTUAK AZTERTZEA

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztutako proiektuak aztertzen hasiko da Mendinet. Hiru fase izango ditu azterketa faseak:

1. Agiriak zuzentzea
2. Hautagarritasuna
3. Balorazioa

Neurri guztietara aurkeztutako proiektuei norgehiagokako sistema bidez esleituko zaizkie laguntzak.

Zereginak eta ardurak

Mendinetek (ITk) eta entitate bazkideek elkarrekin kudeatuko dute fase hau, bakoitzak bere ardurak hartuz, prozesuko fase bakoitzean bere balioa emanaz eta bikoiztasunik gabe. Hona hemen arduren banaketa:

18. taula – Zereginak eta ardurak

	Zuzenketak	Hautagarritasuna	Balorazioa
Ekintzailtza	IT	LGE	IT
Inbertsioak	IT	LGE	IT (+ LGEren irizpidea)
Kontratazioa	IT	LGE	ST
Guneak gaitzea	IT	HAZI	IT (+ HAZIren irizpidea)

Entitate bazkideek azterketa fase hau egin dezaten, Mendinetek haiek behar duten dokumentazioa helaraziko diete.

Proiektuak aztertzetik ("Hautagarritasun " eta "Balorazio" faseetatik) eta ondorengo faseetatik ("Jarraipena" fasetik) ateratako emaitzak proiektuaren Azterketa eta Jarraipen Fitxan ipiniko dira, eta fitxa hori Mendinet plataforman jarriko.

Mendinet plataforma erabiliko da dokumentazio hori gutzia jasotzeko eta partekatzeko bi norabideetan (entitate bazkideetatik ITra eta alderantziz).

Zuzenketak

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Mendinetek neurri guztietako eskabideak aztertuko ditu, eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin. Derrigorrean aurkeztu beharreko dokumenturen bat faltatuz gero, 10 egun balioduneko epea emango dio dagokion pertsonari aurkeztu dezan.

Zuzenketa gutuna espedientearen "Zuzenketak" karpetan gordeko da, Mendinet plataforman. LGEn arduraren izango da pertsona eskatzaileen kontsultei erantzutea.

- Dokumentu hauek 3 momentutan ofizioz egiaztatu behar dira (elkarreragingarritasuna):
 - Nortasun datuak kontsultatzea / egiaztatzea (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia - PZN).
 - DEkonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) epigrafeak (foru aldundiak).
 - Zerga betebeharrak egunean edukitzea (foru aldundiak edo Zerga Administrazioako Estatu Agentzia).
 - Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN).

Aurreneko momentua da laguntza eskaera Tramitagunean jasotzen denean; lan hori ITren arduraren izango da. Bigarren eta hirugarren momentuak, berriz, ebazpena eman aurretik eta laguntzaren ordainketa egin aurretik dira; lan horiek Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren arduraren izango dira.

Zuzenketa fasea amaitu eta gero, ITk entitate bazkideei azalduko die haiek LEADER prozesuan beren zereginekin jarraitzeko behar duten dokumentazio osoa, ahalik eta bertsiorik eguneratuenean.

Hautagarritasuna

Kontuan hartuz "kokapena", "kronograma" eta "bat etortzea" irizpideak, entitate bazkideek bi kategoriatan banatuko dituzte proiektuak: "hautagarriak" eta "ez hautagarriak". Proiekturen batekin dudaren baldin badituzte, ITri kontsultatuko diote.

Neurri guztietan, LGEn arduraren izango da proiektuei hautagarritasuna esleitzeko arduraren, 'Guneak gaitzea' neurrian izan ezik; neurri horretan arduraren hori HAZIrena izango da.

Behin proiektuak aztertuta, entitate bazkideak "Hautagarritasun" atala beteko dute proiektuaren Azterketa eta Jarraipen Fitxan eta Mendinet plataformara igoko dute.

Entitate bazkideek proiektuei hautagarritasuna esleitu ondoren, Mendinetek Hautagarritasun Proposamena prestatuko du. Proposamena entitate bazkide guztiei jakinaraziko zaie, Zuzendaritza Batzordeak onartu aurretik.

Balorazioa

Fase honetan, Mendinetek "hautagarri" gisa kalifikatutako proiektuen edukia estudiantu eta aztertuko du, eta baloratu ere egingo du Taldeak horretarako prestatutako baremazio irizpide eta taulen arabera; irizpide eta taula horiek lehen aurkeztu dira Estrategian. Entitate bazkideak ondorengo irizpide hauek baloratzen parte hartuko dute:

- Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko neurrian, LGEek 'Eskualdeko estrategiara egokitzea' irizpidea eta 'Era horretako enpresa bakarra udalerrian' zeharkako ardatza baloratuko dute.
- Guneak gaitzea neurrian, HAZIk 'Beharren justifikazio txostena' irizpidea baloratuko du.

Entitate bazkideek irizpideen araberako balorazioa egin eta balorazioa Azterketa eta Jarraipen Fitxako 'Balorazioa' atalean jasoko dute ITk ikus dezan, Mendinet plataforman. Ondoren, ITk gainerako irizpideak baloratuko ditu eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuak kalkulatu ditu. Balorazioa eta puntuazioa txosten teknikoetan azalduko dira laguntzen aplikatiboan.

'Oroharreko zenbatekoa' aplikatuz ematen diren laguntzetarako ("Ekintzailtza eta barne ekintzailtza" mistoa eta "Kontratazioa" soila), lehenespenean oinarrituta banatuko dira LEADER laguntza eta proiektuak antolatuko dira laguntza neurri bakoitzarentzat adierazitakoaren arabera.

6. F. EBAZPENA PROPOSATZEA

Proiektuak aurreko fasean baloratu ondoren, Mendinetek ebazpen proposamen bat prestatuko du. Ebazpen proposamena bere entitate bazkide guztiei helaraziko die, Zuzendaritza Batzordeak onartu aurretik.

Neurri baten barruan laguntza proiektu guztiei ematen bazaie eta funtsak geratzen badira, funts horiek lehenespen orden honetan banatuko dira:

1. Ekintzailtza eta barne ekintzailtza
2. Guneak gaitzea
3. Inbertsioak (aurrena, nekazaritza-dibertsifikazioa eta, ondoren, nekazaritzakoak ez diren enpresak)

4. Kontratazioa

Neurrietako soberako funtsak banatzeko, funts gutzien batuketa egingo da eta, ondoren, neurrien artean banatuko dira lehen adierazitako ordenaren arabera.

Entitate bazkideek proposamena jasotzen dutenean, gerta daiteke:

- Ebazpen proposamenean akatsak egotea. Halakoetan, entitate bazkideek ITrekin harremanetan jarriko dira eta ITk zuzendu egingo du.
- Ebazpen proposamenaren punturen baten inguruan duda izatea. Hala bada, entitate bazkideek ITrekin harremanetan jarriko dira, dudak argitzeko.
- Diruz lagun daitekeen irizpidearekin edo kontzeptuarekin ados ez egotea. Halakoetan, entitate bazkideek Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko diote desadostasuna eta ZBk hartuko du azken erabakia.
- Baldin eta ITk balorazioa irakurri eta diruz lagun daitekeen irizpide edo kontzepturen baten inguruan dudak baldin badauzka, ZBri kontsultatuko dio eta ZBk hartuko du azken erabakia.

Mendineteko Zuzendaritza Batzordeak onartuko du behin betiko ebazpen proposamena.

Ebazpen proposamena Eusko Jaurlaritzara igorriko da, hain zuzen ere Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariari bidaliko zaio.

7. F. EBAZTEA

EJko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak laguntzari buruz Mendinetek emandako ebazpen proposamena aztertuko du, ebatziko du eta ebazpena pertsona eskatzaileei jakinaraziko die, eskabidean aukeratutako komunikazio kanalaren bidez (presentziala edo telematikoa).

Ebazpenean, deialdian onartu eta atzera bota diren proiektuen inguruko informazio orokorra jasoko da; proiektuari beraren eranskin bat ere egongo da, puntuazioaren xehetasunekin (lehenespenearekin, egon bada) eta diruz lagun daitezkeen kontzeptu onartuekin.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak EHAA argitaratuko du ebazpena eta argitaratzen denetik aurrera Mendinetek ebazpena jakitera emango du bere web orria eta komunikaziorako dituen gainerako kanalak baliatuz.

8. F. JUSTIFIKATZEA

Behin laguntzak adjudikatuta, pertsona onuradunek proiektuaren egikaritzapena

egiaztatu beharko dute, eta baita laguntza emateko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituztela ere.

Pertsona onuradunek beren proiektuen egikaritzapena justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuko diote Mendineti (fakturak eta horien ordainagiriak, beste dokumentazio guztiarekin batera), Mendinetek baitauzka horiek gainbegiratzeko eta egiaztatze eskumenak.

9. F. ZIURTATZEA

Justifikazio agiriak aztertu ondoren, Mendinetek (ITk) proiektuen ziurtagiriak egingo ditu eta ordainketa proposamenak eta aginduak prestatuko ditu. Horiek Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariari igorriko zaizkio bi plataformen bidez: ordainketa proposamenak Tramitagunearen bidez eta ordainketa aginduak laguntzen aplikazioaren bidez.

Orokorrean, ordainketa partziala edo azken ordainketa egin aurretik, Mendinetek eginiko inbertsioa materialki egiaztatuko du *in situ*; egiaztatuko du egiaztatzea joan den ondasunak benetan badaudela, ondasun horiek bat datozela baloratutako proiektu edo memoriarekin, ondasun horien baliagarritasuna eta funtzionamendua, ondasun horiek bat datozela justifikatzeko aurkeztu diren dokumentuekin, pertsona onuradunak publizitate arauarekin betetzen duela eta egiaztatu beharreko gainerako alderdi guztiak egiaztatuko ditu, diruz lagundutako inbertsioen edo gastuen arabera. *In situ* egiaztatze lan hori guztia dagokion LGerekin batera egingo du —LGE pertsona onuradunari aholkularitza zerbitzua eskaintzen jarraitzeko asmoz joango da egiaztatzeetara— eta, horretako, Mendinetek aurrez bidaliko dio LGeri dokumentazioa.

TETk laguntzen aplikazioa baliatuko du aurkeztutako proiektuak erregistratzeko eta ondorengo jarraipena eta kontrola egiteko. Horri guztiari esker, Mendinetek behar duen informazioa edukiko du autonomia erkidegoko, Estatuko eta Europako administrazioek eska lekizkiokeen egikaritzapen txostenak prestatzeko.

10. F. ORDAINTZEA

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariari dagokio dirulaguntza ordaintzea pertsona onuradunari.

Normalean, ordainketak egingo dira laguntza aurreko oinarrian ezarrita bezala justifikatu ondoren eta Mendineteko teknikariek ziurtatu ondoren.

11. F. ESPEDIENTEEN JARRAIPENA EGITEA

Mendinetek jarraipena egingo die dirulaguntza jaso duten proiektuei, funtsak modu arduratsuan erabiltzen direla zaintzeko.

Egikaritu gabe dauden proiektuei jarraipena egingo zaie lau hilean behin. Behin burutzen direnean eta azken ordainketa egiten denean, jarraipen kontrola egingo zaie urtero, ondorengo 3 urteetan. Bi jarraipenak, bai lau hilean behin egingo dena eta bai urtean behin egingo dena, LGEek egingo dituzte; proiektu bakoitzaren eboluzioari buruzko datu esanguratsuenak egiaztatuko dituzte.

Bestalde, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak, berak zuzenean edo kanpo auditorien bidez, jarraipen kontrolak egingo ditu, eskaeraren xede diren inbertsioak neurri bakoitzean eskatzen den denboran mantentzen diren ziurtatzeko.

Azterketa eta Jarraipen Fitxa bakoitzeko "Proiektuaren jarraipena" atalean, LGE bakoitzak jarraipenari buruzko informazioa utziko du eta besteen eskura ipiniko du dokumentua Mendinet plataforman.

12. F. ERREKURTSOAK

Pertsona eskatzaileak gora jotzeko errekurtsua aurkez dezake laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka landa garapenaren inguruan eskumenak dituen sailburuordearen aurrean. Halakoetan, Mendinetek eta entitate bazkideek parte hartuko dute sailburuordeari proposamen teknikoa prestatzen lagunduz; proposamena sailburuordeari igorriko dio.

ITk "Errekurtsuak" izeneko karpeta bat sortuko du Mendinet plataforman eta excel taula batean aurkeztutako eta aztertutako errekurtsu guztiei buruzko informazioa jasoko du bertan: espedienteen erreferentzia, laguntza neurria, pertsona eskatzailea, proiektuaren izena, aurkezpen data, aurkezteko eta erantzuteko epemugak, egoera, ukatzeko arrazioa, alegazioak, errekurtsoarekin batera aurkeztutako dokumentazioa, proposamen teknikoa eta ebazpena.

ITk proposamen teknikoa prestatuko du eta entitate bazkideei helaraziko die proposamena EJra bidali aurretik. Mendinet EJrekin batera ariko da lanean proiektuaren bizitza osoan.

13. BESTE BATZUK

a. PROIEKTUAK ALDATZEA

Proiektuen aldeko ebazpena onartuta dagoela, pertsona onuradunak

proiektua aldatzeko eska dezake, salbuespen moduan eta, betiere, laguntza ematean onartutako helburua aldatzen ez bada.

Aldaketa hori Mendineteko ITri bidaliko zaio. Hark aldaketa aztertu eta baliozkotu egingo du.

b. KONTROLAK ETA AUDITORIAK

Mendinet EJren eta Europako Batzordearen esanetara egongo da, eta baita kanpoko beste edozein organismo eskudunen esanetara ere, kontrolak eta auditoriak egiteko TETren barne antolamenduari buruz nahiz LEADER proiektuak hautatzeko prozedurari buruz.

c. LAGUNTZAK ARGITARATZEA

TETk behar bezala emango die ezagutzera partaidetzazko toki garapeneko estrategia zonako biztanleei, eta baita laguntzak emateko arauak ere. Toki entitateek eta TETn ordezkaritza duten elkarteek beren iragarki oholetan behar den informazio guztia jarriko dute Estrategiaren herlburuak pertsona onuradun izan litezkeenei ezagutzera emateko.

d. AGIRIEN BARNE KUDEAKETA (Mendinet plataforma)

Proiektuak hautatzeko prozedurako zereginak betetzeko behar den dokumentazioa ITk eta entitate bazkideek partekatuko dute LEADER prozesu osoan zehar, batik bat TETn hautatu eta adostutako uneetan. Horretarako, Mendinetek plataforma bat erabiliko du, dokumentazioa gordetzeko espazioa izango dena. Hor karpeta kodetu bat egongo da proiektu bakoitzarentzat eta karpeta horrek sarbide mugatua izango du, Mendinetek eta entitate bazkideek bakarrik sartu ahal izango dute. Informazioaren trazabilitatea bermatzeko asmoz, pertsona arduradunek agiriak igo eta aldatu dituzteneko datak jasotzen dituen sistema bat bilatuko da.

Estrategia behar bezala inplementatzea lortzeko eta LEADER proiektuak hautatzeko prozedura egoki bat izateko, prozedura hori eguneratu edo moldatu ahalko da Mendineten eta entitate bazkideen adostasunez.

2.10 ANIMAZIO EKINTZAK, ESTRATEGIA GARATZEN HAS DADIN

Agiri honetako 2.6 estrategia lerroan aipatutako ildo estrategikoei eta planteatutako helburu orokorreki ekiteko, aipatutako laguntza neurrirez gain hainbat animazio ekintza proposatzen dira 2023-2027 urteetarako. Mendinetek gauzatuko ditu animazio ekintza horiek.

Ekintza horiek sortu dira diagnostikoan identifikatu diren beharretatik eta laguntza neurrien bidez erantzun ezin izan zaien ildo estrategikoetatik. Beharrezkoa da Mendinetek eta entitate bazkideek proaktibitatez lan egitea.

Ekintzak ondo burutzeko, lantaldeak edo lan egiteko modu alternabito batzuk sortuko dira.

Jarraian, 2023-2027 denboraldirako aurreikusi diren animazio ekintzak xehatzen dira:

LAGUNTZA/AHOLKULARITZA ZERBITZUA DISEINATZEA ETA BULTZATZEA ENPRESENTZAT

Zerbitzu honen bidez, Euskadiko LEADER eremuko pertsona fisiko ekintzaileei edo ekimenean ari direnei eta enpresei lagundu nahi zaie, haien eskura hainbat arlotako adituen zerbitzu profesionalak jarritz.

Helburua da LEADER eremuko jarduera ekonomikoen lehiatzeko gaitasuna hobetzea eta haien finkapena. Horretarako, hainbat faktore sustatuko dira LEADER eremuan: enplegua; hazkundera; genero berdintasuna, hor sartzen delarik emakumeen partaidetza nekazaritzan; inklusio soziala; eta toki garapena.

Asmoa da proiektuek/enpresek beren heltze faseetan dituzten beharrei erantzutea. Estrategia honen bidez, landa eremuek dituzten hiru desafio nagusi hauei aurre egin nahi zaie: ekintzailertza eza, erreleboa enpresetan eta enpresen finkapena. Hori kontuan izanda, ezinbestekoa da proiektuek zerbitzu hau lagun izatea proiektu ideia eta errelebo proiektua bururatzen denetik dauden enpresak finkatzen diren arte.

TREBAKUNTZA HIRUGARRENEI (enpresak mapatzea eta ekintzailertzara bideratutako trebakuntza)

LGEen eguneroko zereginen artean enpresei aholkatzea eta laguntzea daude. Plan Estrategikoa 2023-2027 agirian jasotako jarduketara ildo askotan, pertsona erabiltzaileei trebakuntzaren arloan eskaini edo aholkatu beharra jasotzen da.

Egin beharreko hausnarketak egin ondoren, erabaki da lantalde bat sortzea eta Mendinetena den proiektu hau aktibatzea, dauden trebakuntza beharrak identifikatzeko eta dagozkion bilaketak egin eta behar horiei erantzutzeko, trebakuntzaren arloko hainbat agenterekin harremanetan jarritz.

Behar horiek alda daitezke denboran zehar eta, beraz, garrantzitsua da proiektu jarraitua izatea, merkatuak une bakoitzean dituen beharrei erantzuteko.

Proiektuaren helburua da baliabideak sortzea, hain zuzen ere LGEek pertsona erabiltzaileei trebakuntzaren arloan aholkularitza emateko erabil ditzaketen baliabideak; asmoa da zerbitzu oso bat ematea, LEADER eremuan trebakuntza sustatu dadin.

MENDINETEN PARTE-HARTZEA IDENTIFIKATUTAKO SEKTOREEN EKOSISTEMETAN

ETA SAREETAN

Estrategia prestatzeko prozesuan, LEADER eremura erakartze lanak egiteko sei sektore estrategiko identifikatu dira, eta ekintzailatza zeharkako aukera arlo moduan. Era berean, beharrezkoa ikusi da Mendinetek presentzia izatea sektore horietan dauden sareetan eta ekosistemetan. Ekosistema horietan presente egonez gero, izan ere, eremu horietako beste agente batzuekin hartu-emanak izango ditu, eremu horien inguruko ezagutza handiagoa izango du eta eremu horietan lankidetzarako bide eta aukera nitxo berriak identifikatuko ditu.

Beraz, proiektuaren xedea da agenteak eta entitateak identifikatzea, ekosistemetan parte hartzeko, eta lankidetzarako eta elkarlanerako aukerak aztertzea. Horrek guztiak, denbora eta dedikazioa eskatuko baditu ere, areagotu egingo du Mendineten erreferentzialtasuna.

Hona hemen identifikatutako ekosistemak:

- Ekintzailatza.
- Osasuna eta ongizatea.
- Ekonomia zirkularra.
- Merkataritza, zerbitzuak, artisautza eta sormen industria.
- Turismoa, aisia eta abentura.
- Nekazaritzako elikagaien industriarako eta lehen sektorerako zerbitzu osagarriak.

2.11 LANKIDETZA PROIEKTUAK

Kontuan izanik Mendineten ibilbidea, hau da, aurreko programaren denboraldian lankidetzak jarduketetan izandako partaidetza eta lortutako emaitza bikainak, Estrategia honetan lankidetzak Mendineten lehentasunetako bat da.

Lankidetzak helburu hauek ditu:

- Tokiko ikuspegia zabaltzea eta ezaupide berriak eskaintzea garapenerako Estrategia hobetzeko.
- Toki garapenerako ekintzen alderdi berritzailea indartzea eta jarduketa arloen lehiakortasuna handitzen laguntzea,
 1. gaitasuna eraikiz eta negozio ideia berriak sorraraziz;
 2. bazkide berriak ezagutuz;
 3. berrikuntza, ezagutza eta esperientzia berriak kapitalizatuz; eta
 4. berrikuntza, ezagutza eta abildade berriak hedatuz.

- Tokiko ikuspegiak zabaltzea, tokiko estrategiak hobetzeko eta ezaupide berriak jarduketa eremura erakartzeko.

Esparru moduan Europako Batzordeak 2022ko abuztuaren 31n onartutako NPERen Plan Estrategikoa hartuz, puntu hauek azpimarratu behar dira lankidetza jardueren inguruan.

- Onuradun hautagarriak dira Tokiko Ekintza Taldeak eta lurraldeko agenteak, publikoak nahiz pribatuak.
- Lankidetza jarduketetan bi agentek hartuko dute parte gutxienez.
- Ekintza horiek dirulaguntzak dira; izan ere, diruz lagun daitezkeen gauzatutako kostuen dirua itzuli egingo da, kostu sinplifikatuak aplikatzen diren kasuetan izan ezik.
- Gehieneko laguntzaren intentsitatea %100ekoa izango da TETren gastuentzat eta entitate publikoek edo irabazi asmorik gabeko elkarte pribatuak edo interes sozialagatik edo irabazi asmorik gabe parte hartzen duten entitateek jasandako gastuentzat. Pertsona onuraduna autonomoa, enpresa edo diruz lagundutako jarduera baten sustatzaileak badira, Estatuaren laguntzei buruzko araudi aplikagarriak xedatzen dituen gehieneko intentsitateak hartuko dira kontutan.
- TETk aurrerakinak jaso ahal izango dituzte lankidetza proiektuetarako, finantza gastuak sartuta. Administrazioaren eta TETren artean sinatutako hitzarmenak abailarako balioko du.

Orokorrean, lankidetza jarduketek LEADER eremuaren garapen jasagarria ahalbidetu beharko dute eta dokumentu honetan definitutako toki garapenerako estrategiarekin lotuta egongo dira.

Lankidetza jarduera da ekimen bat batera prestatzea, jarraitzea eta ebaluatzea, haren kudeaketa lurralde bakoitzean modu indibidualean egin badaite ere. Dena den, halako jarduera parte hartzen duten lurraldeen mesederako diren ekintzak batera diseinatu eta prestatzera bakarrik mugatu daitezke.

Gainera, jarduera horiek

- a) lurraldean barreiatuta dauden ideiak, ezagutzak, giza baliabideak, baliabide materialak, finantza baliabideak barne, bateratzeko izan behar dute, guztien interesa den xedea erdiesteko, beharrezkotzat jotzen diren ekintzak gauzatuz;
- b) izaera soziala edo ekonomikoa izan dezakete, parte hartzen duten lurraldeen lehentasunezko gaien inguruko ildoen barruan, kontuan hartuz emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna;
- c) berrikuntza izan behar dute ardatz eta frogatzeko moduko ondorioa izan behar dute; eta
- d) ahal den neurrian, lankidetza publiko-pribatua eta sektore anitzeko jarduketa integratuak bultzatu behar dituzte.

Hori guztia kontuan izanik, Mendinetek beste agenteekin lankidetzan garatu nahi dituen

gaiak identifikatu ditu. Hona hemen gai horiek:

- Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien test-guneak kudeatzeko eredua.
- Erreleboa enpresetan.
- Ekonomia, ingurumena eta gizarte aldetik jasangarriak diren negozio ereduak identifikatzea, hedatzea eta horien inguruko sentsibilizazioa (SMART ikuspegia).
- Egonaldi programak LEADER eremuan proiektuak sustatzen dituzten pertsonentzat, ekimenerako landa eremuen sarea lehenetsiz.
- Jardunbide egokien eskuliburua hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten enpresetan.

Gai horiek Estrategia berari erantzuten diote eta lankidetza aukera bat da Estrategiaren implementazioa sendotzeko, ikuspegi berritzaile eta aberasgarri batekin; haren eragina areagotu egingo da, horrela.

Horretarako, Mendinetek lankide dituen gainerako entitate bazkideekin batera identifikatu egingo ditu parte hartzen duen entitate bakoitzaren helburuak, zereginak, aurrekontu osoa, betebeharrak eta erantzukizunak, garatu beharreko jarduerak bakoitzerako.

Dena den, jarduerak prestatzeko laguntza teknikoa jasotzeak ez du esan nahi jarduerak burutzeko betebeharrak bat sortuko denik, baldin eta, esate baterako, jarduerak bideragarriak ez dela frogatzen bada. Halakoetan, eginiko gastuak diruz lagun daitezkeen gastuetatik hartuko dira.

2.12 KOMUNIKAZIO PLANA

Komunikazioa LEADER metodologiaren zutabeetako bat da eta, gainera, Tokiko Ekintza Taldeen arduetako bat, laguntza publikoak kudeatzen dituzten neurrian. Hemen aurkezten den Komunikazio Plana Mendinet tokiko ekintza talde gisa hautatzen denean xehatuko da eta Mendinet Estrategia 2023-2027 dokumentuaren zerbitzura egongo da; beraz, ekintza guztiak izendatutako baliabideen arabera gauzatuko dira. Era berean, Komunikazio Planaren funtzionamendua idatziko da Mendinet TET moduan eratzen bada.

Metodologiari dagokionez, LEADER ikuspegiaren elementu nagusienetakoa interkonexioa da. Interkonexioa komunikatzeko modu bat da, jardunbide egokiak transferitzeko eta, tokiko landa garapenean jasotako esperientziak aprobetxatuz, berrikuntza hedatzeko modu bat. Interkonexioaren bidez, loturak sortzen dira pertsonen, proiektuen eta landa eremuen artean eta, horri esker, zenbait landa eremuk isolemenduari aurre egin diezaioke. Interkonexioak, halaber, lankidetzak proiektuak indartu ditzake, LEADER taldeak elkarrekin harremanetan jarritz. Hori guztia premisa moduan hartuta, Mendinet tokiko ekintza taldea sare bat da berez, baina ireki egin behar du eta elkarlanean jardun behar du beste erakunde batzuekin, toki, erregio, estatu eta nazioarte mailan diharduten erakundeekin alegia.

Komunikazioa berrikuntzarekin ere lotuta dago. Izan ere, kasu askotan landa eremuetan berrikuntza egiteak eragin nabarmenak ditu: eremu jakin batzuetan eginiko hobekuntzak beste eremuetara transferitzen eta egokitzen dira, ezagutza teknikoen modu tradizionalak modernizatzen dira edo landa eremuetako arazo iraunkorrentzako konponbide berriak bilatzen dira, beste esku-hartze politikoek modu egokian eta jasangarrian konpontzea lortu ez dutela ikusita. Hala, informazio eta komunikazio teknologika landa eremuetan inplementatzea oso bide egokia izan daiteke landa eremuetako biztanleriak berrikuntza handiagoa eskura izan dezan.

Are gehiago, LEADER estrategiaren berezko ezaugarrietako bat goranzko ikuspegia da. Horrek esan nahi du interesdunek parte hartzen dutela beren estrategiaren inguruko erabakiak hartzen eta beren tokiko eremuan jarri behar diren lehentasunak aukeratzen. Interesdunek tokiko eskalan parte hartzeak hainbat agenteren esku-hartzea dakar, esan nahi baita, biztanleriak, interes ekonomikoa eta soziala duten taldeek eta erakunde publiko eta pribatuetako ordezkariak parte hartzen dute.

Bitartekoak sortzea goranzko ikuspegiaren funtsezko osagaia da. Horrek berekin dakar tokiko biztanleriaren kontzientziazioa, trebakuntza, partaidetza eta mobilizazioa, eremuaren indarrak eta ahuleziak finartzeko, toki garapenerako estrategia prestatzen hainbat interes taldek parte hartzeko eta tokiko eskalan jarduketa (proiektu) egokiak hautatzeko irizpide argiak ezartzeko eta Estrategiaren berri emateko.

Ardurari dagokionez, Mendinet TETk kudeatzen dituen LEADER laguntzak laguntza publikoak dira; beraz, onuradunek dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak xedatzen duena beteko dute,

Europar Batasuneko eta Estatuko araudi aplikagarriak xedatutako baldintzetan.

Testuinguru horretan, Mendinet TETk hainbat printzipio bermatu behar ditu, hala nola lankidetzak, objektibotasuna, inpartzialtasuna, efikazia, efizientzia, gardentasuna, publizitatea eta lehia askea, legeak berak xedatzen duen bezala, eta printzipio horietako asko komunikazioaren baitan daude:

- **Lankidetzak:** hiritarrek oro har eta lurraldeko entitate publikoekin edo pribatuekin, Mendinet TATkoak izan ala ez, eta baita gainerako tokiko ekintza taldeekin ere.
- **Objektibotasuna:** nor bere buruari diskrezionalitatea mugatzea, alde aurretik ezarriz proiektuak kudeatzeko prozedurak eta baloratzeko irizpideak, eta laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena behar bezala arazoitzea.
- **Inpartzialtasuna:** erabakitze organoek ez dute parte hartu behar zuzeneko edo zeharkako interesen bat duten proiektuen debateetan eta bozketetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28.2 artikulua xedatutako abstenitzeko arazoirekin bat dagoenean.
- **Efikazia:** akordioek egon behar dute eskualdeko programetan aurreikusitako helburuak zuzenean lortzera bideratuta, erabakiak zenbatuz eta horiek eragin litzaketen ondoren aztertuz.
- **Efizientzia:** kostu txikiagoarekin onura sozial handiagoa lortzea, bereziki emakumeen eta gazteen artean, edo ingurumenaren babes handiagoa, proportziorik onena lortzeko errendimenduaren, inbertsioen erabilgarritasunaren eta funtzionamendu gastuen artean.
- **Gardentasuna:** eta inpartzialtasuna laguntzen kudeaketa osoan.
- **Publizitatea:** dagokion informazioarena eta, hala badagokio, eguneratuta, laguntzen araubidearena eta proiektuak kudeatzeko prozedura eta baloratzeko irizpideena.
- **Lehia askea:** muga bakarrik deialditik eratorritakoak.

1.- DIAGNOSTIKOA

Mendinet TETren Komunikazio Plana Euskadiko landa garapenerako Lege berriaren eta NPEren Plan Estrategikoa 2023-2027 agiriaren babesean idatzi da eta plan horren xedea da nekazaritza sektore adimenduna, lehiakorra, erresilientea eta dibertsifikatua sustatzea, elikadura segurtasuna epe luzera bermatzeko, ingurumena babesteko eta landa eremuetako ehun sozio-ekonomikoa sendotzeko.

Plan hau idazterakoan kontuan izan dira funtsezko oinarri jakin batzuk, arlo honetan lan

egiterakoan aintzat hartu behar direnak, lortu nahi diren helburuak lortzeko:

- Helburuak eta pertsona hartzaileen taldeak
- Esku-hartzeak gardentasunez egitea
- Estrategiaren neurrien edukia
- Informazioaren argitasuna. Informazioa zehatz-mehatz eta ondo definituta transmitu behar da.
- Komunikazioa, soila izan behar du, jaso behar duen publikora eta publiko horren ezaugarri berezietara egokitua, eta komunikazio elementuek izan behar dute pertsona hartzaileen araberakoak eta, aldi berean, erakargarriak, haien arreta bereganatzeko.
- Ardura azaltzea landa eremuekiko eta komunitatearen nortasunarekiko.

Komunikazio Plana behar bezala prestatzeko, AMIA azterketa bat egin da, erabaki estrategiko egokienak hartzeko:

19. taula – Komunikazio Planerako AMIA

AHULEZIAK	MEHATXUAK
- Sare sozial gutxi edo batere ez - Mendinet TET ez da ezaguna landa eremuetan - Talde zabala (19 bazkide): zailtasunak koordinatzeko - Lidergo eza taldean	- Hedabideen erantzun eskasa. - Jarduera sortzeko aukerak galtzea, ezjakintasunagatik. - Independentzia gutxi erabakiak hartzerakoan
INDARRAK	AUKERAK
- Ezugutza sakona landa eremuen inguruan - Euskadiko landa eremu guztiak hartzen dira - TETko bazkideen esperientzia sakona eta egiaztatua - Eragiteko gaitasuna	- Komunikazio kanal berriak irekitzea - Bazkideen koordinazioa Mendinet TETren komunikaziorako - Bazkideen proaktibitatea komunikazioan - Komunikazio adituak

- Teknikari talde prestatua	kontratatzeko aukera
- Kasu arrakastatsuak	

2.- MENDINET KOMUNIKAZIOAREN HELBURUAK

Mendinet TETren gaur egungo egoerari buruz eginiko azterketaren arabera eta kontuan izanik 2023-2027 urteetarako Estrategian xedatutakoa eta aurreko urteetan eginiko lan guztia, helburu orokor hauek definitu ditugu:

1. Informazioa ahalik eta pertsona onuradun gehienengana iritsiko dela bermatzea. Informazioa Euskadiko hiru lurralde historikoetan zabalduko da, **erraz, zorrotz eta beti eguneratua** denboraldi berriaren barruan.
2. Mendinet TETk eta haren bazkideek eginiko informazio argitalpen guztietan **gardentasuna** bermatzea. Informazioaren uniformitateari buruzko kontrolari eutsiko zaio deialdi bakoitzean.
3. **Feedback-a bermatzea eta ahalbidetzea** jasotako kontsulta guztien inguruan. Onuradunek nahiz interesdun (publikoek edo pribatuek) izan litezkeenek aurkeztuko dituzte kontsultak, edozein komunikazio kanalen bidez.
4. **LEADER Estrategiaren edukia eta filosofia hedatzea.** Horretarako, informazioa eskura ditugun bide guztietatik zabalduko dugu eta behar duen orok jasoko duela bermatuko da denboraldi osoan eta deialdi bakoitzean.
5. **Landa eremuek bere osotasunean duten garrantziaz sentsibilizatzea.** Horretarako, hedabideen eskaerei erantzungo zaie, behar diren hitzaldi eta jardunaldi guztiak eman eta antolatuko dira eta informazio elementu guztiak eguneratuta edukiko dira.

Helburu guztiek SMART ikuspegia errespetatu beharko dute: espezifikoa, neurgarria, lorgarria, errealista eta denboraz mugatua. Aurrerago adieraziko dira jarduketa ildo bakoitzerako helburu zehatzak eta Estrategiaren denboraldi guztirako ezartzen diren adierazleak.

3.- MENDINET KOMUNIKAZIO PLANA

Lehen definitutako funtsezko oinarrien gainean eta helburuen babesean, Mendinet TETk LEADER laguntzak argitara emango dio lurraldeko biztanleria guztiari, eta baita laguntzak emateko arauak ere. Gainera, II. eranskinak ezarritakoa betetzen dela bermatuko du. Eranskin

horretan, Europako Batzordearen abenduaren 21eko 2022/129 Erregelamenduko Feader funtsen laguntzen inguruko informazioari eta publizitateari buruz xedatutakoa jasotzen da.

Informazio fluxu egokia mantenduko da laguntzen hartzaileen artean (laguntzen onuradunen, interesdun izan litezkeenen, gizartearen eta entitate publikoen eta pribatuen artean).

Mendinet TETren Komunikazio Planaren oinarriak barne komunikazioa eta kanpo komunikazioa izango dira. Barne komunikazioaren helburua izango da bazkideen misioa, ikuspegia eta balioak behar bezala partekatzea eta haien funtzionamendua hobetzea; kanpo komunikazioaren helburua, berriz, LEADER laguntzei buruzko informazio guztia hedatzea eta TET bera sustatzea.

2.13 JARRAIPEN PLANA ETA EBALUAZIOA

Estrategia guztietan jarraipena eta ebaluazioa egitea beharrezkoak izaten dira, dokumentuan ezarritako helburuak zenbateraino bete edo betetzen diren jakiteko. Era horretan, neurriak hartu eta/edo jarduketak gauzatu ahal izango dira, hala behar izanez gero.

Horretarako, adierazle jakin batzuk identifikatu dira eta, adierazle horiei esker, behar dugun informazioa izango dugu Estrategia zenbateraino bete edo betetzen ari den jakiteko.

Edierazleak etengabe neurtzen errazak behar dute izan Mendinetentzat eta denboraldi guztirako ezarritako azken helburuekin alderatuko dira.

Neurrien ezaugarrien arabera definituko dira datuak jasotzeko unerik egokienak eta ebaluazio bat egingo da gutxienez denboraldiaren erdialdera.

Hauek dira adierazle orokorrak:

ADIERAZLE OROKORRAK

Adierazle hauek NPPBPEko fitxa orokorretan daude eta, beraz, kontuan hartuko dira, kontabilizatu eta aztertu egingo dira, literaltasun zehatzari eutsiz.

Dena den, adierazle orokorrak kontabilizatzerakoan, kontuan hartu beharko dira lurraldearen eta aurkeztutako Estrategiaren berezko berezitasunak. Esaterako, Estrategia prestatzeko ekintzak ezin dira diruz lagundu Euskal Autonomia Erkidegoan).

20. taula – Adierazle orokorrak

ADIERAZLEAK	HELBURUA
LEADER estaldura Biztanle kopurua, sexuaren arabera R.38	261.066
Diruz lagundutako toki garapeneko estrategia kopurua (LEADER) O.31	1

ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK NEURRIZ NEURRI

Ministerioak emandako adierazleen fitxak egiteko, Estrategia honetan aurkeztutako neurri bakoitzari dagozkion adierazlean hartu dituzte oinarritzat.

Zenbait neurritan, adierazlea errepikatu egiten da neurrien ezaugarriengatik. Bera, horiek berrikusterakoan adierazlearen eragina baloratu ahalko da, neurriak banaka hartuta eta modu orokorrean.

Hautatutako adierazleak bakoitzari dagokion neurrian jasota daude.

Adierazleak urtero jasoko dira, jarraipena egiteko eta, hala, Estrategiaren efizientzia ziurtatzeko; gainera, denboraldiaren erdian ebaluazio bat egingo da eta denboraldiaren amaieran beste bat.

Ebaluazio horietan, Estrategiak finkatutako helburuekiko duen efikazia, efizientzia eta eragina aztertuko dira, eta esperotako emaitzak lortzen ari diren ikusiko da

2.14 FINANTZAKETA PLANA

2.14.1 FINANTZA TAULA LABURTUA, OROKORRA, NEURRIZ NEURRI

21. taula - Finantza taula laburtua, orokorra, neurriz neurri

KONTZEPTUA	GASTU PUBLIKOA (2)								GASTU PRIBATUA (3)	GASTU OSOA (2+3)
	NPPBPE 2027 GUZTIRA (1)	%	FEADER	Euskadiren kontrapartida	FEADER + kontrapartida (4)	% (4/1)	Finantzaketa gehigarria (5)	% (5/1)	Guztira	Guztira
Funtzionamendu eta animazio kostuak kudeatzea	2.405.550,00	% 7,66	608.000,00	152.000,00	760.000,00	% 31,59	1.645.550,00	% 68,41	0,00	2.405.550,00
Eragiketak inplementatzea (lau neurri)	28.281.716,00	% 90,05	4.876.000,00	1.219.000,00	6.095.000,00	% 21,55	22.186.716,00	% 78,45	52.523.186,86	80.804.902,86
Lankidetzak	720.000,00	% 2,29	216.000,00	54.000,00	270.000,00	% 37,50	450.000,00	% 62,50	72.000,00	792.000,00
GUZTIRA	31.407.266,00	% 100,00	5.700.000,00	1.425.000,00	7.125.000,00	% 22,69	24.282.266,00	% 77,31	52.595.186,86	84.002.452,86

2.14.2 FINANTZA TAULA, URTEKA, NEURRIKA ETA FUNTSEKIN

22. taula - Finantza taula urteka eta neurrika

KONTZEPTUA	2023				2024				2025	2026	2027	GUZTIRA
	GUZTIRA	FEADER	Euskadiren kontrapartida	Finantzaketa gehigarria	GUZTIRA	FEADER	Euskadiren kontrapartida	Finantzaketa gehigarria	Finantzaketa gehigarria	Finantzaketa gehigarria	Finantzaketa gehigarria	
Funtzionamendu eta animazio kostuak kudeatzea	185.000,00	148.000,00	37.000,00	0,00	575.000,00	460.000,00	115.000,00	0,00	520.000,00	550.000,00	575.550,00	2.405.550,00
Eragiketak inplementatzea (lau neurri)	5.182.500,00	2.682.500,00	670.625,00	1.829.375,00	5.795.430,00	2.193.500,00	548.375,00	3.053.555,00	5.795.430,00	5.795.430,00	5.712.926,00	28.281.716,00
Lankidetzak	120.000,00	96.000,00	24.000,00	0,00	150.000,00	120.000,00	30.000,00	0,00	150.000,00	175.000,00	125.000,00	720.000,00

GUZTIRA	5.487.500,00	2.926.500,00	731.625,00	1.829.375,00	6.520.430,00	2.773.500,00	693.375,00	3.053.555,00	6.465.430,00	6.520.430,00	6.413.476,00	31.407.266,00
---------	--------------	--------------	------------	--------------	--------------	--------------	------------	--------------	--------------	--------------	--------------	---------------

2.14.3 FINANTZA TAULA, URTEZ URTE ETA URTE BAKOITZEKO FUNTSEKIN

23. taula - Finantza taula, urtez urte eta urte bakoitzeko funtsekin

GASTU PUBLIKOA (2)									GASTU PRIBATUA (3)	GASTU OSOA (2+3)
URTEA	NPBPE 2027 GUZTIRA (1)	%	FEADER	Euskadiren kontrapartida	FEADER + kontrapartida (4)	% (4/1)	Finantzaketa gehigarria (5)	% (5/1)	Guztira	Guztira
2023	5.487.500,00	% 17	2.926.500,00	731.625,00	3.658.125,00	% 67	1.829.375,00	% 33	9.636.642,86	15.124.142,86
2024	6.520.430,00	% 21	2.773.500,00	693.375,00	3.466.875,00	% 53	3.053.555,00	% 47	10.777.941,43	17.298.371,43
2025	6.465.430,00	% 21	0,00	0,00	0,00	% 0	6.465.430,00	% 100	10.777.941,43	17.243.371,43
2026	6.520.430,00	% 21	0,00	0,00	0,00	% 0	6.520.430,00	% 100	10.780.441,43	17.300.871,43
2027	6.413.476,00	% 21	0,00	0,00	0,00	% 0	6.413.476,00	% 100	10.622.219,71	17.035.695,71
GUZTIRA	31.407.266,00	% 100	5.700.000,00	1.425.000,00	7.125.000,00	% 23	24.282.266,00	% 77	52.595.186,86	84.002.452,86

2.15 IRUZURRAREN AURKAKO PLANA

Dokumentu honetako 2.8 puntuan azaltzen den funtzionamenduan, Mendineten eta Euskadiko Administrazioaren arteko banaketa erakusten da eta, horren arabera, bermatuta daude lankidetzak, objektibotasun, inpartzialtasun, efikazia, efizientzia, gardentasun, publizitate eta lehia askearen printzipioak.

Gainera, Mendinet konprometituta dago iruzurra eta interes gatazkak ekiditearekin; era berean, ziurtatzen du ez dela egongo finantzaketa bikoitzarik LEADER proiektuak hautatzeko prozeduran. Horretarako, behar diren ekintza guztiak gauzatuko ditu, Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 9an eginiko bileran onartu zuen Planak xedatzen duen moduan. Plan horretan hainbat neurri ezartzen dira, hain zuzen ere Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurriak. Plana Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez 2022ko apirilaren 13ko EAAOn argitaratu zen.